

FELIX BILBAO
Ipuin-barreka

FELIX BILBAO

Ipuin-barreka

Sarrerea: Adolfo Arejita
Edizinoa: Nagore Etxebarria

LABAYRU IKASTEGIA
BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDAZIOA
BILBAO
2009

Argitalpen honen moldaketak eta prestakuntzak Eusko Jaurlaritzan, Bizkaiko Foru Aldundia eta Morgako Udalaren laguntza izan dau.



ARANTZAZUKO
FRANTZISKOTAR
PROBINTZIA



PROVINCIA
FRANCISCANA DE
ARANTZAZU

© *Obrarena*: Felix Bilbao

© *Irudiena*: Enrique Morente

© *Argitaraldi honena*: Labayru Ikastegia - Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa

Aretxabaleta, 1-1.a

48010 BILBAO

Tel.: 94 443 76 84 - Fax: 94 443 77 58

Posta elektronikoa: labayru@labayru.org

Diseinua: Ikeder, S. L.

Fotokonposizioa: Ikur, S. A.

Silutegia: Baster, S. L. L.

ISBN: 978-84-92599-03-5

Lege Gordailua: BI-1436-09

Lan hau erreproduzitu, banatu, jendaurreratu edo eraldatzeko, titularren baimena behar da nahitaez. Legeak ezarritako salbuespen kasuetan izan ezik. Lan honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu behar baduzu, jarri harremanetan CEDROrekin (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

AURKIBIDEA

Hitzaurrea. <i>Felix Bilbao</i>	11
Meakatik Ganbera. <i>Adolfo Arejita</i>	15

IPUIN-BARREKA

<i>Berbatxu bi</i>	31
I. Trenean joan, eta prakak galdu	33
II. Astoa, asto	37
III. Asto pekataria	41
IV. Anton <i>Zapatari</i> ren testamentua	44
V. Txomin <i>Txikiri</i> barre gitxi!	48
VI. Ana Mari Kontzeren arrainak	52
VII. Mozoloaren ipuina	56
VIII. Peruren besigua	60
IX. Ondo eginaren ordaina	63
X. Otsoaren ardi-jateak	67
XI. Bizkarra berotu	70
XII. Txangurruak maisu	73
XIII. Bestaldeko lapikoa hobe?	76
XIV. <i>Prakazahar</i> ren bazkaria	80
XV. Aitagurea ikasten	83
XVI. <i>Txinpas</i> ijitanua	88
XVII. Praisku eta Mari Pepa	92
XVIII. Zerura joateko, zorro bat onen	96
XIX. Beste munduko gizona	101

XX.	Josepa astronomu	106
XXI.	Gorria, gero, galanta!	111
XXII.	San Pedro egarri	115
XXIII.	Migel Ferminen behorkumeak	119
XXIV.	Petra gaiztoago	123
XXV.	Don Paulinoren prefazioa	127
XXVI.	Azeriaren betekadea	130
XXVII.	Don Fakundoren erbia	135
XXVIII.	Zeruak nahi eta ezkondu behar	139
XXIX.	Ezkontza-hauste bat	145
XXX.	Tomas <i>Kirru</i> ren distrazinoak	149
XXXI.	Kukubel soinularia	152
XXXII.	Hiru ikasleen bazkaria	156
XXXIII.	<i>Triskiliren</i> gorabeherak	161
XXXIV.	Ume alperrak dozuz, Klaudi?	166
XXXV.	Josetxu artzaina eta Jigantea	170
XXXVI.	Hil bat zaintzen	173
XXXVII.	Postura osteko <i>zaratatxuak!</i>	176
XXXVIII.	Nikolasaren jantzi barriak	180
XXXIX.	Martin <i>Txilibitu</i> eta Mitxin	183
XL.	Orbelaungo azeria	187
XLI.	Jose Migel maisu	194
XLII.	Julitxu eta Libetxu	198
XLIII.	Don Martin sermolari	203
XLIV.	Praiskuren zaldia	206
XLV.	Patxi Errota mediku	210
XLVI.	Demoninoaren adar artean	214
XLVII.	Santiagootako sermoia	218
XLVIII.	Txangurrua eta karramarroa	222
XLIX.	Bertoldinen zorakeriak	227
L.	Kontuz doministikuagaz!	230
LI.	Petronilaren oiloa	236
LII.	Apartxu eta bere kume biak	241
LIII.	Ahari-joketa bat	246

LIV.	Txomin <i>Zorri</i> ren ezkontzea	250
LV.	<i>Txotxopin</i> ehiztaria	254
<i>Agurra</i>	265

HITZAURREA

«Ezer ez eta, zaratea. Inor ez eta, gerizea.» Morgan, neure herri honetan, entzuna dot euskal esakera hori. Eta ez dakit, ba! Bildur naz, oraingo honetan, neure kontrako harrikada bihurtuko ez ete jatan...!

Labayru Ikastegiak, Adolfo Arejita morgarraren gidaritzapean, eta Morgako Udalak bat eginda, gure herriko euskeraren berezitasunak agertzera emon gura ditue, eta, beste ekintzen artean, nire *Ipuin-barreka* berrargitaratu, bertoko euskeraren adierazgarri.

Niretzat, egia esanda, ohore da. Eta gure herriko euskeraren aberastasunak erakusteko bada, betoz ordu onean erakundeon asmoak!

Ume-denporan, eskolan ez euskuen guri euskerarik emon; kentzen ahalegindu bai. Gure irakasleak kanpotarrak ziran, *kastellanoak*; euskerea kendu eta erdereza sartzen etorriak, gehienak.

Ni neu egonda nago Ganbe neure auzoko eskolan, sei-zortzi urte nituala, errekreo barik, eskola barruan zigortuta, besoak zabalik, belauniko, eraztuna atzamarrean..., euskeraz berba egi-
tearren.

Baina ez eutsan ardura; han geunkan geure eskolea, gure familia zan, gure auzoa zan, gure lagunak ziran, gure herria.

Hamaika urte nituala Arantzazura joan nintzan fraile. Han be ikasketa guztiak gartzelaniaz, erderaz. Hurrengo urteetan, bardin. Euskera hutsez etorritako nire lagun batzuk, praktika faltaz, bera galtzeraino be heldu ziran.

Nire ikaskide batzuen kolkoan, eta neurean be, ostera, euske-raganako zaletasuna, urteak aurrera gehituaz-gehituaz joan zan. Geure kontura irakurten genduan zeozer: *Xabierto*-eta lehenengo; gero, *Kresala*, *Garoa*, *Auñamendiko Lorea*, eta abar. Idatzi be, arean egiten genduan; eta geure arteko errebistatxu baten idatziok argitaratu be bai. Eta hortik, geure gogo eta ahalegin horretatik, sortu zan azkenean *Ipuin-barreka* be.

Sorrerea zelakoa izan zan Aita Luis Villasantek azalduta daukagu liburuaren lehenengoko edizinoaren hitzaurrean, 1959. urtekoan, hatan be.

1954garrenean izan zan, hogeta bi urte nituan nik orduan. Ipuin-sariketa baten barri emon eustan Luisek; eta berotu nintzan, adoretu eta idazten hasi. Eguneko ipuin bat amaitzen neban. Nik idatzi, eta nire ikaskide batek garbitara eroan, idatz-makinaz kopiauta. Hile pare bateko beharra izan zan hau ipuin-txortatxuau osotzea. Sariketara aurkeztu... eta saritua izan zan: mila pezeta-ko saria! Orduan praka barri batzuk egiteko beste.

Hiru-lau urtean hauts artean euki eta ostean, ipuinok irakurleak euki ekiezala-ta, argitara eroatea ebatzi neban. Bilboko Ella-kuria argialetxera jo, eta Tomasek baietz. *Ipuin-barreka* izenaz urten eban opilak labatik. Zorra ordaindu, liburu-aleak hartu, Foruko komentura ekarri, eta motortxu baten laguntzaz herririk herri zabaltzen hasi nintzan: hemen hamar ale, hor hamabost, beste hatan hoge... eta holan.

Eretxi onak hartu nituan, hartu be, kritikaren aldetik: Pierre Lafittena *Herria* asterokoan (1959ko abenduaren 3an), Seber Altuberena *Arantzazu* aldizkarian (1959ko azaroan), Basarrirena *La voz de España. San Sebastián* (1959ko azaroaren 21ean), Santi Onaindiarena *Karmel* aldizkarian (1959ko azaro-abenduan), eta abar.

Gertakizun pozgarri eta bitxi bi be badaukadaz *Ipuin-barrekaren* inguruan; biak soldadiska egiten ziharduen gazte biganik jasoak. *Ipuin-barreka* leiduten harrapau ebela-ta, bata egun birako kalabozora; morgarra zan hau ganera. Besteak, Foru-

ko komentura etorri eta, agertuaz batera hau esan eustan: «Zure *Ipuin-barreka* irakurri dot soldadiskea egiten nabilela, eta berak maitemindu nau guztiz euskeragazko». Azkeneko hau, gaur euskal idazle famadua dogu.

Argitaratze-arloan, lau biderrez izan da argitaratua gaur arte; Labayru Ikastegiak, Morgako Udalagaz batera, egingo dauen hau bosgarrena izango dogu.

Poztu nau barri hau hartzeak, ez dot ukatuko. Lehen esan dodan lez, niretzat ohore izanaz ganera, Morga nire herriko euskera-modua agergarri bada, eta era berean gure bizkaiera baztertuaren bultzagarri, poz eta ohore handiago!

Hara, bada, amaitzeko, zer esango lerro honeen hasieran ipini dodan gure herriko esakuneaz? Haolan aldatuta geratu bedi: «Zeozertxu bai eta, zaratea: Morgako euskeraren *zarata* atsegina. Nonor bai eta, gerizea: Morgako euskera bereziaren *geriza* gozagarria».

Txori asko etor bedi euskeraz kantari zugatz honen adarretara.

Felix Bilbao
Morgan, 2008ko urrian

MEAKATIK GANBERA

Aita Felixen *Ipuin-barreka* ipuin eta osterantzeko kontuz horniduriko txorta eder honen sarreran berbatxu batzuk ipintea eskatu jat, horren barrurengo errazoia biok morgarrak izatea dala. Felix Bilbao, Gernikaldera baino Mungialdera gehiago joten dauen Ganbeko ibar ederreko –San Pedro mendirantz begirattuta– ezkerreko aldeko aldrapan dagoan Zugatzaga auzotxuan –*Zuetza* geure esakeran– jaioa; eta ni, Mekaurre ganean dagoan Meaka auzo jagiko semea –geure bertako berbetan *Miakorre* eta *Mieka* izenak emon izan deutseguz–.

Ganbe aldea, auzo baino ibar da gehiago: auzo txiki mordoa dauka barruan, eta herriz hondino urte asko ez dala Mungia zan, honek inguruan zituan uri-auzo ugarietariko bat, nahi haregaz mugakide be ez izan: Larrabetzu, Fika-Gamiz eta Fruiz Morgaz beste inguruetan. Abauntza eta Jandoniz parajea, ostera, Morga izan dira beti. Eleizaz Ganbe osoa izan da Morga, eta belaunik belaun horrek euki dau indar gehiago bertakoak bere burua morgartzat eukiteko. Mungiar ez dot uste inoiz sentidu diranik; eukitekotan be Fruiz eukiko eben baten batzuk hurrago.

Ganbetarrak eskolea euren ebena, eta hango neska-mutikoak ez ziran gure Meakaurreko eskolara etorten. Diputazinoak gerra aurrean Bizkaiko beste auzo askotan legetxe han be eregi eban auzo-eskolea, Andramarin egoanaren antzekoa.

Udalerri bateko edo besteko izateak banatzen ginduzan baino askoz gehiago alkartzen ginduzan sasoi baten eleizaz morgar izateak. Guztiok ez ginan Meakaurreko eleizara domekaro batzen, jakina.

Andramari aldeak bere eleizea eban, eta dau, txiki eta apalagoa izan arren, eta bere abadea. Eskolea be berea eukan, harik eta zarratu eben arte. Horregaitik beharbada, hango neska-mutikoak eta eleiztarak gitxiago ikusten genduzan urtean zehar, Aste Santuan, hiletetan, herriko jaietan eta halako okasinoetan ez bazan. Aste Santuak gaur baino eragin handiagoa eukan denporan eta fraileak misinoak emoten etorten ziran denporan, eleizara jente asko batzen zan; urrunagoak be bai. Eta hileta-ospakizumen bat egoanean be bardin, ortusantua bakarra genduan herri osoak eta. Gure ume-denporan, orain baino mehatzago ebilzan auto eta motorrak kaminoetan, geure eguneroko zeregin eta ardurak geunkazan ingurutik mobidu be gitxi egiten ginan. Meakatik Meakaurrera zan gure ohiko ibilbidea: bai eskolara, bai dotrinara, bai mezatara. Urrunago joateko autobusa hartu behar genduanean be, Meakaurretik aurrera dagoan Irazabaleko kurutzean *-Ixabale* bertako berbakeran- hartzen genduan Bilbokoa edo Gernikakoa.

Halantxe ba, Meakaurreko eskoleak edo eleizeak alkartzen ginduzanak alkar hurragokotzat geunkan, noizik noizera ikusten genduzanak baino. Hara batzen ziran herriz Morga ez ziran auzo eta baserrietako umeak be: Olaren erreka bestaldea Errigoiti zan; baita Intxuize, Axe, Axondo eta Ugelitze (*Ubelitze*), esaterako. Eleizara urrunagokoak be bai: Olabarriko eta Ganbe aldeko batzuk be.

Ganbe aldean hurragoko egiten jakuzan auzo batzuk, beste batzuk baino, batez be gure eleizara etorten ziralako: Gabatika (*Gabatike*), Goltzarri (*Boltzarri*), Menika (*Menike*), Zugatza (*Zuetza*). Hemengo jentea ondo ezagutzen genduan, etxeko genduan, Aita Felix barru dala. Beheko auzo eta baserrietakoak urrunagokotzat geunkazan, bai herriz Morga ziranak be: Abauntza (*Abuntze*), Jandoniz (*Jandunixe*) –hemengo ermitara *Sanjuanetan* oinez joaten ginan Erreketan zehar, jaia egiten zalako- eta Zorrotzondo –lehenago errotea izan zana-. Urruntxuago, baita be, San Pedro mendirantz egozan Orue eta Guardia (*Guardixe*) auzoak, edo Bekoerrotta (*Bekorta*), Ibarra (*Iberre*) edo Fika alderantz gehiago jotzen dauen Zabala (*Zabale*).

Oñarteko paraje ederra be hur egiten jakun: Meakatik Biorreta (*Bidxorta*) ganetik arin heltzen zan hara. Amaren aldetiko senide urruntxukoak be genduzan hor, baina batez be Bizkargira *Santakur-tzeetan* edo Andramarira *Santioetan* joaten ginanean, Oñartetik atxina joaten ginan oinez. Bide batez esan daidan, neure bigarren deiturea be hortikoa dodala, Oñarte-etxebarria, Andramarirantz goazala ezkerretara dagoan Oñarte-etxebarri etxean jatorria dauena. Meakako Iturrikoetxe (*Itturrikotse*) baserri-etxean, nire txikitako baserrian, 1802an Iturrikoetxea deituradun ugazabandreak, Josefa izenekoak, testamantua egin ebanean, Iturrikoetxeko etxea itxi eban seme batarentzat eta Oñarte-etxebarrikoa beste seme batentzat. Josefa horren senar difuntua, Juan, Oñarteko Etxebarri horretatik etorria zan ezkontzaz, antza, Iturrikoetxera, eta hiru seme izan zituen: Juan, Jose eta Ramon.

Baina gomuta zaharrok itxi eta ekin degiogun arloari, Felix Bilbao ganbetarraren *Ipuin-barreka* liburuia aurkezteari.

Labayru Ikastegitik Morgako udaletxera joan ginan baten, herriko berbeta-ondarea batzeko asmoak alkartzen ginduzala Ikastegiko eta Udaleko ordezkariak, hangoxe berba-ekarrian erne zan Aita Felix herriko semearen aspaldiko *Ipuin-barreka* barriz argitaratu behar zalako asmoa. Handik lasterrera umotu zan asmoori eta ebatzi be arintxu egin zan harribitxizko ipuin liburu hau atzera ezagun eragitekoea. Hori be, ezer izatekotan, herriko ondarea genduan eta. Euskeraz idazte askotzarik euki ez dauen herria izan Morga, bat euki aspaldi-aspaldirik, eta beraren gomutea eta emaitza bertan behera galtzen itxi? Ez arranoetan be!

Felix Bilbao, *Aita Felix* izenaz askoz ezagunago dana eta izan dana herri eta parajeetan be, frantziskotar idazle eta sermolari bikaina dogu. Eta ofizio biok ia bat dirala esango neuke gizon honegan. Sermolari bikaina, bizia eta adoretsua izan da bere bizi guztian: zenbat sermoi eder, zenbat berbaldi sutsu eta giharratsu entzun ez ditue morgar, muxikar eta inguruetakoe eleizarrak Aita Felixen ahoz? Idatzirik, *Ipuin-barrekaz* gorakorik, bakanago, baina aurrean dogun liburuau irakurten dauenak behingoan igarriko deutso hizlari zoli eta trebe baten lumatik jalgia dana.

Orain adinean aurrera doa Aita Felix, baina ipuin-bilduma hau Euskaltzaindiko lehiaketara 1954an aurkeztu ebanean hogeta bi urteko morrosko gordina genduan berau. Eta neure kolkorako esan nei, beste askok esan edo pentsau daben moduan: nondik jatorko gatz eta berakatz gure fraile-estudiante gazteari hainbeste ipuin eder hain jas handiaz idatzirik emoteko? Eskoleak be lagunduko eutsan areantxu, baina etxetik ekarrela hagea ziuurtauko neuke gehiago. Berberak autortu deusku han-hemenka: «Gure aitita zanak ipuinik asko ekian, ba!». Esaera horregaz hasiera emoten deutso bigarren ipuinari. Eta Felixi be gogoko izan halako ipuinak! Berak dinosku zetariakoak be: «Abereenak jakuzan atseginen». Etxeko hage horren beste zertzelada bat, pasadizu bat anaiearen ahoan ipinten dauenean be erakusten deusku: *Gorria, gero, galanta!* pasadizu antz osoko kontua, idazlearen apainduria ugariaz janzten jakin dauena.

Lehenari eragiten ez gara hasiko, onerako ez bada. Eta *Ipuin-barreka* baino bilduma hoberik zein, orain berrogeta hamar urteko bizimodua eta euskera-modua bera be ezagutzeko erarik izan ez daben gazte eta gaztetxuentzat? Geure hizkuntzaren eta herri-jakintzaren iraungarri izango dan katea egingo bada, holako katebegi sendoak behar ditugu, askorentzat ia ahaztu antzean dagozanak. Gaurko euskaldun askok ia ez dauka liburu honen entzuterik, arabere gitxiago belaunaldi gazteak; ez Morgako jaioterrian ez ganerako euskal herrietan. Izan be urte luzeak joan dira lehenengoz argitaratu zanetik. Mende erdi igaroa da harako 1959ko urtean «Euskaltzaindiaren ardurapean» argia ikusi ebanetik, eta gehiago oraindino 1954.eko urte goiztiar haretan Euskaltzaindiak ipuin lehiaketa bat eratu eta beratan lehenengo saria Julene Azpeitiagaz erdi bana irabazi ebanetik. Urrun dagoz urteok gaurko jentearentzat, bizi izan zituen zaharrentzat eurentzat be ia. Kontuak ez ziran errazak orduko sasoiaren euskerearentzat: bost urte igaro ziran sari-tua izatetik argitaratu artean. Euskerea ia katakunbetara kondena-tua egoan urte lainotsu hareetan hots handiegi barik aterako zan seguruen liburua, eta egileak berak dinosku zelan banatzen ebazan aleak.

Argitaraldi harek Aita Luis Villasanteren hitzaurre argia ekarren aurretik, ipuinon iturriak eta orduan frailegai gazte zanaren konteta eta idazte doaiak ondo agirian ixten zituana. Baina egileak berak autortu deusku, batez be Azkue eta haren *Euskalerrriaren Yakintza* izan ebala iturri.

Hogeta bi urteko morgatar gazte gordin harek edozelan be bere burua adoretzu topau eban, eguneko ipuin bat idazteko. Bai, ba: denporearen aurka ebilen burrukan eta, Euskaltzaindiak eraturiko lehiaketara sasoiz ailegauko bazan obra hori. Emon eutsan astia, horraitino, baina ez orduak sartu barik segurutik. Ze eguneko ipuina idazteak, eta baktxaren luzerea ez edozelakoa, barriz, adorea eta ekina eskatzen ditu, hasieratik akabura borobildu gura izan ezkeru. Lehenengo ipuin-gaiak topau eta onentxuenak hautu. Herri-ipuinak izanik –ahozkorik harakoak edo idatziz emonak izan, beti be labor kontauak izan ohi dira gehienetan–, hornidu eta edertu beharra eskatzen dabe, baldin zeozelako originaltasuna edo berezkitasuna izatekotan; hau da, jatorrian hazurra eta azala baino gitxi gehiago diran kontakizunoi mamina erantsi behar jake, gero eder eta lirain emongo bada-be. Ipuin edo kontu, berez labor diranak, gaiz osotu, zertzeladaz hornidu, apaingarriz bitxitu, eta hizkera dotore jatorraz lumatu, hori izan da, besteak beste, idazlearen meritua. Euskera ederra aitatu dogu, eta hau harritzekoa! Hamaika urte zorrigaz Arantzazura joana zan mutikoak, harik beste hamaika urte garrenera etxean eta auzoan ikasia eban euskerearen errastua osorik jagongo ebala nork pentsau eikean! Ganbe aldeko baserri-jentea egiten entzun eban euskereak geroak garrenera be usain, kolore eta gustu-saborea arean be galdu barik iraungo ebala Felix Bilbaoren lumapean?

Etxetiko euskera horren aberasgarri lagunduko eutsan duda barik bere kontura irakurten zituan euskal liburuetako sendariak –Domingo Agirrerren hiru nobelak izentetan deuskuz berak liburuoni hontsuon egin deutsan sarreratxuan–, baina Azkue bera, Kirikiño eta ez dakit Zamarripa bera be urrun barik ibiliko ete ziran. Halan zein holan dala be, ezagun da Felix gazteak frailegai urte lerdnotan ez eukala saltzeko Zugatzako auzoan eta Ganbeko eskolan ikasi ebana

eta berak beretara ahalegin egingo ebala segurutik, eurenko suetean edo etartean barruratu eban berbeta eta mundutxu ha hausnarrean egosten, urruntzen eta lausoan aldentzen itxi barik. Horretan dau meritu handietariko bat liburu honek: herriko esakera eta berbeta-moduak bere-berezkoan mendau izana ipuin idatziotan.

Gauza bat da ziuerra Felix Bilbaoren hizkeran: erdal sundarik nekez dariola; darabilzan esate-moduak –harridurak, itaun erretorikoak edo adierazpen zuzenak dirala be– euskera-munduan murgildurik dagoan baten burutik urtenak dirala; edo berak asmauak, nahi besteri entzunikoak izan bardin deutso. Goitik beherako kontalari euskaldun batek esango leukezan erara taiutzen ditu dialogoak.

Argitaratu orduan be ospetxua atera eban, horraitino, liburu honek. Eta lehenengo 1959ko argitaraldi goizetiko ha agortu zanean, hutsunetxua igarriko eben dudatzaka euskera-egarri ziran orduko irakurle mehatzak, orduko sasoiaren haren irakurgai gozagarririk gitxi atera be egiten zan eta. Euskaltzaindiaren gerizpean eginiko lehenengo hari, bigarrenak jarraitu eutsan 1973an, gero hirugarrenak 1980an eta akabukoz laugarren bat 1985ean. Frantziskotarren ardurapeko argitaraldiak dira bitik laurakoak, grafia aldetik barriturik, eta nobedade bat lehenengoan ez etorrena: *Txotxopin ehiztaria* izeneko azken ipuin luze bat gehitu eutsan idazleak liburuari. Argitaraldiok Arantzazuko fraile-lagun biren ardurapean eginak ziran: Joxe Mari Arregi eta Bitoriano Gandiaga mendatarra. Artean batasun bidea abiatua zan eta grafia-arau barrietara ekandurik etozan, liburuaren 9. orrialdean zehazten ebezan erizpideakaz. Bitoriano Gandiaga aitatu dogun ezkerro, esan daigun beronek be, Felix Bilbaok 1959an argitaratu eta hiru urtera plazaratu ebala *Elorri* poesia-liburua, 1962an hatan be. Baina Bitorianok *Ipuin-barreka* horregaz, edizino-gaurkotzaile izateaz lehenago, azpi-lokarri estuagoren bat be badau. Izan be, *Orbelaungo azeria* alegi-ipuina «Aita Bitoriano Gandiaga Orbelaungo seme eta adiskide maiteari» eskinia egon ezeze, protagonistak be bere etxeok dira: Anastasi Orbelaungo ugazabandrea, Gernikara jeneroa saltzen astelehenero joaten zana; haren senar Jose, azeriaren joan-etorriak «Mendatako Orbelaunen» hurretik jago-

ten zituana. Eta Bitoriano bera be ipuinean sartuta daukagu: «Ene! Zapatatxu honen polita! Bitorianori bai etorriko jakola ondo –esan eban Anastasik». Bildumako ipuinetan polit eta luzeenetarikoa berau, horraitino. Hortxe dogu eredu bikaina, tradizinoko alegi bat, azeria eta gaztaiena, zelan idazleak bertakotzen, eskuratzen eta horriduten dauen erakusteko.

Harira atzera etorrira, argitaraldiak bata-bestearen atzean izana liburu honek, euskal irakurleak estimazinoa eta jera ona agertu eutsenaren ezaugarri argia da. Zertzelada batez on egingo dot dinodana. Derioko Seminarioan Mikel Zaratek *Bizkaiko Euskal Idazleak* argiratu ebanean 1970ean, liburu honetako ipuin-lora alagalako bat hautu eban ikasleentzako erakusgarri: harako *Ezkontza-hauste bat* izena dauena. Eta beste batzuen artean ipuin horixe ikasi genduan Karmelo Etxenagusia irakasleagaz be, mutil bardingoak ginala, geure eskola-euskerearen hasikinetan, berak atonduriko *Lortegian* jasorik ekazalako. Eta gerotxuago be, Derioko Udako Euskal Ikastaroa bidean hasi zanean, oinarrizko mailetan literatura arloan *Ipuin-barreka* bilduma honetako aleak ikasi eta aztertzen ziran beste batzuenakaz nahaste bizkaierazko literaturaren ederra dastatzeko: *Josepa astronomu* eta *Azeriaren betekadea* ipuinen bersinoak ikasten ziran, Azkueren *Euskalerraren Yakintzako* bersinoakaz konparauta. Eta ikastarorako berenberegi atontzen zan liburu-dendatxuan salgai egoten zan beti liburu horren Arantzazuko edizinoa.

Itu-ituian aparau eban Aita Villasantek bere hitzaurre horretan, inoanean «gure Felix Kirikiño haundiaren bidetik ibiltzen saiatu dalakoan nago». Iturri batzuetan be lokarri hori ezagun da, baina harago joanda, estiloan dau mañariar kazetari handiaren antzik gehien –Zamarriparena be igarten jako, gehitu nei–. Pasadizuak alkarrizketa erara kontetako estiloan agiri dau antz hori: dialogo bidez taiutzen ditu pasadizu batzuk, zeinda lagun zahar bik alkarri kontu-kontetan balihardue lez. Dinogunaren lekuko garbiak dira: *Treanean joan, eta prakak galdu, Bizkarra berotu* edo *Txomin Txikiri barre gitxi!* Liburu honen ostetxuan plazaratu zan estilo beretsuko beste kontu-bilduma bat be –Juan San Martinen *Zirikadak* (1960)–, eta

umorearen aldetik honen antzik be ez dau falta. Kontakizunen gaiak berberak izan ez arren, bitzutakoak dira barregarriak, eta horrezaz aparte kontuak girotu, hornidu eta garatzeko estiloan taiu bera dabe sarri.

Monologo antzera, bere buruagaz balihardu lez eginiko berbetak ugariak ditu testuan atxina joan ahala. Eta ez gitxiago, irakurle-entzuleagaz darabilen barriketa zuzena. Izan be, txitean-pitean joten dau irakurleagana, ha barik alperrik balebil lez, hari itaunen bat egi-teko –itaun erretorikoa, jakina–, eretxiren bat emon edo eskatzeko, esakera zelebreren bategaz, edo azken baten honek adi eutsi degion lumapean darabilen kontagaiari. Ipuinotan idazlea orojakituna da, protagonista diran gizaki eta piztien barruko gogo eta asmoetaraino-koak dakiz, eta irakurleoi garan-garan eta erreparu barik kontetan deuskuz. Ipuinon idazlea kontalari trebea da, jatorriz dala gehituko neuke. Eta horrexetan dau ezagun ganera Felix Bilbaok, Aita Felixek, sermolari bikain sutsuaren ospea ez dauela alperrekoa: sermolari tre-bearen erretorikoa eta trebeziak erakusten ditu idatzi orduan be: batean «entzule» dana bestean «irakurle» dala; batean «entzule mai-teak / maiteok» dana, bestean «irakurleak / irakurleok» dogu. Hori-xe bitzuen arteko alde bakarra.

Ipuin eta alegi zaharretako pertsonaiak sarritan ez ohi dabe izen ezagunik. Euren senidetasuna –gurasoa, aitita edo amama, anaia edo arrebea, semea edo alabea–, lanbide edo ofizioa –ikazkina, errotaria, abadea, etab.– izatearen arabera izentetan dira. Baina Felix Bilbao-renetan ez daukagu halakorik: berberak emon deutse bakotxari ize-na, eta nongo izatea be bai. Berez generikoak ziran ipuin-pertsonaiok lekukotu eta hurrekotu egin deuskuz. Izan be, ipuinai sinesgarritasu-na emoteko zer modu hoberik, girotzea eta bertakotzea baino. Izenak emon orduan be ez dau edozelan jokatu: idatzi eban aldian gure herri txiki euskaldunetan ezagun eta ohiko ziran izenakaz bateatzen ditu pertsonaiok; arabere gehiago, batzuetan susmoa dogu bere herri edo auzoan –edo ingurukoetan– ezaguna eban jenteagandik hartu zituala izenok. Izenetariko batzuk gaur be ohikoak dira, baina beste batzuk, gaur bitxi eta bakan egiten jakuzanak, idazlearen ume- eta gazte-

denporan ezagun eta hurreko egiten ziran izen zehe-zeheak dira. Honakoxe izen-moduakaz haragitu ditu kontu-ipuinotako andrazko eta gizonezko pertsonaiak: ‘Patxo’, ‘Peru’, ‘Errufino’, ‘Erramon’, ‘Praisku’, ‘Anton’, ‘Txomin’ edo ‘Lorentzo’, gizonezkoetan; ‘Mari Kontze’, ‘Erruperta’, ‘Inazi’, ‘Mikaela’, ‘Petra’, ‘Anastasi’, ‘Toribi’, ‘Zezili’ edo ‘Josepa’, andrazkoetan. Eta ezizen dotorez lagunduta batzuetan: ‘Martin Zozo’, ‘Txomin Txiki’, ‘Peru Abarka’ –Mogelen izen berberetako–, ‘Errufino *Pipermin*’ eta beste asko. Ezizen hutsez izen-daturiko pertsonaiak be badira; ‘*Prakazahar*’ eta ‘*Txinpas*’ ijitanuen kasua edo ‘*Triskili*’. Gatza eta piperra ez dau falta idazleak izen bidez ipuinoi girotze literarioa emoteko orduan. Gure Jauna eta San Pedren ganeko ipuinetan, Jesusek San Pedrori ‘Peru’ deitzen deutso behin, euren artean hitano egiten dabela.

Ipuinaren genero zabal ugari horren barruan be danetarikoak dira, ardatz bakarrekoak barik.

Alegi generokoak hainbat dira berrogeta hamabosteko ipuin-txorta horretan, abere, pizti eta hegaztienak barru dirala. Antxinako alegiak, euskeraz be bersino zaharrak dituenak batzuk, hautu dira batzuetan. Asto zaldiz mozorrotuarena, kasurako, *Astoa*, *asto* deritxana; *Mozoluaren ipuina*, Mogelek bere Berba-jardunetan dakarren berbera, gehitu eta apainduta; azeri eta arrain-saltzailearena, zabal dabilen alegia, *Ana Mari Kontzeren arrainak* izenburupean; harripean harrapauriko otsoarena, *Ondo eginaren ordaina* atalburuaz; otsoaren eta artaldearena, *Otsoaren ardi-jateak* izenekoan; txarri eta astoaren alegia, Mogelen Berba-jardunetako berbera, *Bestaldeko lapikoa hobea?* izenburupean; sabelaren eta esku-oinen arteko guduaz diharduan alegiaren bersinoa dogu *Jose Migel maisu* izenekoan; azeria eta otsoaren alegiaren bersinoa, aldiz, *Postura osteko zaratatxuak*.

Idazlearen trebetasuna bersinoren egokitasunean eta elementu barrietan bilatu behar da. Halan, *Ana Mari Kontzeren arrainak* hartu eta alegi berorren beste edozein bersinogaz konparetea nahiko da ohartzeko, idazleak zenbaterainoko originaltasuna eransten deutan: kostako euskal arrain-saltzaile bati jazorikoa dirudi, hain bertokotu

eta ekantzen dau alegiaren ingurune guztia! *Jose Migel maisu* alegia, Mogelek dakarren *Esku, oin eta sabelarena* berbera dogu gaiaren aldetik; baina hemen esku-oinak eta sabela protagonista zuzenak eta mintzodunak diran bitartean, *Ipuin-barrekan* euron jaube dan Jose Migel dogu, lehen morrosko sendokotea izana eta orain agolinean dagoana. Felix idazleak, berari ikustaldia eginaz batera, euren arteko solasaldia gehitzen deutso ipuinari eta bizitzearen akabera tristearen pasadizua be bai. Horretan datza, besteak beste, originaltasuna.

Ipuin unibersal ezagunen bersinoak dira batzuk, Grimm anaien bilduman edo osterantzekoren baten iturria dabena. Halan, *Julitxu eta Libetxu*, *Hänsel und Grettel* ipuin zahar berbera dogu funtsean; *Martin Txilibitu eta Mitxin*, katu botadunaren bersinoa, edo *Kukubel soinularia*, txilibitu xarma-eragingarriarena.

Euskal mitologian zabal dabilzan ipuin banakak be badira. Berbarako, *Josetxu artzaina eta Jigantea*; jentil pastorearen bersino ego-kitua da bere barruan.

Ipuin-pertsonaia ezagun batzuen ingurukoak be badira. Halan, *Martin Sugin*, *Gure Jauna eta San Pedro*, abade kazarien ipuin bat baino gehiago dira –*Don Fakundoren erbia* lekuko–, hiru estudiantena, idazleak *Hiru ikasleen bazkaria* deritxana, eta beste halako batzuk. Gure Jauna eta San Pedoren artekoetan bat baino gehiago dira, eta ezagunena beharbada, neuk be neure txiki-denporan sarri entzuna; harako zaldi-perra bat –*erradurea* esaten genduan guk– bidean topau, San Pedrok alperrarren altzau gura ez, eta Gure Jaunak, hari erakutsi on bat emoteko, altzau, diru apur bategaitik ha saldu eta kereizak erosi zituanekoa; eta egun sargori haretan bidean ito beharrik, San Pedro behin eta barrero makurtuazotearren, Gure Jaunak behin banan behera botaten eutsazan kereiza-garaunak batzen behin eta barrero.

Pasadizu izan barik, jazotako edo jazokizuntzat kontetan diran kontu zelebre barreagarriak be hainbat dira. Bat edo beste aitatzeko, *Anton Zapatariren testamentua*, herriko jenteari behin baino sarriago entzuten jakona; *Bizkarra berotu*, *Prakazaharren bazkaria*, *Josepa astronomu*, *Praisku eta Mari Pepa*, eta halako batzuk.

Pasadizuak edo pasadizutzakoak dira hainbat. Jitanuenak, edo *ijitanu* Felixen berban, bat baino gehiago dira.

Baina aldeia makala, entzuten danetik Aita Felixen lumapetik iragazi ondoren, irakurten danera!

Iturriak arakutzen hastea ez da gure asmoa, baina idazleak berak autor deuskunez, gehien-gehienak arteragoko ipuin-biltzaile batzuekandik hartuak dira –Azkueren *Euskalerrriaren Yakintza*, besteak beste– eta idazleak berak mamindu, hornidu eta borobilduak. Kirikiñoren *Abarrak* bildumako ipuin beretsuak be badira, *Beste munduko gizona*, bat esateko. Baina Felixek beti be bere-bere soinekoz jantzi-ko ditu jatorri bateko zein besteko kontuok.

Herri-ipuinen hornidute- edo apaintze-jardun horretan, besteak beste aitagarria da, guztiai ez bada bai gehienai eransten deutsen sarrerea-edo, ipuina girotzeko ondua, irakurle-entzulearen adi ego-tea, arreta ziurteteaz ganera. Hor askatzen deutso bidea bere irudi-menari, eta baita bere mutikotako baserri-mundutxu horretako jakituria be hor erakusten deusku. *Mozoloaren ipuinaren* sarreran eskola-mutilen txori-kulturearen hasikina garantzen deusku, euren izenak, ohiturak, habiak..., orduko mutikoen olgeta-mundu aberatsa, gaurkoentzat ia ezaguna be ez dana.

Ipuinen akaberak ere jakingarriak dira beste hainbatetan: ipuinari darion edo ateraten deutsan irakatsia edo *onbide* mezua hor agiri dau. Eta horrexetan dabe ipuinok, hatan be, alegien antza, gaiaz ganera.

Zertzelada autobiografikoak be ez dira gitxi kontakizunetan barrena, idazleak ipuinean gurata eta irudimenez mendau dituanak, batzuetan bere senide edo ezagunen bati jazo balitxakoz lez edo berak bizi izan balitu lez bestetzuetan. *Bestaldeko lapikoa hobe?* ipuinaren sarreran dinoana lekuko; edo, «gaztaroan hainbeste ordu gozo igaro eragindako *Txinpas* ijitanua».

Honen moduko tradizinoko ipuinen bildumetan, idazlearen jasa ez da sortzaile izatea, ipuina lehendik sortua dalako; baina ipuina kontraera batez hornidutea –sarrerea, amaierea, zehaztasunak, deskripzioak, pertsonaien izenak eta izakerak eta beste zer asko–, idaz-

leak ipuinok girotu eta tokikotzeko egiten dauen ahalegina. Horretan ez dauka meritu gitxi gure idazleak. Pertsonaien izenetan eta jazoe-ra-lekuetan agiri dau ondoen ahalegin hori.

Herri-ipuinetan pertsonaiak ez dabe sarri euren izenik izaten. Gure idazlearentzat, Urlia, Sandia eta Berendia barik, herritarrentzat ezagunak diran izenakaz bataiatzen ditu protagonistak, batean ‘Martin’, bestean ‘Mari Pepa’. Izenak ezeze, herrian –edo beste herriren baten– ezagunak izan diran pertsonaiak be sartzen ditu ipuinetan. *Txinpas ijitanuaren* kontuan agiri dan ‘Don Enrike’ abadeak berebrehala gogorarazoten deusku Morgan gure mutiko-denporan eta lehenagotik luzaro parroko izan zan Don Enrike Pujana abade maigarria.

Leku-izen batzuk, eta pertsona-izen batzuk be, asmauak barik, jaioteritik –batzuetan beste herriren batetik– hartuak edo egokituak dira. Halan izentetan da Morgako Erroteta auzoa pertsonaia biren bidez, batean ‘Josepa Errotetako’ eta bestean ‘Peru Errotetako’; Erroteta auzoa izentetan da *Hil bat zaintzen* ipuinean, Andramaritik Gerekizera bidean, Morgakoeneren –*Morrokone* igarota– hurrengo datorrena; ipuin berean ‘Morrokoneko Peru’ lez be agertzen da. *Don Paulinoren prefazioan* ‘Patxo Zuetzari’, idazlearen auzotxu berekoari, *Lukihandik* bidera urteten deutso. *Hiru ikasleen bazkaria* prestatoko Paulino estudianteak bildotsa erosteko tratua egin eban ‘Txomin Bekortagaz’; Bekoerrota (*Bekorta*) Ganbeko baserria da. *Kukubel soinularia*, Kukubeltxu, «Bizkargi aldeko larretan» dabil txilibitua jotzen. Morga partetik izango zan kontizu, idazleak ez deusku gehiago argitzen eta, Igertu aldean edo Okoriko parteko Suberte edo Patroiene inguruan izan ete zan...

Hizkera-estiloaz esan leitekena be, Aita Villasantek esanikoa-ren ildotik doa. Herri-kontu, ipuin eta pasadizuai jagoken hizkera bera darie alde guztietatik. Ez neuke horren seguru esango, idazleak bere jaioterriko herbakera eta berbeta-moduai oratzen deusela orpoz orpo. Jaioterrikoa baino hizkera zabalagoa darabil, lexikoz, esakeraz eta osterantzeko baliabidez. Aditzen erabileran zer esanik be ez: *banakusak*, *zakustaz*, eta antzeko adizki zahar kutsukoak

erabilten be badaki batzuetan. Bizkaieraren barrutiko baliapideak dira berez ia danak, bai seguru, baina handiko eta hortikoak jatorriz. Liburua ondu ebanerako euskerazko liburu batzuk irakurria be bazan gure Felix, eta beste leku askotako berbakerak entzuna be bai, fraile-komentuetan ohi danez. Azkue, Kirikiño eta Domingo Agirrerren iturrietatik edanda egongo zan ordurako. Edozelan be, hizkuntza altxor aberatsaz hornidua egoan ordurako. Baina horrek ez dau kentzen, dialogoetan, monologoetan, gogoetetan edo egiten dituan konparantzetan darabilzan esakera eta irudi asko bere-bereak edo bere ingurukoak ez izatea; berak ume eta mutikotan entzun, bizi eta beragandu eban hurreko berbeta horretakoak, esan gura da.

Aitatzekoak dira darabilzan konparazino-irudi batzuk. Argalargal egoan behi zaharragaitik dinosku, «zotz bat lez egoala», kasurako; «gatzik euki ez zeozer kontetako», etorria eta modua falta; «kaputxino batek baino be bizar handiagoa»; edo, «tximinoi bat bera baino be motzagoa»; edota, «tximisteak berak baino be arinago», dino.

Edota lokuzio dotoreak; halantxe: «entzun gura euki entzuleak», esaterako. Bai, halantxe dinosku soldadu egoniko anaiearen pasadizuaren ipuinean: «Irakurleak jaukaadaz entzun gura oraingoan». Izan be berbaz balihardu lez eta aurrean jentea entzuten baleuka lez idazten deusku Aita Felixek, berak altuan esan eta aurrean entzuleak adur-bitsetan adi-adi balitu lez.

Amaitzeko zirikada bat: batek baino gehiagok eta behin baino sarriago tentatu izan dau Felix Bilbao, ea zergaitik euskeraz gehiago idazten ez dauen. Geu be behin baino sarriago hurreratu gatxakoz, ea idatzita ezer eukanentz argitaratzeko modukurik. Baina bera beti ikusi dogu betuxoen antzera, itaun horreetara lar hurreratu gura ezik. Holako arloak hartzeko sekula be ez da belu izaten, eta gogo barriak hartzeko ez da momenturik txarrena *Ipuin-barreka* barritu hau plazaratzera goazen unea. Oraindino, Aita Felix, sasoi betean zakusguz eta gure euskereari eta morgarren ohoreari ez zeunskio ohore makala egingo horretan ekingo bazeuntsa, batez be ikusirik, mundu guz-

tiak deritxan moduan, ze hizkera herri-herriko eta gatz-piperrez betea darion zure lumeari eta ze irudimen aberatsa erakutsi dozun herri-tradizinoi ipuinoi bizi barria emoterakoan.

Adolfo Arejita
Bilbon, 2009ko maiatzean

IPUIN-BARREKA

BERBATXU BI

Irakurle, *Ipuin-barreka* izenaz bateatu dot neure liburutxu hau, eta nahiko izen polit egokia jarri deutsadalakoan nago.

Jose Migel-eta, Peru-eta ezagutu daizuzanean, ez dinotsut nik erruki eta maitezko negar-arpulu batzuk urtengo ez deutsuzanik. Zeure bihotzak esango hori.

Baina, nire ustez, barre-algarea ugariago izango dozu negar-arpulua baino, ipuinok irakurtean. Mutil onak dozuz Txomin *Txiki*-eta, Patxo-eta zu lako lagun bateri une on zorionsuak igaro eragin kontuan!

Ipuin-barreka, beraz, irakurle. Eta ez ete nabil, ba, zuzen?

Jakina. Zuk, beharbada, barrerik lar be egiten dala uste izango dozu. Eta, egia esateko, neu be horretan nago.

Baina zuk dinozuzan barreok, ete dira, gero, benetakoak, barrutikoak; hor, kolkoaren maminean holako kili-kili gozatsu hori eragiten dakienak? Ez ete dira, gero, noizbehinka, harako zaldi bihurtu nahi izan eban astotxu haren arrantzen antzekoak? Postura egingo neuskizu baietz.

Ipuin-barreka honek, ostera, beste era batera barre eragingo deutsu, irakurle. Umeen antzera, haor: gozo-gozoro, garbi-garbian...

Eta etorri be, gero, ez ete letorkigu hori guztiori ondo bai ondo, noizik behinera ume bihurtzera?

Ganera, barre gozatsuan jardunaz batera, euskerea be *barreka* ikusiko dozu, irakurle, nire liburutxu honetan.

Egia esateko, ipuinotan darabildan euskerea ez da bape ikasia: herrikoa da, errezerreza. Baina halan dala be, irakurteak ez dot uste kalterik egingo deutsunik; mesede bai, ziur.

Dana dala, euskeraz eginiko barrearen gozoa zein gozoa dan jakinazoko deutsu. Eta gitxi deritxazu, beraz? Oi! Euskeraz eginiko barrea!... Bazenki jakin zeinen gozoa dan! Esango deustazu, irakurle.

Eta gaurkoz, besterik ez. Edo hobeto esateko, bai: on degizula nire irudimenak horniduriko ipuinok. Zeuretzat idatzi dodaz, maitekiro, joranez. Batzuk neure buruak aterata; gehienak, gaiez, hor-handik hartuta. Irakurri egizuz astialdietan.

Eta... Txomin *Txikiren*-eta, Patxoren-eta izenean, itxaroten daukazuzala.

Agur bihotzez.

I

TRENEAN JOAN, ETA PRAKAK GALDU*

—Txo?

—Zer dok?

—Hondino ez dok entzun?

—Zer entzun, edo?

—Jose Mariri lehengo egunean gertaturikoa.

—Jose Mari *Okozpe*, lehengoan ezkondu zoanari?

—Hareri berarixe!

—Nik neuk ez jakiat ezer.

—Bixentak-eta ez juek ezer aitatu, ala?

—Nik entzunikorik behintzat...

—Ez dok, ba, isil-misilean erabiltekoa...

—Jakingarria orduan?

—Jakingarria, eta barregarria, mutil; prakak galduta etorri ei zotan bere ezialditik.

—Ez dok izango?!

—Halantxe izan behar jok. Trenean etorrela galdu ei joazan.

—Handiagorik be esango dok hik!...

—Guzurra deritxak, ala?

* [Jazorikoa.]

—Badakik, ba, prakak galtzea be, horraitino!

—Entzun eidak, eta gero esango deustak egia dinoadanentz. Badakik, eztok?, lehengo astelehenean Mari Kontzegaz ezkondu zoana?

—Bai, ikusi naioazan eleizatik urtekeran.

—Ba, martitzen goizean urten juen euren eztiardia egitera. Madrilera-edo joan zoazan. Eztiardi ona izan juen, antza. Behintzat Mari Kontze eta Jose Mari pozik jetoazan etxerantza. Trenez, seguru.

—Eta?

—Orain hasten dozak, ba, komediak. Jose Mari urun-zorro baten ondoan jesarrira jetorran. Eta urunak, badakik, ba, trenaren jantzeaz praka guztiak zuri-zuririk itxi jeutsaazan. Jose Mari, jakina, ez zoan praka lohiakaz bere herrira helduko. Zer egin joan? Komunera joan zoan, prakak erantzi joazan, eta...

—Uruna kendukeran, tarratadaren bat egin, jantzi ezin?

—Ez, mutil, ez. Hori baino jakingarriagorik. Atera joazan prakok leihotik kanpora; hasi zoan eurak astintzen, eta, sinistuko deustak?, gitxien uste joanean ez jakozak, ba, zugatz-adar batetik dingilizka geratzen prakok?

—Ez dok izango?!

—Dinoadanez, mutil, dinoadanez. Eta hondino baltzena entzuteko hago...

—Baltzagorik hondino? Baleitekek, ala?

—Heuk esango dok. Ordu lauren bat komunean bajeroaan eta, badakik, ba, andrea larri ezer txarrik gertatu jakonentz. Joan jakonan, eta ez jok, ba, bere Jose Mari praka barik aurkitzen? Konorte barik jausi ez zoanean!... Matraila gorri-gorritz, egin joan jirabira bat trenean zehar gabardinaren bat bilatu arte. Eroan jeutsaan Jose Mariri, eta gure ezkonbarriok prest jaukaaguz hurrengo estazinoan jatsi eta praka barri batzuk nonondik zuzentzeko. Heldu zoazan estazinora, hasi zoazan trenetik jasten, Mari Kontze aurretik zala, badaezpadan be. Baina eskilaratik jatsikeran, gabardineak hegal bat hartuta, ez jakuk, ba, Jose Mari dingilizka geratzen?...



—Ene mutilak! *Bisinoak* ikusten geratuko zolan estazinoko gizaldrea!

—Ez zolan gitxiagorako be. Azken makala ezkonbarriok euren eztialdiari emon jeutsicana! Kenduko jakeazan zati baterako ibilgurak!

—Baietz uste joat.

—Eta badakik?

—Zer?

—Hurrengo ibiltaldirako badaezpadan be praka pare bi erango jozaala esan ei jok Jose Marik...

* * *

Barre-algaraka amaitu eben Peruk eta Juanitok iluntze hare-tako autu-mautua.

Alkarren zeresan barregarriok apur bat jantzi eta harrotu ebe-zala? Apur bat, ez gauza handirik. Hau guztiau antxina ez dala, Euskal Herrian jazorikoa da eta.

Nongo parajeen badaezpadan be ez noa esatera. Baten bateri minen bat emoteko be!...

II

ASTOA, ASTO

Cure aitita zanak ipuinik asko ekian, ba. Inoiz be ez dodaz ahaztuko negu-gau haretan, gaztainaz beteriko tanbolinari eraginiz, kontetan euskuzan ipuin hareek. Ezta! Abereenak izaten jakuzan atseginen.

Astoarena kontau euskunean, barretan egin genduan, barretan...!

* * *

Arkadia Zoriontsua eritxan lurraldean asto bat ei egoan. Hantkaluzea ei zan asto ha. Gorputzez, barriz, ederra eta mardo-mardoa. Txiki deitzen ei eutsien.

Inguruetako astoak euren lagunaren edertasunaz konturatu ziran; eta alkarren artean sarriri eukiten ebezan haonelako autu-mautuak:

—Ederra jagok, gero, egon be, astokote hori! Guk baino pensu hobia jaten jok, antza...

Txikik berak be ez uste, gero, nor zan ez ekianik.

Behin, solo-hegal baten egoala, zaldi aldra bat ikusi eban uregorrizko aparejuakaz-eta, harro-harro jantzita, bere ondotik joaten.

—«Arraioa! —hasi jakon esaten kolkoari—. Zaldi horreek hor urrezko apainduriz jantzita, hara eta hona paseoan, pepe eginda.

Eta ni, asto jaio nazalako, eurak baino gitxiago? Ez horixe! Ez gara guztiok Jainkoak eginak, ala?».

Eta lauko baten joan zan erosta hau jaubeari esatera.

Txikiren burutazinoak barre eragin eutsien jaubeari.

—Baina gizajoorrek —erantzun eutsan—, hik zer egin behar dok zaldien artean, munduko urre guztiaz gorputza josi arren be? Ez dakik Jaungoikoak diferenteak egin gaiozaana? Batzuk egin gaiozak gizon; beste batzuk abere. Eta abereen artean batzuk txakur, beste batzuk asto, eta horko horreek zaldi. Asto egin hauen ezker, ez deritxak hobe asto izateaz pozik biziteari?

—Ez deritxat, ez. Asto naz; baina asto artean itxura on eta jasekoa. Apainduri apur bategaz, banintzateke edozein zaldiren beste —erantzun eutsan Txikik.

—Zer egingo deuat, ba? Zelako apainduri edo zer gura dok orduan?

—Lehenen-lehenengo belarritzarrok txikiagotu behar deustazuz. Gero gorputz guztia garbitu, ulea orraztu, urrezko apareju dizdiratsuak leporatu..., eta ikusiko dozu zaldien artean asto nazanentz.



Inguruetako baserritarrak Txikiren zaldi-nahiok jakin ebezean, ez eben barrerik gitxi egin. Eta Txiki zaldi egingo zaneke egunaren begira egozan danak.

Handik laster, txukun-txukun ipinita, zaldi artera eroan eban Txiki jaubeak. Eta sinistu eidazue: zaldi guztien errege irudian eta halakotzat eukien zaldiak eurak be, hain egoan dotore eta agurgarri gure Txiki. Bibotedun gizon bat ez formalagorik. Ez horixe!

Baetozan herri-jaiak. Festaketa artean ezin falta zaldi-karrerea. Txikik be karreran urten beharko eban, seguru. Hori zan, ba, jentek nahi ebana: gure Txiki lauhankan ikusi.

Heldu zan, horraitino, karrera-eguna. Goizeko hamaikak jausi aginean erlojuan. Joko-lekuan hamasei zaldi dakuskuz erreskadan, zein baino zein aulki, ugal, balazta eta hanka-oihal dotorea-goakaz apainduta. Txiki be han dago, burua tente-tente eta karre-rea irabazteko prest.

Herritarrak ez dakie oraindino zein dan Txiki. Baina bere alde dagoz danak, txalotzeko prest.

Oraintxe hamaikak puntu-puntuan. Zaldizainak zuhur dagoz alkateak seinalea noiz emongo. Honetan badoa zeruetarantza bolandera bat: pla!, pla-pla!

Eta hango zaratak eta hango eztarria apurtu beharrak!

—Arre!

—Emon, Pinto!

—Aurrera, Txapar!

—Jo, Gorri!...

Eta Txiki? Bai zintzo jokutzen deuskula karreran. Laugarren urten dau lehenengo joan-etorrian. Eta bigarrenari be badaragoioe hamaseiak gogotsu. Ia hankarik be ez jakie ikusten eta! Begiratu, begiratu haren abiadea! Arre, Txiki!...

Baina..., zer? Zer dinostazu, irakurle, jazo dala hango bazter haretan? Txiki gelditu egin dala? Eta bai, errazioa daukazu. Gure Txiki ez joaku, ba, arrantzaka eta eperturtika han hegalean dagozan astoakana? Haren garagarrak egin beharra! Haren aparejuak

apurtu eta hautsezko hodei baltz-lodiak zerurantz bialdu beharra! Zoratu egin ete joko, gero?!

Ai, Txiki gizajoa! Astoakana jo! Ahaztu egin dozu, ahaztu, antza, zure zaldi-izatea...

Konturatu zaneko, berandu izan eban, karrera amaitzera joian eta.

Eta, jente guztiaren irribarreak leporatuta, oso lotsaturik, lehengo kortara joan behar izan eban gaixoak.

* * *

Bai, ba! Astoa zaldiz jantzi arren be, beti asto.
Ikasi daigun lezinoa!

III

ASTO PEKATARIA

Adar-jotzaile asko daukaguz, gero, munduan!...

Orduantxe urten kartzelatik, eta gure Juanito eta Martin *Zozo* barriri be okerrekoren bat egiteko prest daukaguz. Peru *Abarkari* astoa ostu gura deutsie.

Ederra erosi eban, erosi be eta.

* * *

—Juanito, baina asto-ostuketan atrapetan bagaiuezak, zer?

—Kartzelara barriri, lepokada bat hartu eta ostean. Baina ez hadi larritu; arrisku asko barik ostuko joagu asto hori. Hik hartu astoa, eta hor goiko etxe zahar horretan gordeko dok. Eta neu geratuko nok kortan asto orde. Jaubea datorrenean, jakingo joat zer esan, sobran be!...

—Gaiozaan, ba. Baina Peruk bizkarra berotzen badeua, hor konpon! Heuk erantzun beharko dok.

—Burruratu be holakorik! Tenplau-tenplau, mutil! Hator, hator!, astoa geurea joagu eta.

Peru *Abarkaren* etxe ondora heldu ziranean, gure mutilok astoa arrantzaka aurkitu eben.

—Entzuten dok, Martin? Usaindu gaiozak, antza, astoak. Gu noiz etorriko egongo dok, beharbada, gizajoa!

Eta barre gustura eginaz, laster doguz gazteok Peru *Abarka*-ren kortan. Martin, asto ganean jarrita, txiki-txaka, txiki-txaka, joan zan lehen esaniko etxe zaharreraino. Juanito, ardura gitxigaz, kortan bertan geratu jaku apareju eta guzti. Tenplau geratu be! Arrantza egiten baleki jakin, egingo leuke, ziur, edozein astok bestean.

Baina hori barik be etorriko jako Peru *Abarka* pentsua emotera. Pentsua, gero! Juanitok berak emongo deutso Peruri galantza, berak!

Hurrengo goizean Peru gizajoa ikarearen ikaraz hil ez jakunean! Ez eban, ba, aurkitu bere astoa gizon bihurtuta?

Baina laster baretu eban Juanitok:

—Ez dozu, Peru, zertan ikaraturik. Pekatu handi bat egin neban eta, asto-itxurea emon eustan Jaunak zigortzat. Zigor-denporea gaeon amaitu dodan ezkerero, hara hemen, nakutsun moduan. Mesedetxu bat eskatuko neuskizu nik orain: jantzi batzuk emon deidazuzan.


Juanito halan ikusteak erruki handia emon eutsan Peru *Abarkari*. Eta jantziak ezeze, armozu eder bat be emon eutsan gaixoarri.

—Peru, behin honezkero hiru-lau ogerleko be ez litxakidaz txarto etorriko, ba. Mundu horretara ezer barik joatea be!...

Eta Peruk —ona ete zan, gero!— hori be emon.

Gazte lotsagaldukook polito jo eutsien adarra egun haretan Peru *Abarkari*; eta adar-jote hori ez zan amaitu, harik eta astoa saldu eta euren boltsikoak bero-bero aurkitu arte. Bi milaren bat pezeta-edo hartu ebelakoan nago.

Hurrengo egun baten Peru *Abarka*, asto barri bat erosi behar ebala-ta, feriara joan zan. Hara eta hona ebilen gure Peru, asto on bat non topauko. Halako baten hango hegal haretan asto bat erreparau eban. Ezaguna egiten jakon asto haxe. Berak lehen erosita-koa ete zan? Begiratu aurretik, ikusi atzetik, behetik eta goitik, eta..., bai!, haxe bera zan, izan be.



—«Arraiorrek, egin dok beste pekatoren bat, eztok? Ez nok, behintzat oraingoan engainauko. Nik barrero erosi orduko, bertan hil beharko dok».

Eta gure Peru *Abarka* mando zahar bat hartuta joan zan egun haretan etxera.

Juanitok eta Martin *Zozok*, hau guztiau jakin ebenean, izan eben zati baterako barrea eta esanbearra.

Nork ez, gero, holako loteriarik izan ezkerro?

IV

ANTON ZAPATARIREN TESTAMENTUA

Anton *Zapatari* lako maltzurrik asko ezagutuko dozuez beharbada. Baina handiagorik, kostauko jatzue. Bai horixe!

Eta gizajoak ez uste, gero, errazoirik ez eukanik. Bere ogibideaz biziteko nahikorik irabazi ezin dauenari, ez ete leikio, gero, parkatu tranpatxu bat edo beste? Nik baietz esango neuke.

Ganera Anton *Zapatari*ren zerari tranpa-tranpea deitzea be ez dot uste ondo legokenik; azkarra izatea deituko deusagu. Eta azkarra izan ahal dana, izan da izan.

Gure Anton *Zapatari* bai behintzat.

* * *

Gizona hil jakola-ta, erostaka eta kezka etorri jakon behin andra bat barrua asaskau gurarik. Ez zan, baina, gizonaren heriotzea emakume hareri min emoten eutsana. Testamentutzat ezer emon barik itxi ebala-ta, honek emoten eutsan min bizi-bizia. Zelan irabaziko eban orain eguneroko ogia? Zelan bizimodua aterra? Lau txiki barik egoan eta.

—Emakume, hori baino besterik ez bada, ez zaitez larritu —esan eutsan nasai-nasai gure Antonek—. Hondino etxean dozu senarra, ezta?

—Bai, Anton. Hondino ohean dago. Bihar eroango dabe kanposantura.

—Ohean, orduan? Hori behar dogu, ba, etorri jatan asmakizun hau beteteko.

—Asmakizuna? Zein, hatan be?

—Polita, Zezili, polita, deabruren batek galarazoten ez badeust. Hara: zuk senarraren heriotzea isilean eukiko dozu. Bien bitartean, ni zurera joan eta senarraren ohean, ondo-ondo estalduta, sartuko niaitzu. Gela erdi ilunean dagoala, notarioari deituko deutsagu, eta lar ondo be jakingo dot nik zer erantzun. Zer deritxazu, Zezili?

—Banekian nik, Anton, banekian buruargia zinana. Ezin hobe deritxat zure asmakizunari.

Eta gure Zezili gizajea, senarra berbiztu balitxako be, ez dot uste pozago jarriko zanik. Anton zan mutila, Anton!

Ete zan hau, gero? Baina ez Zezilik uste eban bestean ona. Azeritxuagoa zan, azeritxuagoa. Goiz haretan Zezili zala-ta, karterari agindu eutsan betekadea! Zati baterako izan behar eban dirua, gauzeak ondo urteten baeutsan behintzat.

Zezilirenera helduta, bien artean ohe azpian ipini eben senarraren gorpua. Eta Anton *Zapatari* jarri zan bere lekuan, ondo-ondo estalduta. Zezilik, notarioari deituta, senarraren gelara eron eban:

—Gizajoa, oso txarto daukat. Hainbat arinen entzun beharko deutsazu testamentua.

—Ai ene!, ai!... —egiten eban gure gaixoak ohetik; eta notarioak gaixoa hain txarto ikusita, orduantxe bertan eskatu eutsan testamentua.

Zezili egoan pozik, Zezili! Adurra be erion eta. Anton *Zapatari*ri be ez uste ezetzik. Unea eukan makala diru apur bat boltsilloratzeko.

Arnasestuz eta ozta-oztaka —zitala, barreari eutsi ezinik egoan, baina— hasi jakon notarioari bere azken-nahia agertzen:

—Hara, hor auzoan bizi jat zapatari txiro bat. Gizajoak zeozeren beharrizana eukiko dau eta, ehun mila pezeta ixten deutsadaz berari. Beste euki guztia neure andreak hartu dagiala.

Notarioak, Anton *Zapatari*ren azerikeriarik susmau be egin barik, behingo baten idatzi ebazan bere paperak. Eta Zeziliri emon utsazan. Ona jarri zan gure andra hau Antonen makurkeria honegaz! Ez eban uste, ba, senarraren ondasun guztiak bereak izango ebazala? Eta erdiak baino gehiago Antonek hartu!

—Anton, Anton maltzurra! —esan utsan oso atsekabetuta—. Zer egin deustak? Senarraren diru eta ondasun guztia lortuko deustaala-ta, erdia baino gehiago heuk hartu? Maltzur-maltzurri...!



Gure Anton *Zapatarik*, oster, emakumea zer dan ondo eza-gutu, eta hiru-lau berba gozo eta bigunkeriagaz laster baketu eban Zezili gaixoa. Baketu ezeze, poz-adurretan ipini be bai, honako bertso honeek kantau eutsazanean:

*Zezili bihotzeko,
ez zaitez samindu,
dirua daukagu eta,
gaitezan ezkondu.*

Ezkondu ete ziran, beraz? Nik ez dakit. Baina Anton *Zapata-ri*ren testamentuari eskerrak, batak eta besteak bizimodu hobea izan ebela, hori badakit, bai.

V

TXOMIN *TXIK/RI* BARRE GITXI!

Aspaldion ez dot ikusi Txomin *Txiki*, baina ehuneko bat emongo neuke beragaz autu-mautu bat egitearren. Bai horixe! Pelota- edo futbol-partidu bat ikusgarria dala? Askozaz be gehiago jatzu, irakurle, hirurogei urteko aguretxu hau. Baserritar jazkerea, pipatxua ahoan, txurruplanplina tabernan, koplatxua sarritan..., eta begi-kinua noiznahian... Ez dogu makala gure Txomin *Txiki*!

Eta egun haretan egin eban trasteria bazenki jakin, orduan konturatuko zinateke egia dinodanentz... Bai horixe! Eta, jakina, maiteago be izango zeunke gure aguretxu hau.

* * *

Ikazkina izana da Txomin *Txiki*. Mardo eta sendoa, inor izatekotan. Baina urteak aurrera eta, ikazkin-ogibideari agur eginda, oraingo honetan ikatz-zakuak herriratzea zan bere ogibidea.

Hamaika ordu igarora naz ni solo ondoan Txomin *Txikigaz* berbetan! Eta hamaika dzangada gozo aterakoa Txomin nire zatoari!

Halanda be, tabernako zaragiak ez uste gitxiago ezagutzen ebenik. Txomin *Txiki* Isidro errotaria bera baino be lagunago eben.

Arratsalde haretan be Txomin *Txiki* ezin falta tabernan. Bai zera falta! Inoizkorik beroen ekarren sakela, ikatza saltzetik etorren eta.

—Zu, ea txikitotxu bat.

Eta gure Txomin *Txiki* bat barik, hiru eta lau be klin-klan, klin-klan, behingoan garbitzen ebazan. Eta neskatilaren bateri koplatxu batzuk bota be bardin, gero! Kontuz Txominegaz!

Tabernatik urtenda, asto ganean etxera bidea hartzeko egoa-la, deitu eutsan gizon batek. Zertako, hatan be? A, bai! Musean jokatu behar ei eben.

—Ondo jagok; baina heuk pagau beharko deustak ardaoa, gero! —esan eutsan Txomin *Txiki*.

—Konforme! Baina karteran daroan diru hori jokatzekotan —erantzun eutsan besteak.

—Hori baino ez badok, atera eizak kartak —ganeratu eutsan Txomin *Txiki*, txurrut gozo bat botaten ebal.

Eta hasi ziran musean gure gizonok. Txominek enbidoak eta hordagoak ugari erabilzan; eta irabazi egingo ebalakoak noizik behinean kolko barruan kili-kili eragiten eutsan.

Baina, bai zera! Ez eban, ba, galdu? Galdu gizajoak! Demoinoa bera izan eban joko-lagun eta!... Arraioak halakoak txakur txiki barik itxi eban gure Txomin *Txiki*. Eta zegaz biziko zan orain? Nondik batez be lortuko ardao-dzangada gozoa?... Gizajoa! Gogamenok kolkoan erabilzala, triste-tristerik joian bere astotxuaren ganean etxerantza.

Beheko erre kara heldu zanean, gizon bi aurkitu ebazan alkarriketan. Gure Jauna eta San Pedro ziran.

—Aguretxu ona, asto horren ganean erreka hau pasetan lagunduko zeunskigu? Nahi dozun saria emongo deutsugu.

—Bai pozik be —erantzun eutsen Txominek.

Eta banan-banan, ahalik zintzoen besteraldetu ebazan.

—Zein sari gura dozu, gizontxu? —itandu eutsien gure Jaunak eta San Pedrok.

—Zein sari? Hara, Jauna...

Eta Txomin *Txikik*, errespetorik handienaz eta erdi negarrez, azaldu eutsen tabernan jazoriko guztia.

—Jauna —esan eutsan azkenean Txominek Jesukristori—, nik nahi dodana hauxe da: demonino hori zaku horretan sartzea, merezidu be badau eta.

—Hori baino ez bada, oraintxe bertan joan eta sartu zeinke —erantzun eutsan gure Jaunak erdi barreka.

Eta ez uste Txomin *Txiki* loak hartu ebanik. Arre, arre, astoa! Eta tiki-taka, tiki-taka, laster egoan tabernako atेतan. Demonino-demonino harek hartu behar eban, bai horixe!, sekulako astinaldia.

Deitu eutsan ahots gogorrez, eta zakua edegiaz, haolan esan eutsan:

—Txotxo, ea hona barrura!

Eta demoninoa, eskuan eukan ardao-ontzia itxita, burua makur-makur eginik, sartu egin behar, Jaungoikoaren agindua zan eta.

Joko-laguna zorro barruan ikusi ebanean, nork esan Txomin *Txikiren* poz-algarea?



—Neuk esango deuat orain nor doan Txomin *Txiki*. Musean irabazi deustak, baina neuk be zeozetara irabaziko deuat, bai, arraioori!

Eta ikatz-zorro bat lez astoari leporatuta, errementariarenera eroan eban poz- adurretan.

—Lagun —esan eutsan Txominek errementariari—, hemen dakarrat behartxu bat. Zorro hau gogortxuegi jagok eta min emoten jeutsak astoari. Ea hiru-lau mailukada emoten deutsaazan.

—Bai laster be, hori baino ez bada!

Eta errementaria hasi zan kiski eta kaska, jo hemen eta jo han. Baina zorro barrutik ez da, ba, baten bat txilioka hasten?

—Ai, ai, ai ene!!!...

—Emoiok, emoiok sendo! Demonino-demonino horrek merezidu be bajok eta.

—Ai, Txomin! Ai, ai, ai!... Erruki naik, mesedez eskatzen deuat... Ai, ai, ai!

—Eta tabernan irabaziko dirua? Emongo deustak?

—Baita beste edozer be, bizirik ixten banok.

Eta Txomin *Txikik*, errementariari kinu zital bat eginda, atera eban gure demoninoa zorrotik. Tabernan irabaziko dirua ez bakarrik, beste zorro bete urre be ekarri behar izan eutsan.

Eta gizajoa inpernuko beste lagunakanaino bizirik heldu zanean, pozik!

Gure Txomin *Txiki*, ostera, ez dot uste inguruetakoko baserritarrak arratsalde haretan baino pozagorik inoiz ikusi ebenik. Bertso-kantari eta guzti heldu zan etxera zitala halakoa.

Eta heldu be, gero, nor heldu ez zorro bat urregaz?

VI

ANA MARI KONTZEREN ARRAINAK

—*Sardina freskueee!... Goizeon ateratakueee!... Gozo-gozue dago! Ea, andra, dozenatxu bat...*

Eta gure Ana Mari Kontzek ez eukan bakerik, harik eta otzarakada guztia saldu arte. Hamaika bider jo ebazan berak, otzaratxua buruan erabilela, herri haretako etxe-ateak. Eta hamaikatu diru boltsilloratu be bai joan-etorri haretan! Irabazia eukan makala!

* * *

Nik dinodan goizean be, baerorian gure sardin-saltzaileak kilikilika itxaropen bat barruan. Bai horixe! Arrain hareekaz ehunekotxu bat egingo ez eban, ba? Baita bi be, beste lagunak baino arinago herrira heltzen bazan.

Eta gogotik egingo zenduen barre gure Ana Mari Kontzeren arrapaladak ikusi bazenduez. Andrearen itxurea!

Baina, zuek ez arren, izan eban gizajeak nork adarra jo. Azeri bat ebilen inguru haretatik. Eta sardinerea bere otzaratxuagaz aldasgoran ikusi ebanean, zer egin ebala uste dozue azeriak hala-koak? Baekian bere narrua oso estimadua zana. Eta sardin-saltzaileari be atsegin izango jakola-ta, plaust!, bide ondoan ber-

tan luze etxun zan, hilda balego lez. Ez da gatx igarten azeriak nahi ebana...

Ana Mari Kontzeri, lehendik be gitxi etorren eta, pozaren pozez bihotza lehertu ez jakonean! Azeri-narru haren ederra! Hamar ogerleko gitxienez hartuko ebazan alkateari saltzen baeutsan. Eta drapa!, oratu buztanetik eta otzararatu eban azeria. Kantuka eta guzti heldu zan goiz haretan Ana Mari Kontze herri-
ra.

Bien bitartean azeriak zer? Sardina guztiak jan! Ondorengo *erregalutxua* bertan itxi; eta zapa!, isil-isilean saltau eta sasiarte baten ezkutau zan.



Inguru haretan ebilen beste otso batek be hartu eban, antza, zeozeren usaina. Eta azeria txilborra bete-beterik ikusi ebanean, beragana joanda, zelan bete eban itandu eutsan.

Azeriak –zitala ete zan, gero!– haolan erantzun eutsan:

—Txilborra zelan bete joadan? Errez, mutil, errez. Egunero etorten dok bide honetatik arrain-saltzaile bat otzara bategaz. Nik zer egin joat? Luze jarri nok bide ondoan. Arrain-saltzaileak, igarokeran ikusi egin naiok, eta hilda nengokela-ta, narrua behintzat balio handikoa neukala-ta, otzaran sartu eta herrirantza eroan naiok. Nik, bien bitartean, bildur handi barik, ekinahalean arrain guztiak janda, hanka egin jeutsaat. Zati baterako banaiagok.

—Txotxo, azkarra haz, izan be. Nik egingo ete neuke beste horrenbeste?

—Egingo ez dok, ba? Bai errez be. Etxun hadi hor nasai-nasai, hilda bahengo lez. Laster etorriko dok arrain-saltzaile hori. Ikusiko hau, eta, ni goizean lez, otzararatuko hau.

Gure azeria, otsoa lurrean etxun zanean, honek ez ekiala, hurhurreko sasiarte baten ezkutau zan. Eta barreari eutsi ezinik egoan zitala halakoa, otso tontokiloari zer jazoko ete jakon begira. Laster etorriko zan etxerantza Ana Mari Kontze.

Etorri be, baetorren, ba. Jesus, Maria eta Jose! Harek ekarren sua eta baten bat bere atzamar artean zatitu beharra! Azeri barrabana atrapetan baeban atrapau!... Jakingo eban, ba, zati baterako nor zan Ana Mari Kontze.

Azeria, edo azeri uste izaneko otsoa, barriro be bide ondoan ikusi ebanean, amorruaren amorruz bitsa erion ahotik gure sardin-saltzaileari.

—Tripandi lotsagaldukoori! Hondino be beste azerikeriaren bat egin gurarik? Denganinoorrek, ez deustak barre gehiago egingo, ez!

Eta, hartu makila handi bat eta, siski eta saska, jo eta ke, buruko garunak atera arte ekin eutsan emoten.

—Ala! Ikasi dagian! Gehiago, behintzat, ez deustak adarrik joko.

Eta, otsoa zanik be konturatu barik, azeri lapurra hil ebalakoan, diru barik baina, halanda be, nahiko pozik jarraitu eutsan Ana Mari Kontzek lehengo bideari.

Gure azeria sasiartetik danaren adi egoan, barrearen barrez ia arrainak urteten eutsiela. Ana Mari Kontze aldendu zanean, etxun tenplau-tenplau eta loari emon eutsan, bitartean arrainak eihoten ebazala.

Egun haretan baino lo hoberik ez ei eban sekula egin. Jakina, ba!

VII

MOZOLOAREN IPUINA

Juanito baino txorizaleagorik ez dot nik inoiz ezagutu. Ha zan txoriai eutsen jokera eta maitasuna!

Txepetxetik hasi eta oskilasoaren arteko izenak buruz ekizan harek. Baekian zein koloretakoak ziran zozo-arrautzak; baekian non egiten eben habia birigarroak; arbolara igon barik igarten eban barrukoak egiten ala arrautzakaz egoan. Azkarra zan benetan gure Juanito txori kontuan.

* * *

Baina gauza bat ezin eban igarri: zer dala-ta mozoloren bat egunez agertzen danean, txori guztiak barre-algaran burlazka hasten jakozan. Ezin eban igarri, eta aititari itandu eutsan afaloste baten.

—Aitita —esan eutsan—, kontauko zeunskit zergaitik mozoloren bat ikusten dabenean, txori guztiak irri egiten deutsien? Ezin dot asmau eta.

—Gaixoorrek, ezin dok asmau, e? Nik beste urte baheukaz mila bider entzungo heuan, ba. Esaiek beste anaiai be etorteko, aititik mozoloren ipuina kontau gura joala-ta.

Laster ekarri ebazan Juanitok sutondora Mirentxu, Perutxu eta Arantzatxu.

Perutxu aiteitaren altzoan jarri zan; besteak aulkietan, eta ipuina entzuteko pozarren egozan danak. Katua bera be ez eukien, ba, sutondoan, buztana hankapean sartuta adi-adi?

—Aitita —esan eutsan Juanitok—, hasi zein tekez ipuina kontetan. Polita izan daitela, gero!

—Bai, enetxuok! Aititak ipuin politak kontetan deutsuez beti. Halakoxea dozue mozoloaren hau be. Baina ez bildurtu, e?

—Ez, aitita, ez gara bildurtuko —erantzun eutsien laurak bat-batera.

Eta aguretxua hasi zan ipuina kontetan.

«Antxina-antxina baten mozolotxu bat jaio ei zan. Egunak joan egunak etorri, ez ei eutsan urteten lumarik, eta gizajoa dardarka hotzak hil beharrik ei egoan. Habiatik urteten lotsa zan, bilozik egoalako; eta negarrez eta ulu-uluka hasi zan gaixoa. Inguruetako txoriak negar eta uluok entzun ebezanean, arin-arinka joan jakozan zer jazoten jakon jakitera.

—Zeri dagiozu negar? —itandu eutsien errukituta.

Eta mozoloak erantzun:

—Ez nozue ikusten bilozik eta dardarka? Hotzak hil behar nau gehiago hemen egoten banaz, eta kanpora urteteko, barriz, ez daukat arpegirik; lotsa naz.

—Koitadua! —esan eutsien txoriak bat-batera—. Ez eizu gehiago negarrik egin. Geuk emongo deutsuguz geure lumarik gozatsuen eta ederrenak, berotu zaitez.

Eta txori guztiak hasi ziran pikuakaz lumak ateraten: batzuk buztanetik, beste asko hegoetatik eta norbaitzuk bular azpitik.

—Eutsi, eta jantzi eizuz! —esan eutsien txoriak, euren zeregi-
netara joanaz.

Eta jantzi be harro eta dotore jantzi zala, gero, gure mozoloa! Lehengo antzik be ez eukan. Eta gaur hona, bihar hara, apurka-apurka toki askotara joan-etorriak egiten hasi zan, eta bere jantziaren ederra erakusten. Pozik zer ebilen, gero, mozoloa! Kontxo! Txori guztien errege irudian panparroiak halakoak.

Baina beste txoriai ez jakezan bape atsegin mozoloaren ibiltaldi honeek.

—Lotsabakoa ete dan, gero, mozolo hori! —hasi ziran alkarren artean esaten—. Geuk emon daukan luma eta edertasun guztia, eta ez jatorku harrokeria honeekaz guztion errege balitz lez? Ez deutso luzaroan jarraituko bide horrerri danganino horrek, ez horixe!

Eta batzar bat izan eben mozoloagaz zer egin behar zan jakiteko. Batzuk luma guztia barriro kendu behar jakola uste eben. Beste batzuk, hau larregi irudituta, ohar bat bialtzeaz nahikoa zala uste eben. Orduan altzau zan jesarlekutik kurloia, eta esan eban:

—Jaunak, holan bada, neu joango naiatzue mozoloari ohar hori emotera.

—Joan zeintekoz —erantzun eutsien danak.

Eta kurloia behingo baten heldu zan mozoloa egoan lekuraino. Txorien burubidea jakin ebanean, mozoloaren larri eta estuak nork esan? Gizajoak bihotz-bihotzetik damu izan ebazan bere harrokeria eta txalo-nahiak. Eta aurrerantzean apal eta hobeagoa izango zala agindu eutsan kurloiari.

Eta ondu zan, beraz, gure mozoloa. Harrezkeroztik gauetan bakarrik urteten eban habiatik.

Baina halako baten ez eutsan emon, ba, buruak egunez be lantzean behin urten behar ebala hegazkada batzuk egitera? Eta urten be egin eban. Ene mozolo gaixoa! Izan eban gerratea aurrerantzean! Txori guztiak alkar hartu eben; hasi jakozan burlazka eta pikaka harrezkero...

Eta, enetxuok, parkazino kontuak alde baten itxita, gaur be halantxe dihardue».

—Aitita —esan eutsan haserrez Juanitok ipuina amaitu ebanean—, ze erru eukan, ba, mozolo gaixoak?

—Erru handirik ez, lobatxu. Baina hortxe dago, ba, harrotxua izan zan, bai?, eta oraindino be egiten deutsie kontra txoriak.



—Ba, ni, behintzat, beti izango naiako lagun. Ikusiko dogu hurrengo burletan deutsiengan! —esan eban Juanitok, ukabila jasoaz.

Perutxu, Mirentxu eta Arantzatxu be mozolo koitaduaren alde jarri ziran. Eta ohera joan ziranean, esan eutsien amari:

—Ama, geuk be Juanito bestekoak egin gaitzengan, mozoloaren alde jokatu dogu beti.

Zuek be bai, irakurle maiteok?

VIII

PERUREN BESIGUA

—Ai, Josepa, Josepa! Ez geunkan, ba, besigu eder bat afaritarako?

—Bai, Peru, halantxe zan. Baina arranoak halakoak beheko erre kara iges egin deust eta, zer egingo dozu, ba! Hurrengora arte itxaron beharko dozu.

Bai zera itxaron Peruk! Horretarako egoan gizajoa, mendilanak egin bitartean bere besigua besterik erabili ez buruan eta. Hartu makilea, eta hor joaku, arin bai arin, beheko erre kazo bazterrak aienatzera. Atrapetan baeban atrapau!...

Atrapau, gero? Kostauko jakon sekulakoetan! Ai, Josepa zitala eta maltzur-maltzurra! Ez eutsan, ba, berak jan, oriotan pres-tauta, besigu fresko-freskoa?

Peruk, jakina, nahi-ta ordu bat baino gehiago igaro erreka aldean, besigu barik etorri behar etxera.

Baina..., hau poza! Biderdi datorrela, ez dau, ba, arrain-saltzaile bategaz topez egiten? Eta arrain-saltzaileak besigu eder bat ekarren otzaran.

—Ola, *begigorri!* Hemendik, eztok? Ez dok barriro iges egingo. Ez horixe!

Eta, zast!, heldu buztanetik eta hor daroa Peruk etxerantza bere besigua. Jesus, baina, Jesus! Han gertatu zana! Arrain-

-saltzaileak besigu-ostuketea baieztu? Ezta, ezta ezergaitik be! Herri haretako plazeak hartu eban itxurea! Peru arrapaladan etxerantza, esku biakaz besiguari oratzen eutsala! Arrain-saltzailea atzetik Perugaitik inon diranak eta ez diranak esaten ebazala! Eta han egozan herritarrak guztiaren adi, barre-algaraz zutunik egon ezinik!...

Eskerrak herritarren artean egoan aberats bateri. Berak emon eutsan besiguaren ordaina arrain-saltzaileari. Osterantzean batek badaki zelan amaituko zan komedia barregarri ha!

Eta, kostaz baina, heldu jaku gure Peru etxera *begigorri* eta guzti. Josepa oso poztu zala esan beharrik ez dago. Ahokadea eukan makala bigarrenez be! Baina Peru ez egoan lehen jazorikoa barriri be ikusteko. Badaezpadan be, berak prestatuko eban oraingoan besigua.

Eta Josepa ganadu-zereginetara bialduta, hara hor gure Peru sutondoko lapiko ondoan, besiguak trastadaren bat egin ez degion esku-makila eta guzti.



Auzokoren bat etorri bazan orduan ezkaratzera, horraitino, uste izango eban Peru txarri-jana egosten egoala. Lapiko handia-
gorik ez dot uste etxe guztian eukienik. Samaraino urez beterik
egoan. Eta besigua, Peruren makileari eskerrak, ur ganean hara
eta hona, uger balebil lez. Su handia eukan eta, ura laster hasi zan
berotzen eta jantzari be behingoan pol-polka gozoan. Peruk barre
eragiterainoko kili-kiliak eukazan barruan. Pol-polkearena barik,
begigorri haren gozoa! Josepak ez eutsan prestau bere bizian hala-
ko platerkadarik. Ezta! Hiru-lau minutu barru, gertu egongo zan
besigua.

Egur batzuk sartu suari, eta Peru, bekokiko izerdia kenduaz
batera, *begigorriari* inoizko begirakunerik maitetsuenaz adi-adi
daukagu.

Baina minutu haren ostean ezkaratz haretan jazo zanaren
harrigarria! Suaren beroaz besigua ez jakon, ba, hasi saltu-saltuka,
lapiko hegalerik hegal, iges egin guran? Jesus, Maria eta Jose!
Zelakoa jarri zan, gero, gure Peru gizajoa! Kiski eta kaska, jo eta
ke, bertan birrinduta itxi eban arrain gaiztoa. Lapikoa, barriz,
hogezi zati eginda bai. Ala! Oraingoan, behintzat, ez eutsan igesik
egingo besigu arranoak halakoak!

Josepak ez eban barre gitxi egin Peruren triskantzea ikusi
ebanean.

—Zer gertatu jak, Peru? Zer gertatu jak horren sutsu eta
amorruz jokatzeko?

—Zer gertatu jatan? Zentenoak halakoak ez deust, ba, barri-
ro be erre kara iges egin gura izan? Kostauko jako zati baten!...

* * *

Iges, Peru? Bigarrenez be iges egin gura besiguak? Ja, ja, ja!...
Ondo kateatuta eukotsun zure Josepa maltzurak!

IX

ONDO EGINAREN ORDAINA

Nire irakurleak badakie, ondo jakin be. Baina otso harek ez ekian, antza, zer merezidu dauen ondo eginak.

Ete dago, ostera, mundu honetan ikasi ezin danik? Kaskarreko batzuk irakasle diranean, ez behintzat. Eta otso harek —ez ardurarik euki!— izan ebazan, bai, izan ebazan kaskarrekoak ugari!

Zer jazo zan? Gure artean sarritan jazo ohi dana: ondo eginaren ordezkari txarra agertu, haor.

* * *

Bajoian otsoa horma baten ondotik, eta usterik gitxienean, plunba!, harri handi bat jausi, eta gorputz osoa azpian hartu eutsan. Otsoaren orroetara heldu zan arin-arinka ondoko soloan lanean ebilen gizon bat.

—Atera naik, Patxo, atera naik! —inotsan otsoak.

Eta Patxo ez uste bihozbakoa zanik. Baina gero izterren bat-edo jaten baeutsan?...

—Ez deuat txarririk egingo, Patxo. Atera naik, mesedez! Ai, ai, ai!... Itoten naiagok eta, atera naik arin!

Kendu eutsan lepotik harria. Baina otsoak agindurikoa bete nahi ez.

—Patxo, esan eik arin «Neure Jesukristo Jauna», jan egin behar haut eta!

—Bai jan! Eta lehen emoniko berbea?

—Berbea, berba. Baina badakik, ba: gose danak jan egin behar jok-eta...

—Ni jan, hatan be? Hazurra besterik ez jaukaat eta!...

—Heu, Patxo, heu. Hazelako atzealdeak daukazaan!

Ez egoan erremediorik. Patxok, nahi zein nahi ez, otsoaren urdailera joan behar eban. Baina, egiaz be jan egin behar ete eban? Isilik egon zaitetz, isilik! On-egina holan ordaindu? Ezin eitekean! Ezta!

—Otso! —esan eutsan Patxok guztiz artega—. Hara: bide horretatik joanaz aurkituko joaguzan hiru lehenengoai itanduko jeutseagu zer merezidu joan ondo eginak. ‘Txarto’ esaten bajeuskuek, orduan jan naikek. ‘Ondo’ erantzuten bajeuskuek, ostera, bakean itxi beharko nok. Baderitxak?

—Ederto, Patxo! Ibiltaldi honek gosea zorrozituko jeustak polito geroko betekadarako. Gaioazaan, ba!

Hiru-lau pausu barru, ia zutunik be egon ezin zan txakur argal-argal bat aurkitu eben.

—Hi, txakur! —itandu eutsan otsoak—. Ondo eginak zer merezidu jok?

—Haginkada bat galanta! Ez jeutsaadaz erbi gitxi atrapau nik neure jaubeari. Zegaz ordaindu jeustazak? Banakusk: gosearen gosez hil aginean naiagok eta!

—Entzun dok, Patxo? Ondo eginak txarto merezidu, haor! —esan eutsan otsoak, bideari jarraitzen eutsiela.

Larra baten ondora heldu ziranean, behi zahar bat ikusi eben larran hara eta hona, bedar apur bat be ahoratu ezinik. Argalago egoan argalago! Zotz bat lez! Hurreratu, eta:

—Zu, adiskide! —itandu eutsan otsoak—. Zer deritxazu: ondo eginak ondo merezidu dau, ala?...

—Txarto! —erantzun eutsan behiak purrustadaka—. Umetan eta esnetan ez dot gitxi emon neure bizian. Esker ona agertu jau-beak? Gosea eta makilea bai!

—Ez dinoat, Patxo? Gertu hadi heriotzarako, ordua dok eta.

—Otso, oraindino beste hirugarren baten eretxia daukagu entzuteko. Ziur nago errazoa emongo deustana.

—Ez joat uste. Baina errazoi zein errazoi barik, dana dala nire urdail hau ez jagok gehiago itxaroteko. Hi, Patxo, neure janari izango haut.

Patxo gizajoak baserritar baten itxurea baino garbitokiko ari-maren baten antz gehiago eukan: zurbil-zurbil, heriotza-ikareak jota. Izerdi hotz bat erion gorputz guztirik... Otsoa, oster, kolko barruko poza gorde ezinik.

Hiru minutu barru, estarta bat igarokeran, azeri bategaz topez egin eben.

—Arrasti on, lagun!

—Baita zeuei be! Eta?

—Hemen gaiatozak, ba, itaun bateri erantzun bila. Hiri zer deritxak: ondo eginak ondo merezidu ete jok?

—Kontxo! Batek bajakik! Horretarako ondo egina zelakoa dan jakin behar lehenengo.

—Zelakoa izango dok, ba. Entzutea baino ez daukak...

Eta Patxok eta bien artean emon eutsien jazorikoaren barri.

Azeria –azeri izan behar!– konturatu zan, antza, Patxoren arpegitik bere barruan erabilen estu-larriaz. Eta otso bihozbakolari irakatsi on bat emon behar eutsala etorri jakon burura.

—Otso –esan eutsan bere esplikazinoak amaitu ebazanean–, ulertu dodaz zure berbak. Baina badaezpadan be, hobe izango dogu gertaera horren tokira bertara joan. Lehengo harripean ipiniko zaitugu. Eta holan jakingo dogu ziurren zelakoa izan dan ondo egina, zer merezidu dauen jakiteko.

Esan eta egin. Horma ondora heldu, eta ipini eben gure ton-tokiloa lehengo harripean; eta lehengo harria ezeze, beste haren-besteko bat be jarri eutsien ganean, azeriak *erregalutxu* bat be alboan ixten eutsala.

—Aberre gaizto eta esker txarrekoorrek, ikasi eik orain zer merezidu joan ondo eginak! –esan eutsan Patxok, ostikada bat emoten eutsala.



Eta, azeria lagun ebala, basetxerantza abiau zan poz-pozik.
Patxok emoniko oilanda gozo bi jan ebazan azeriak gau hare-
tako afaritan.

Otsoa, barriz, bera izan eben janari harrak egun batzuk gero-
ago. Bertan hil zan, jakina.

* * *

*Ongileari beti
emoiozu esker.
Otsoaren azkena,
nori jako eder?*

X

OTSOAREN ARDI-JATEAK

Nik badakit otso kontuak bildur emoten deutseena nire irakurleai, batez be ume diranai.

Baina gaur dinodan honek ezin leio dardara handirik inori eragin. Bai zera dardara! Gizajoa ia zutunik be ezin da egon eta.

Otso guztien aitita dirudi. Urtetan izan behar ditu, urtetan!... Bu!, ia hagin zahar bi be ez daukaz eta.

* * *

Bere gaztaroan ehiztari trebe eta ernea izan ei zan. Baina aspalditxuon behintzat ez eban agertzen trebetasun handirik. Burukomina emoten eutsan makala eguneroko janaria aurkitu beharrak! Jo ardikume batzukana, eta laster eukazan artzaina eta txakurrak atzetik. Baserrietako oiloetara jo; baina oilo ordeztak makilea aurkitu... Bene-benetan be, ia hatx batetik burua botateko egoan. Itxaropena galduta, gizajoa!

Baina, goseak burua argitu ohi eta, itxaropen-izpi bat sortu jakon behin kolko barruan. Asmakizuna izan eban polita!

—«Izan be, errazoia daukak, mutil –inotsan buruari–. Kostau jak baina, azkenean asmau dok biziera bardinbako bat. Hori dok eta! Artzain bahintz lez agertuko deutsek burua ardiai, eta armozu eta bazkari galantak izango dozak, bai, arraioorrek! Buru apur

bat eukitea zer doan, gero! Orain arte bizibide hau zanik be ez otutea, horraitino!...».

Adurra erion ahotik gure otsoari pozaren pozez.

Zelan, baina, artzainez jantzi? Jantziak non aurkitu?

Hainbeste bider makilaka eta txakurren zaunka artean alde eragin eutsien ardi-artzainakana jirabira bat egiteko asmoa hartu eban. Beharbada orduantxe izango eban zor guztiak ordainduazoteko unea.

Ha poza otsoarena! Berak uste eban lez zan dana. Ardiak lo, txakurrak lo, artzaina be lo. Une bat baeukan aproposagoa bere asmakizunak beteteko!

Nahiko bildurrez, baina inon gelditu barik jatsi zan artzaina eta ardiak egozan zelairaino. Eta artzainagana joanda, arreta handiz soineko, oinetako eta makilea ostu eutsazan.

Gero soinekoak jantzi, oinetakoak jarri, hartu makilea aurreko beso bien artean, eta artzain bat balitz lez ardi gaixoai adi-adi eta kinu gozoka hasi jaken. Irribarreak be urteten eutsan gizajoa-



ri noizik behinean. Eta nori ez, gero, halako betekadearen itxaropena kolko barruan euki ezker? Egunean ardi bat janda be, baeukan zati baterako. Ha izan eban, beraz, asmakizun argi eta etorri onekoa! Kontxo! Makilea lagun ebala, jantzan hasi ez zanean!...

Eta bere garaipena ospatu nahiaz, artalde guztiagaz zelaian zehar ibiltaldi bat egin behar ebala emon eutsan buruak. Ardirik gizenenak begiz joteko erea be izango eban eta. Ardiak, baina, lo egozan. Eta irazartzeko txistu edo zeozer egin behar. Baina gure otso tontokiloak, txistu orde, ez dau, ba, hatxak eurak be ikartzeko moduko orroa izugarri bat entzunazoten?

Ene mutilak! Zelai haretan sortu zana! Ardi guztiak mendi alderantza igesean; txakurrak ahausi-mahausika; artzaina, ia bilozik, beste munduko gauzaren bat ikusten balego lez...

—Arraio-arraioa! Ez jaroak, ba, buztana agirian? Otso madarikatu hori joat lapur lotsabakoa.

Arrapalada baten atrapau, eta makileaz bizkarra bero-bero eginda bialdu eban artzainak gure otsoa, txakurren ahausi eta haginkada artean.

Bildots-ardiak jan, beraz, gure otsoak? Gaixoa, bera bai jan ebela laster bela eta miruak.

Hurrengo egunean bide ondoan hilda aurkitu eban artzainak. Eta zelan ez, gero?

* * *

*Burubidea euki,
ez da beti nahiko.
Burua be behar da,
hori beteteko.*

XI

BIZKARRA BEROTU

—Biharamonak, Jose, biharamonak?

—Badakik, ba, Anton! Atzo iluntzeko jantzalditxuaz... Baina Etxekoneko Bartolok beste ez joat uste!

—Bartolok beste? Azkazubiko atsoagaz-edo egin joan jantzan, ala?

—Bai zera jantzan! Hondino ez dakik ezer?

—Nik ez; ordu erdi ez dok ohetik jagi noala!

—Jakin barik ixtekoa ez dok, ba! Auzoko Bitorik esan jeustak lehen, astoagaz errotarantza joan doanean.

—Santiagoren osasunera lartxu edan ete joan, ba?

—Ez jakiat nik edari konturik. Baina ohean jagoana bai. Bizkarra berotu ei jeutsiek bart Benitok eta Iñakik.

—Ez dok izango, Jose! Semeak makilaka erabili euren aita?

—Holantxe esan jeustak Bitorik: ohitura juenez, Benito eta Iñaki atzo be gaueko bederatziak inguruan etorri ei zoazan erromeriatik etxera. Baina Bartolok ez joan ikusi, antza, guztiz ondo, semeon hain goizetiko etxeratze hau. «Inori bizkarra berotu deutzazue, mutilak?», itandu ei jeutsean aitak. Iñakik-eta ezetz. Orduan Bartolok barriro bialdu ei joazan erromeriara. «Ez etorri, gero, bat edo bateri bizkarra berotu barik!», agindu ei jeutsean barriro be. Benito-eta -igarri heinke, Anton- pozik joango zoazan

erromeriarantza, Garbiñe-eta hondino jantzan aurkituko juezan seguruen. Baina, ez; ez ei zoazan joan erromeriara...

—«Ez jeuskuk esan aitak bat edo bateri bizkarra berotu barik ez etxerik zapaltzeko? —esan ei juen barrurako—. Gaiozaan, ba, sagardotegi batera. Ze demontre! Inor berotzeko, norberak ez ete jok egon behar bero?».

Eta Tomaseneko sagardotegira heldu, eta klin-klan, klin-klan, orain txurrut bat, gero beste bat, edan egin juen, antza, polito anaiok. Txurrutaren ostean, egongo ez zoazan, ba, norbaiteri bizkarra berotzeko eran?

—Eta, Jose: edan eta gero, etxera etorrita, aitari berotu ete eutsien, ba, bizkarra? Aita barik ez juen besterik kalean aurkitu?

—Bai, mutil. Pausu asko orduko ikusi ei juen harako agure gordin bat. Eta gehiagoko barik, hartu makilea eta, zist eta zast!, emonahalean zigortu ei juen agurea, bizkarra berotu ezeze, odol gorritan ipini arteraino be!



—Eta kalean aurkituriko agure hori euren aita izan, behar bada!

—Bai, ba! Bartolo bera zoan! Ai-eika eta txilioka hasi zoanean, ezagutu ei juen.

—Ez juek, horraitino, damurik gitxi izango mutilok aitari emoniko lepokadeagaitik!

—Damu izan? Bai seguru! Baina erru askorik ez juen izan behintzat eurok. Bartolok egon behar leukek damututa, Bartolok!

—Gaixoa, zati baterako egongo dok, nik uste.

—Neu be horretan naiagok. Eta... ia poztu be egiten nok bart jazoriko horregaitik. Ezetz gura dok Bartolok bere semeoi barriro holako burubide gaiztorik emon?

—Hori behar geunkek! Orduan ez bizkarra bakarrik, atzeak be berotuko leuskioezak polito.

—Eta hori negargarria litzatekek, Anton!

—Negargarria eta lotsagarria be bai, Jose! Eutsok zatoa eta bota eik txurrit bat, egunen baten ezkontzen bagozak ezkondu, guri behintzat holakorik gertatu ez jakiguan.

—Bartoloren osasunerako be edan beharko joat, eztok?

—Zeozer beharko jok gaixoak!...

* * *

Eta Josek eta Antonek ardao-dzangada banagaz amaitu eben goiz haretako berbalditxua.

Hazelako poza izango neuken nik halako baten Euskal Herriko guraso guztien aurrean barriztuko balebe barriztu euren autu-mautu hau!

Ardao-dzangada bat bakarrik? Baita guztion txalo eta gorak be hartuko leukiez mutilok.

XII

TXANGURRUAK MAISU

Ez dakit zergaitik izango dan; ahoan itxiriko gozoa oraindino ez dodalako galdu-edo.

Baina lehengo egunean Antonegaz egin neban txangurru-betekadeak ipuintxu bat dakarst gaur burura.

Txangurruak-eta aitatukeran, umeak uste izango dabe, beharbada, eurontzat idazten dodala ipuintxu hau. Ez, umetxuak! Gaurkoz joan zeintekeze zuek erreka txangurruak-eta, kaskailuak-eta atrapetan!

Guraso diranentzat doa ipuin hau. Ez zaituet, ala, zuek be ipuinzale? Eta honako hau atsegin-atsegin izango jatzue. Esango deustazue.

* * *

Jakingarria litzateke nongo errekan izan zan: Morgakoan, Muxikakoan, edo, beharbada, zuen herriko erreka baten. Tamalez, baina, liburuak ez dinoskue holakorik.

Baina erreka guztietako txangurruak ez ete dira bardinak? Bai seguru! Nahikoa dogu, ba, jakiterik.

Hilero-hilero egiten eben batzarren bat nire ipuineko txangurruak. Goiz haretakoa baino luze eta burubide handiagokorik ez, oster, aspaldian be. Seme-alaben ohiturai buruz ekin eben ber-

betan goiz guztian. Hobeto esateko, euren ibilereari buruz, euren atzeraka ibilereari buruz.

—Apartekoa da benetan –inoan bata– gure ohitura hau.

—Apartekoa, eta lotsagarria! –inoan besteak.

—Beinke lotsagarria! –jarraitu eban hirugarrenak–. Pizti guztien artean, geu bakarrik gabilz atze-atzeka. Ibilera motzagarrik, horraitino!...

—Eta? Gauzea holan dan ezker, zer egin behar dogu, ba? –itandu eban azkenean Txangurru Nagusiak.

—Zer egin behar? Aurrerantza ibili! –erantzun eutsien aho batez beste guztiak.

—Guk, baina –jarraitu eban nagusiak–, hazurrak gogor daukaguz. Semetxuai irakatsi beharko deutsegu aurrerantza ibilten. Ez deritxazue?

—Jakina, ba! Semeakaz hasi beharko dogu ohitura barri hau. Eta –ez ardurarik izan!– poz-pozik irakatsiko deutsegu.


—Ea, ba! Hori behar dogu, ba! Guztiok ahaleginez irakatsi ezker, laster ibiliko jakuz semeok aurrerantza polito-polito.

Poz-adurretan joan ziran eguerdi haretan txangurru-gurasoak euren semetxuakana. Hazelako seme-alaba dotoreak atera behar ebezan!

Bazkaldu, eta orduantxe bertan hasi jakezan ibilera barria irakasten. Orain bat, gero bestea, hartu eskutik banan-banan, eta ibiltalditxu bat eragiten eutsien bakotxari. Umetxuok, kostaz baina, eskutik eroan ezker, ibilten ziran aurrerantza, bigun be egozan eta. Baina, eurak euretara joango ete ziran, gero, aurrerantza? Bai zera joan! Atze-atzeka ebilzan; atze-atzeka aita-amen antzera.

—Ai enetxuok! Ez eiguzue guri jaramonik egin! –inotseen gurasoak–. Ibilera dotoreagarrik erakutsi gura deusuegu zuei eta.

Eta umetxuak, eskutik eroan ezker, hiru-lau oinkada emongo ebezan baina, behin bakarrik ibili beharrik, atze-atzeka hasten ziran barrero. Gurasoak be, ez ebilzan, ba, atzerantza? Umetxuoi, jakina, gurasoena iruditu onen-onena. Eta badakigu, ba, atze-atzeka koitaduok, atze-atzeka!...



Txangurrukume hareek ez eben ikasi aurrerantza ibiltzen. Aita-amen irakatsiak baino eginenak izan, ziur, indartsuago.

* * *

Guraso zarienok, ez ete dozue lezinorik asko txangurruen hau? Seme-alabai berbaz hazteko errea emotea behar-beharrezkoa da. Baina zeuen bizitzeaz jarraibide ez bazaiakeze, egingo ete deutsezue, gero, gauza handirik?

Begiratu, begiratu txangurrukumeak!...

XIII

BESTALDEKO LAPIKOA HOBEA?

Ume zinienean, ez zenduen jan inoiz bestaldeko lapikotik? Nik inoiz bai. Eta, ez dakizue, irakurleok, bestaldeko jateko haren gozoa!! Gurean? Gurean ez amak ez arrebak ez eben prestetan halako bazkaririk. Ezta! Askozaz hobeagoa zan bestaldekoa. Esan beharrik be!...

Egia esateko, niri txikitan jazoriko hau, gertatu ohi jake askori euren bizitzan. Norberaren bizikerea baino inorena iruditu beti hobe. Eta, jakina, ba, inoren ondamuz bizi behar. Ondamuz, eta beti artega, bake barik.

Ez, ba! Ez eben inoiz entzungo Pinto eta Potxoloren ipuina eta.

Berau irakurritakoan, horrelako horreek ezetz gehiago holako bizitzarik eroan!

* * *

Jaubeak berak kontau eustan Pinto eta Potxoloren ipuin hau. Pinto asto zan; Potxolo, barriz, txarri.

Aspalditxutik ei ebilen Pinto lan egin gura ezik eta umore txarrez. Baina iluntze haretan baino txarragoaz inoiz be ez ei eban aurkitu Txominek bere astotxua, kortara joan zanean.

—Zer gertatzen jak, Pinto? —itandu eutsan gozoro-gozoro, eskuaz lepoa igurzten eutsala.

—Zer gertatzen jatan? —erantzun eutsan Pintok amorruz—. Begiratu egiozu horko jaun agurgarri horreri. Oraintxe be etxunda, nasai-nasai, alperra halakoa! Jan eta lo besterik ez dau egiten. Eta jan, gero, ez edozer!...

—Eta heuk, Pinto, ez dok ezer jaten, ala?

—Nik jan? Zeuek emoten deustazuezan zigorradak bai! Hemen narabilzue egun guztian hara eta hona, beharrez ito aginean. Badator gaua, eta pentsurik? Bai ondo be! Gorantziak hartu eizak! Bazter honetan lotu, eta hemen ixten nozue gehiagoko barik.

—Ez dok izango horrenbesterako, Pinto! Horrenbesterako ez dok izango! Eutsok pentsu gozoa. Eta esan egik barriro be ez haugula maite!...

Txomin, besakada bat bedarsiku emonda, sutondora joan zan, astotxuaren urtekerea zala-ta barregurea gorde ezinik.

Baina ez uste Pintok poz kili-kiliz eukanik kolkoa. Txominen bedarsikua gorabehera, haserrez eta marmarozka geratu zan kortan.



—«Arraio-arraioa! –jarraitu eban esaten–. Holan ezin leiteke bizi! Ezin leiteke! Txarri horrerri egunero bizkarrean hatz egin; «ene Potxolotxu» deitu, eta ez dakit zenbat laztankeria egiten deutsiezan... Niri, ostera, hatz egin? Zigorra dea bai sendo! Txarri hori beti daukie atsedenean, pepe eginda. Ni, barriz, beti lanean. Hau al da bizimodua? Deabruak eroan nagiala holan bizi behar badot!...».

Eta gure Pinto, belarriak atzera botata, ostikoka hasi zan *leña*, kateak apurtu eta iges egin gurarik. Bai zera apurtu kateak! Gizajoak hantxe egon behar izan eban astebetean, aste bitan, eta hilebete luzeetan, nahi-ta Potxologaitik marmar besterik egin ez. Egunez lan eta gaeuz ernegau...

Baina San Martin bezperan harrituta geratu zan Txomin, eguerdi inguruan kortara joan zanean. Zergaitik uste dozue, ene irakurleok? Egizue barre neugaz batera! Ez dozue ikusten Pinto gurea? Astotxuaren itxurea! Izertzan dago gaixoa! Izertzan eta dardarka, belarriak gora jasoteko be bildurrez!

—Jauna –dinotso Txomineri belauniko jarrita–, parkatu eida-zu, arren! Gaiztoa izan naitazu gaur arte; gaiztoa eta borondate txarrekoa. Oker nengoan, jauna, Potxologaitik txarto esaten nebanean. Hobe da, bai!, hobe da holan bizi, Potxoloren azkena izan baino. Parkatu, arren, jauna! Parkatu!...

—Zer gertatzen dok, ba, Pinto, zer gertatzen dok horren larri egoteko? –itandu eutsan Txominek, adarra jo guran.

—Jauna, ez al daki berorrek? Goizeon, okotzetik burdina bat sartuta, eroan dabe kanpora Potxolo txilioka eta orroaka. Hil egingo eben seguru! Orduan gogoratu dodaz nire esamesak eta marmarrak. Txarto nengoan, holan berba egikeran. Parkatu, jauna! Aurrerantzean ona izango naiako! Parkatu, arren, parkatu!...

Txominek ez eutsan parkatuko, ba, horren borondate oneko astotxuari? Trankilduteko esan, eta pensu gozoa be emon eutsan gaixoari.

Harrezkero –egia-egia dinotsuet, irakurleok– ez zan ezagutu inguruetakoko herrietan Pinto lako asto zintzo eta beharginik. Goi-zetik gauera, geratu barik, ebilen lanean. Eta pozik, gero, pozik!

—«Hobe dok –inotsan kolkoari– egunero ehun zigorrada bizkarrean hartuta be bizi, Potxoloren antzera gazte-gazterik hil baino!...».

* * *

Entzun dozue, irakurleok? Norberaren bizikereaz pozik egoitea hobe dala dinosku gure Pinto astotxuak. Eta halantxe da, izan be. Inoren izakereak gauza onik asko eukiko dauz, ziur; baina txarrik be bai, uste baino gehiago.

Ez deritxazue hobe Jainkoak emonikoaz poz-pozik biziteari?

Gogoratu sarritan Potxoloren azkena! Laster jarriko zaiataze Pintoren alderditik. Bai horixe!

XIV

PRAKAZAHARREN BAZKARIA

Zuek ez zenduen ezagutu *Prakazahar*, neure aitita baino be zaharragoa zan eta. Baina ijitanu bat ei zan zelebregoa!

—Txo, *Prakazahar*! —esan ohi eutsien barre gurarik neska-mutilak—. Nork emon deuz horren praka politok? Emaztegeiak, ala?

—Ai, niri emaztegeiak hau baino gauza hoberik emoten deust! —erantzuten eutsen *Prakazaharrek* poz-adurretan—. Hau baino gauza hoberik!!!

—Kontxo! Hoberik be bai, e? Zer emoten deua, ba, *Prakazahar*?

—Bai! Hori esango deusuet!

Eta barre egiten eban gozatsu gure ijitanuak...

Ete eukan, beraz, emaztegeirik? Nik neuk ez dakit. Baina, eukitekotan be, zer emongo eutsan, ba, hareri! Mosu askorik ez behintzat; kaputxino batek baino be bizar handiagoa eukan eta. Eta besterik ezer bai, gero?

* * *

Santiago biharamonean nork esan, baina, *Prakazaharregaitik* baten bategandik zeozer hartu barik igaro ebala eguna? Eta ez, gero, hartu edozelako gauzarik! Don Teodororenean egon behar

zenduen, irakurleok. Bazkariaren ederra, Don Teodorok emonda, *Prakazaharrek* jan ebana!

Don Teodorok *emonda*, gero? Badaezpadan be, esan egiozue hori *Prakazaharri*ri. Mutil ona jarriko jatzue!

—Zergaitik, ba?

—Zergaitik? Bazkaldu orduko ipuin bat esateari, irabazirik gitxi deitzen deutzazue, ala?

—Asko be bada eta! Ez dabe gitxi balio, horraitino, ipuinok!

—Ez uste; *Prakazaharren* ipuina, laburra baina, polita eta burutsua izan zan, gero! Egingo neuke urte guztian eguerdi haretan baino buru-neke gehiago ez ebala izan.

—Jauna! —joan jakon ate-joka Don Teodorori—. Santiago eguanean, ba, ijitanua naz baina... Badaki, ba, berorrek, neuk be... janguratxua, jauna, janguratxua!...

—Nirean jan gura dok, hatan be? —erantzun eutsan Don Teodorok.

—Bai, ba! Berorrek nahi izan ezkerok, ba!...

Don Teodorori barregurea sortu eutsan kolkoan *Prakazaharren* itxureak. Emongo ez eutsan, ba, jan-edana zenbat-gura, horren ijitanu maitegarriari? Baita halako beste hamarreri be! Baina bazkaldu baino lehen bere kontura barre apur bat egin behar ebala otu jakon. Eta *Prakazahar* ipuin-kontari ona zanez, beste mahaikoakana eroan eta txurrut bat emon eta ostean, agindu eutsan irribarrez Don Teodorok:

—*Prakazahar*, bazkaririk nahi badok, ipuintxu bat kontau beharko deuskuk lehenengo, gero!

—Ipuin bat? Baina norik gogoratzen dau, ba, orain ipuinik?!

—Bai, mutil! Hik gogoratuko dok bat edo bat.

—Ba..., hamen joatzue, ba!

Eta gure *Prakazahar*, gotzain jaun bat baino be serioago, hasi jaken esaten:

—Behin baten txarrieme batek hamabi ume eukazan, eta hamaika titi besterik ez.



—Eta hamabigarren txarrikumeak zer egiten joan? —itandu eutsan Don Teodorok, jakinguraz.

—Hamabigarrenak? Orain neu nagotzuen lez, besteai adi-adi egon.

Ja, ja, ja!... Barre-zantzoa eta txaloak ugari izan ziran mahaian egozanen artean.

—Hori dok eta, *Prakazahar!* Inoizko ipuinik politena entzun joagu gaur! Hator mahaira! Jarri hadi hemen!

Prakazaharrek ez dot uste bere bizian be Santiago egun haretan baino hobeto jan-edan ebanik! Don Teodorok kafea-eta, kopea-eta, purua be emon eutsazan eta!

Eta hau guztiau mereziduta, gero! Ondo mereziduta, *Prakazaharrek* inoanez. Ea nork kontetan dauzan debalde horren ipuin polit-sakonak!

* * *

Nik ez dakit, irakurleok, zuei zer deritxazuen.

Baina, merezidu zein merezidu ez, halako baten zuenean izaten badozue izan ipuin-kontari gaixo hau, ea, gero, emoten deutzazuen zeozer onik, pernil zatitxu bat-edo!

Ni behintzat itxaropen osoz joango naiatzue.

XV

AITAGUREA IKASTEN

Buru gitxikoak zaituedala, ene irakurleok? Aita santuak esango baleust be ez neuke sinistuko nik holakorik. Gitxi be ezagun zaiataze eta!

Baina zuen herri edo lagunen artean buru gitxiko batzuk eza-gutzen dozuezala esango bazeunste, ez nintzateke bape miraritu-ko. Hainbesteren artean baten bat burugogorra izatea, ez da horren miragarria.

Baina buru gitxikoak ete dira, beraz, holakotzat daukazuezan horreek? Agurmaria, Kredoan edo Aitagurea ezin dabela ikasi, eta buru gitxikoak?

* * *

Erramon artzainarena jakin nebanetik, eztabaida gogor bat izan dot kolkoan horrerri buruz. Eta ia ziur nago ez dirala buru-bagako; gauza baten faltea daukie bakarrik: erarik ez gizajoak; ez daukie erea Aitagurea-eta ikasteko.

Burubakotzat daukazuezan horreei ipuintxu hau irakurten badeutsezue, zer gura dozue postura, ezin dozuela gehiago esan eurakaitik adimenbakoak diranik? Mila ogerleko be egingo neuskizuez; baita gehiago be gura izan ezkerero.

Neuk be ez dakit zein probintzian; Bizkaian bertan, ala Gipuzkoan ala Nafarroan izan zan, aititak ez eustan esan eta. Baina ipuina ondo gomutetan dot oraindino.

Erramon artzaina ei zan. Gizon ona, zintzoa eta eleizarakoa oso. Baina gizajoak, bere eta beste artzainen ardi guztiak baktotxa bere izenaz ezagutuko ebazan baina, gauza bat ezin eban ikasi: Aitagurea. Gaur eta bihar eta etzi ekin eta ekin, eta ezin, ezin ikasi ezelan be otoitz hori!

Hamaika bider agertu eutsan Erramonen abade jaunari bere burukomin hau, bide batez hiru-lau gaztai eroaten eutsazala!

Don Pedron ahaleginak be, oster, hutsak ziran. Beti ahazten jakozan Erramoneri, edo erdian edo azkenean, berbaren batzuk.

Behin baten, ibiltaldi bat egin behar ebala-ta, Don Pedro Erramonen ardiak ikustera joan zan mendira. Zer dala-ta ez dakit baina, bere lagunaren ardiak zenbatu behar ebazala emon eutsan Don Pedrori buruak. Egin eban zenbaketea, eta aiko!, Aitagureak daukazan berba beste ardi, ez gehiago ez gitxiago, eukazan Erramonen.

—Txo, Erramon! —esan eutsan pozarren Don Pedrok—. Ohartu dok inoiz? Aitagureak jaukazaan berba beste ardi daukazak artaldean.

—Ezta izango, jauna!

—Halantxe dok, Erramon. Eta badakik zer otu jataan?

—Zer, jauna?

—Aitagurearen berbakaz ardiok bateatzea. Ikusiko dok zein errez ikasten doan honetara Aitagurea. Zer deritxak?

—Ederto, jauna! Burutasun argiagorik ezin eikean izan berorrek. Ikasiko ez dot, ba, holan Aitagurea!

Kili-kili eragion kolkoak gure Erramon gaixoari. Aitagurea ikasteko era politagorik, horraitino!

Txakurra lagun ebala, behingo baten sartu ebazan ardiak txabolan. Eta abade jauna alde batean eta bera bestean jarten zirala, edegi atea... eta, emon mutilak!, ur eta bedeinkazio barik



baina, bateoa ugari izan zan han. Lehenengo ardiari ‘Pater’ ipini eutsien izena; hurrengoari ‘Noster’, hirugarrenari ‘Qui’, laugarrenari ‘Es’, bosgarrenari ‘In’, besteari ‘Coelis’..., eta azkenari ‘Amen’.

—Erramon —esan eutsan gero Don Pedrok—, ikasi ete dok, ba, orain Aitagurea?

—Baiezkoan nago, jauna.

Eta Erramonek, ardiai bere aurretik banan-banan igaro eraginda, bota eta bota, bape hutsik egin barik esan eban Aitagurea azkeneraino.

* * *

—Era polita, ezta irakurleok?, Aitagurea irakasteko!

—Polita eta burutsua, baten bat izatekotan. Baina ardirik ez daukienentzat zer balio dau, ba?

—Kontxo, kontxo! Ardirik bako tontokilotxuak ezagutzen dozuez orduan! Eta oilorik-edo, konejurik-edo ez ete daukie, ba?

—Holakorik baietz uste dogu; ia danak.

—Orduan bardin-bardin deutsue! Ipiniz eizue piztiok erreskaladan, eta zuen ikasleakaz batera hasi sendo bateatzen. Ikusiko dozue zein polito ikasiko deutsuen Aitagurea nahi beste edozein lezino! Egizue probea, ea!

Baina ez uste, neure irakurle zintzook, ez uste Erramonen ipuina ardien bateoaz amaitu zanik. Ez dozue entzun oraindino gauzarik jakingarriena.

Don Pedrok asko maite eban Erramon. Eta mendian irakatsiriko lezinoa noizik behinean eskatu barik egongo jakon, ba? Begiraldi batzuk behin betiko ikasi eragingo eutsien Erramoneri Aitagurea.

—Txo, Erramon! —esan eutsan handik aste batera—. Aitagureari begiraldi bat emon behar jeutsaagu, ahaztu ez dagian.

Pozik hartu eban Erramonek abadearen nahi hau. Ardiak batuta, orduantxe bertan hasi jakon Aitagurea esaten:

—Pater, Noster, Qui, Es, In, Coelis, Nomen, Tuum...

Baina zer, irakurleok? Aurrera jarraitukeran ez deusku, ba, Erramonek ‘Sanctificetur’ ahazten?

—Isildu hadi, Erramon, isildu hadi! —esan eutsan guztiz bihozberatuta Don Pedrok—. Ez jak, ba, ‘Sanctificetur’ ahaztu?

—Ez jat ahaztu, jauna, ez jat ahaztu! —erantzun eutsan Erramonek bape larritu barik—. Otsoak jan eustan atzo iluntzean.

Entzun dozue, ene irakurle *maisuk*? Erramoneri ‘Sanctificetur’ otsoak jan ei eutsan, otsoak. Ez jakon ahaztu, ez.

* * *

Kontuz, ba, zuek be, oilo edo konejuak lagun dabezala, Aitagurea-edo, Agurmaria-edo errezaukeran, zuen ikasleak hutsen bat

egiten deitsuenean! Ez horren arin erruak bota gizajoari! Baten batek jan izango eutsien, seguruen koneju edo oilandatxuren bat.

Baten batek, bai! Eta ea, gero, zeuek izan zarien lapurtxuok? Edo, beharbada, neu? Holakorik balitz, horraitino!...

—Zer, gero?

—Zer? On egin deigula, jakina! Horren ikasteko era polita-gaitik ez ete dogu merezidu, gero, koneju-izter edo oilandatxuren bat?

XVI

TXINPAS IJITANUA

Egingo neuke nire irakurleatariko batek baino gehiagok eza-gutu ebela ipuintxu honetan agertzen dan gizon hau.

Ez zan ibili zuen herrietatik harako *Txinpas* eritxan ijitanu bat? Ez zenduen, ba, gitxi-gitxi be galdu ibili ez bazan! Gogorazten dodaneko, oraintxe be barregura bat bajatort kolkora! *Txinpas*! Neure gaztaroan hainbeste ordu gozo igaro eragindako *Txinpas* ijitanua!... Maitegarriagoa jat gizona!...

—*Txinpas*, ea jantzalditxu bat! —esaten eutsien, barre gurarik, hogeï-hogeta bi urteko neskak.

Eta *Txinpasek* egingo ez eutsen, ba, jantzalditxua, horren neska eder eta galantai?

—*Txinpas*! —inotsien gero tabernako gazte hareek—. Ea, mutil, kantau eiguk, ba, hire emaztegeiari atera deutsaan kantutxu hori!

Eta *Txinpasek* ahots txarra eukiko eban baina, bihotz bat ipinten eban kantuan, bihotz bat! Eta ostean, jakina, ardao-txurruplanplina klin-klan, klin-klan barrura.

—*Txinpas* —itantzen eutsien hango hareek—, zelan hil jaan, ba, hire emazte maitea?

Eta ziur-ziur nago harek ez eukala ez emazterik ezta emaztegeirik be. Baina negarrez eta zotinka amaitzen eban gaixoak bere kondaira errukarria.

Holakoxea zan gure *Txinpas*: bihotz onekoa, edonoren nahia beteteko beti prest egoana. Eta, zergaitik esan ez?, baita noizik behinean maltzurkeria bat edo beste egiten ekiana be...

Baina –hau egia!– maltzurkeria honetan be, *Txinpas* beti maitegarri.

* * *

Neskatilaren batzuk esanda-edo, besteak be joiazalako-edo, zergaitik ez dakit baina, gure *Txinpaseri* autortzera joan behar ebala emon eutsan behin buruak. Eta ez, gero, buruak emon bakarrik! Herri haretako eleizean egon bazinie, hantxe ikusi ahal zeinkien *Txinpas* belauniko eta zintzo-zintzo, Ixidro soinulariak autortzea egitetik noiz urtengo.

Ordu lauren barru urten ebanean, haratxuagoko amama zaharrari jaramonik be egin barik, rasta!, heldu zan *Txinpas* Don Enrikeganaino. Eta ez uste: damurik bizienaz hasi jakon bere pekatuak esaten. Gauza handirik ez, ziurren: neskatilaren bateri isil-misilean maitezko kinu batzuk egin eutsazala; noizik behinean ardao-txurruplanplinak kantau guratxua emon eutsala, eta holakoak, nik uste.

Baina, handik lasterrera, poz-ikara bat izan eban *Txinpasek* kolkoan! Hogeiko bat eukan Don Enrikek agiri-agirian ezkerreko patrikeran!!!

—«Denganino-denganinoa! –hasi zan esaten barrurako—. Hogeï ogerleko Don Enrikek agirian! Hogeï ogerleko!!! Badakik zelako dirutzea doan hori? Hau dok hirea!».

Eta, Don Enrikeri lapurreta bat egin ebala esaten eutsan bitartean, polito-polito eskua luzatu, eta hogeï ogerlekook sakele-ratu ebazan.

—Ostuketaren bat egin dozu orduan? –jarraitu eban Don Enrikek.

—Bai, jauna. Hogeï ogerleko ostu dodaz –zintzo-zintzoro gure *Txinpasek*.



—Holan bada, badakizu, ba: jaubeari emon behar deutzazuz. Osterantzean ez daukazu zerura joaterik.

—Gura dauz berorrek nire hogei ogerlekook?

—Nik ez. Jaubeari emon behar deutzazuz horreek, jaubeari.

—Eta, jauna: jaubeak nahi ez badauz?

—Orduan zeuretzat gorde zeinkez.

Sinistuko deustazue, ene irakurleok? *Txinpasek* ez eban minuturik be gehiago egin autorlekuan. Ia arrapaladan urten eban eleizpera. Poz bat baeroian!

—Zer dok, *Txinpas*, zer dok horren pozik urteteko? —esan eutsien eleizpean egozanak.

—O! —erantzun eutsen *Txinpasek*—. Bazenkie jakin, zer dan holako autortza bat egitea! Nire bihotzaren zoriona!!!

—On-onik egin ete dok, ba, *Txinpas*?

—Ona bakarrik? Inoizkorik onena egin dot gaur, inoizkorik onena! Ea erregutzen dozuen beste holako asko egin daidazan.

—Baina gaurkoa lako autortzarik egin nahi badok, pekaturen bat egin beharko dok lehenengo!

—Bai seguru! Hortxe dago, ba, untzea!!!...

Eleizpean egozan hareek ez eben susmau be *Txinpasek* inotsenik. Eta Don Enrikek hondino gitxiago!

Txinpasen *negozioaren* barri izanda be, gero, egingo ete eutsien ezer txarrik?

Bai zera egin! Barre bai gozatsu, Don Enrike bera lehenen zala.

Eta nork ez, gero, holako gizon maitegarri bateri? *Txinpasen* antzekoak balira ijitanu guztiak!...

XVII

PRAISKU ETA MARI PEPA

Emakumeren batek irakurten badau, horraitino, ipuintxu hau, ai nire bizkarraren koitadua! Osagileren bategana eroan beharko nozue hainbat arinen gizonezkook!

Baina, andratxuok, badinotsuet nik orduz: ez eizue irakurri ipuin hau, ez eizue irakurri! Osterantzean ez uste nire bizkarra bakarrik, zeuen matrailok be gorri-gorririk aurkituko dozuez behingoan. Eta ez, gero, horren atsegin jatzuezan pinturakaz! Bai zera! Mari Pepak, zuen ahizta zan harako Mari Pepa harek gorri-tuazoko deusuez matrailok.

—Zer dala-ta?

—Hara, esango neuskizue; baina, ez, ez noa esatera. Minen bat emoteko be!...

Gizonezkoentzat bakarrik idazten dot ipuintxu hau. Gizajook merezidu be badogu-eta zeozer gure alde, emakumeak egiten deuskuezan trasterien ordez!

* * *

Mari Pepa, neuk be ez neban ezagutu –Jaungoikoari esker-
rrak!–, baina andra batek izan behar eban motzagoa, itsusia-
goa!!! Jesussss! Ez dakit zelan otu jakon be gure Praiskuri andra
haregaz ezkontzea. Tximinoi bat bera baino be motzagoa ei zan

eta. Eta ahots bat, barriz, ei eukan garratzagoa! Ostikoaz jotako terreina zahar batek atera ohi dauenaren antzekoa!...

Edertasun eta ahotsik ez arren, ostera, zeozer onik izan behar eban, antza. Praisku beragaz ezkondu zanez, ba!...

Baina, motza zalako-edo, ahots txarrekoa zalako-edo, egun bat be ez eban igaro behintzat Mari Pepak, halako baten Praiskuk itxi edo etxetik kanpora botako ete ebanaren bildur barik.

Holakorik gertatu ez ekion, zer asmau ebala uste dozue? San Joserren altara aurrera joan, eta senarra gortu eta itsutu zedin santuari eskatu.

Ikusgarria zan Mari Pepa, etxetik urtenda, eleizara bidean. Abiada bat baerorian!... Eta zeinen fede gartsuz erregutu, gero, San Joserren altara aurrean!

Praisku be, ostera, horren burueza izan ez. Bere emaztearen eguneroko eleizaratzeak zeozeren susmoa emon eutsien. Eta bada-etzpadan be hobe zala-ta, emazteari aurrea hartuta, San Joserren altara ostean ezkutau zan behin baten.

Emaztearen eskaria entzun ebanean, ez jakon barregura makala sortu kolkotan!

—«Ederto jagok!» —esan eban barrurako.

Eta Mari Pepak bigarrenez be, besoak luzatuta, senarra gortu eta itsutu ekion San Joseri eskatu eutsanean, Praiskuk gozo-gozoro erantzun eutsan:

—Horren buruargia izanda, ez dakizu oraindino zer dan onen-onena horretarako? Emoiozu jan-edana zenbat-gura, eta gortu ezeze, itsutu be behingoan egingo jatzu senarra!

—Eskerrik asko, Jose neurea, eskerrik asko!!!...

Eta bazenkie, irakurleok, zeinen pozez eta eztiz heldu zan Mari Pepa goiz haretan etxera!

Baina ez uste, gero, Praisku bestean pozez! San Jose zala-ta, bai jan eta edan ebala mutilak aurrerantzean! Errege batek baino hobeto.

—Mari Pepa, nik geroago eta gitxiago ikusten jonat; entzun be gitxiago —esaten eutsan Praiskuk.

Eta Mari Pepa, badakigu, ba, adurretan gizajea; hoba ez!

Urtebete geroago inoizkorik morroskoen egoan Praisku. Baina gaixo bi leporatu jakozan koitaduari: gorrik eta ikuste barik egoan. Zer egikean orain mundu honetan?

—Mari Pepa —esan eutsan behin—, banakusna: gorrik eta itsututa naiagona. Zer egingo jonat nik orain, enbarazu ezik? Hobe izango dona aurreko mendiko gailur haretara eroan, eta bertatik behera jaurtiten banona.

Mari Pepak egin eban sinurik eta izukeriarik!

—Jesussss, Praisku! Esan be holakorik!!!

Baina pozarren egoan, pozarren maltzurra halakoa! Oso atsegin izan jakon Praiskuren eretxia. Honetara, behin betiko kenduko ebazan senarraganako ardura eta ezbaiak.

Arratsalde haretan bertan ikusi zeinkiezan, ene irakurleok, Praisku eta Mari Pepa, besotik hartuta, mendi-aldapeari jarrai. Mari Pepak bidean zehar bainotsan koplatan Praiskuri!: burubide horrek min handia emoten eutsala, bere laguntasun gozo barik bizi beharko ebala aurrerantzean, eta ez dakit zenbat gauzeztanteria; negar antzeko batzuk be egin ebazan eta.

Baina mendi-gailurrera helduta, Praiskuren aginduz, bultz egitera abiadan etorrenean, ikusi bazendue, irakurleok, ikusi! Uju-ujuka datorren sorgin baten antza ekarren. Baetorren, baetorren abiadan Mari Pepa gurea, Praisku gailurretik behera bota guraz...

Baina..., bai zera Praisku gor eta itsurik egon! Emaztea ondo-ondotxuan izan ebanean, ez deusku hegal baterantza egiten? Agur gure Mari Pepa ederra! Zati-zati eginda geratu jakun han beheko hatxarte haretan.

* * *

Nire irakurleen artean ba ete dago Mari Peparik?

Hasierako kontsejua jarraitu badabe, ez dot uste. Baina egoterik balitz horraitino, kontuz, gero, badaezpadan be! Senarrari

jan-edana sendo emon, hori bai! Baina mendi-gailurren batetik
behera botateko asmotan egon? Um!!!

Ea, gero, Mari Peparena gertatu ahal lekizuen gero!



XVIII

ZERURA JOATEKO, ZORRO BAT ONEN

Irakurle maiteok, zuek eta ni tontokilo batzuk besterik ez garala esaten badot, haserratu egingo ete zaiataze? Ez nintzateke bape harrituko zuetariko baten batek umekondo honen kontra ukabila jasoko bazendue, ia neure esku berberok be belarriondoko bana emon aginean izan dodaz eta.

Baina egia, egia; eta esan beharrean aurkitzen naz.

—Zer dala-ta gara, ba, tontokilo? —itanduko deustazue danok, ziur.

—Guztiok dakigun gauza honegaitik, irakurleok. Begiratu ezpabere. Hemen gabilz gu txiki-txikitatik sermolariai entzun eta entzun, zerurako eginak garala, eta zerura joateko eginen onak, irabaziak behar doguzala, eta ez dakit zer eta badakit nor... Eta egia esateko, borondaterik onena ipini izan dogu beti zeruratze honetan. Baina, bai zera! Ezin heldu zeruraino! Bazoaz, bazoaz, eta beharbada igon dozu eskilaratik gora azkeneko mailaraino. Baina gitxien uste dozunean, zer? Blaust!, bazatoz barriro lurra joterraino. Gatx egiten jaku, beraz, gatx zeruratze hori.

Badakizue zergaitik? Zerura sartzeko modu edo erarik ez dakigulako. Hementxe dago untzea!

Ai Martin *Sugin* bizi balitxaku bizi! Harek bai irakatsiko leus-kigula zerura joateko era polit bat! Eta ez uste, gero, meritu baga-

ko erarik. Bai zera meritu bagakorik! Aberats bateri diru guztiak ostu, eta demoninoari berari inoizko zigorradarik galantena emon: meriturik gitxi jatzue hau guztiau?

Astirotxuago esango deusuedaz gure Martin *Suginen* kontuak.

* * *

Martin *Sugin*, bere izenak dinoanez, sugina zan ogibidez. Baina alpertzua zan mutila, eta beste bizimodu bat hartzeko asmotan hasi zan.

Zein hartu, baina? Guztietan izerdia bota beharko eban eta! Gogamen bat etorri jakon orduan burura. Gure Jauna, San Pedroren laguntasunean, Euskal Herritik ebilenez, zorro bat eskatuko eutsan berari, beste batzuk be eskatu eutsienez. Eta zorro honegaz bizimodu segurua izango eban. Besteak baeukien behintzat.

—Zorro honetan sartu zaitetz! —esango eutsan berak nahi ebanari, eta gehiagoko barik, beterik izango eban zorroa: zein mada-ri, zein sagarrez, zein diruz, berak gura eban gauzeaz.

Esan eta egin. Egun batzuk barru, Jesukristok emoniko zorro-
agaz ebilen Martin *Sugin*. Eta bateko leihoren baten ikusiriko katu miaulariren bat zala, besteko Joseparen madari gozo haree-
tariko batzuk zirala, beti erabilen behintzat zeozer zorroan.

Goiz haretan, Don Fakundo ikusi eban leihoan bere diruak kontetan.

—«Hau dok nirea!» —esan eban gure Martinek kolkorako. Eta edegi zorroa, eta diru guztiak hegazkada baten sartu jakozan barrura.

Beste baten, fraile-komentu baten ondotik joiala, adardun demonino gorri bat ikusi eban komentuko ate ondoan, barrura sartu gurarik. Eta Martin *Suginek*, fraileai asko gura eutsenez, edegi zorroa, eta: «Ea, txotxo, ona barrura!», esan eutsan. Eta demoninoak isil-isilik sartu behar. Zorrora sartu eragin bakarrik ez, gero! Hazelako mailukadak emon eutsazan bere sutegira eroan ebanean! Txilioka iges egin eutsan inpernantza!

Honeetarikorik egiten eban bakotxik gure Martin *Suginek!* Dozenaka egunero! Eta –hau miragarria!– danak gura eutsien, herritar dan-danak.

Halako baten gure mutilari, mundu honetan nahikoa bizitzarik eroan ebala-ta, zerura joan behar ebala otu jakon. Eta, gehiagoko barik, heldu zeruko ateetaraino eta, tilin-tilin, tilin-tilin, deitu eban hango kanpaitxuaz. Zeruko atezaina badakigu nor zan: gure San Pedro on-ona. Baina San Pedrok ezin barruratzten itxi Martin lako pizti bateri. Bere zorroa zala-ta, ez ebazan, ba, hainbeste eta hainbeste gauza ostu munduan?

—Ez, Martin; hiretzat ez jagok lekurik zeruan. Lehenengo, osturiko gauzok ordaindu egin behar dozak –esanda, atea itxi eutsan.

Gure Martin oso bihozminduta geratu zan, gaixoa, San Pedoren erantzun honegaz. Baina mundura etorrita, bere zorroaz lehengo mirariak egiten hasi zanean, behingoan kendu be San Pedoren berbak itxi eutsien mingotsa. Hoba ez kendu bere zorroaren bitartez eukan *negozio* biribilaz!

Orain be, baina, laster gogaitu eban Martinek mundu honetan, nahi-ta inor baino zoriontsuago bizi. Geroago eta zeru-min biziagoa sortu jakon bihotzean. Eta denpora asko barik, zeruko atetan aurkitu eban San Pedrok deika. Zorro eta guzti, jakina.

—Arren, San Pedro! –hasi jakon esaten gure Martin *Sugin*–. Hartu naizu zeruan, mundu horrek gogait be eragin deust eta.

—Ordaindu dozak, ba, munduan osturiko gauzok?

—Ordaindu... Hiru-lau pezeta ostuteari lapurretea deitzea be, horraitino!

—Ai Martin, Martin! Holantxe dok gauzea, holantxe dok! Joan hadi barriro, eta ea hurrengoan zor barik hatorren.

—Zorro hau be ez ete dozu hartuko, ba? Jesukristok emon eustan.

—Holan badok, ekarri eidak.

Eta San Pedrok, hartu zorroa, eta ateostean itxi eban.

Ene mutilak! Gure Martin *Suginen* kolkoan sortu zan poz-
-ikarea!



—Jaungoikoak zorroan sartu nagiala! —esan eban ahal eban eta ahotsik altuenean. Eta, nahi-ta San Pedrok besotik oratuta kanpora jaurti gura, zorroan sartu jakun gure Martin *Sugin*.

Eta nik neuk behintzat ez dot entzun gehiago kanpora urten dauenik. Deganinoak halakoak, ia ezer kosta barik, lortu eban zeruratzea.

* * *

Guri be ez ete litxakigu ondo baino hobeto etorriko Martin *Suginena* lako zorro miragarritxu bat?

Ni baiezkoan nago. Laster gintzatekez horretara zeruan. Ez deritxazue?

Ea, ba, irakurleok: inoiz holako zorrerik aurkitzen badozue, emongo deustazue, gero, beraren barri? Nik aurkitzen badot behintzat emongo deustuet. Eta txandaka erabiliko dogu, guztiok zeruratu gaitezana.

Ea noiz besarkatu ahal dogun zeruan gure Martin *Sugin!*

XIX

BESTE MUNDUKO GIZONA

Nik ez dakit ezagutzen dozuenentz Txomin *Txiki* agurea. Baleiteke zuetariko batek baino gehiagok oraingo bere entzuterik eukitea. Zitaltxua, gero, mutila!

Baina ez uste zitalkeria kontuan Txomin *Txiki* bakarra dozuenik. Bai zera izan! Neure irakurle batzuk be ezagun baneuz ezagun!...

Gaur, ostera, beste bat jatort burura. Zelebregoa berau! Errufino *Pipermin* deitzen eutsien hor-han-hemen guztiak. Eta euki be, gero, baeukan piperminik nahiko gure Errufinok...

* * *

Urtebetetze-eguna etorkola-ta, betekadatu bat egin behar ebala emon eutsan behin buruak. Zegaz, baina, egin betekada hau, ezer erosteko lau txiki be ez eukazan patrikeran eta? Estamangua baino buru azkarragorik ez ei dago eta, bai laster asmau ebala Errufinoren *buruak* urtenaldi berezi bat.

Ez jakon ezagun eta, Doña Erruperta tabernereagandik lortuko eban betekada on baterainoko beste.

—Zeren bitartez? Zelan?

Erduze, irakurleok, Doña Errupertarenera eta ikusiko dozue. Hara, oraintxe joaku Errufino be pozarren, pipa eta guzti tabernara.

—Egun on, Erruperta!
—Halan Jainkoak emon! Eta? Zer nahi dozu, ba?
—Nik iii... pipea biztuteko sua nahi, Erruperta. Beste mundutik natorrenez, ba!...

—Beste mundutik zatoz? Nor zaitut, ba, gizon?
—Ez nozu ezagutzen?
—Ez nik.
—Nik bai, ba, zeu.
—Praisku Etxekoneko ez zaitut izango, baina!
—Haxe berbera, Erruperta! San Pedrok baimena emon deust, bai?, eta munduan zehar ibiltalditxu bat egitea gogo izan dot.
—Pozten naitazu, Praisku, bene-benetan be pozten naitazu. Eta badakizu, ba, nire Peruren barririk?
—Peru senar zenduan, ezta?
—Bai, senar neban bai.
—Baaa, hantxe dago neugaz. Toki baten bizi gaiatzuz biok.
—Eta zelan dago, ba, gizajoa? Ezeren beharrik badauka? Jantzirik-edo, jatekorik-edo behar dau?
—Bai, Erruperta. Batez be gosea dauka handia. Diruak-eta eroateko agindu eustan honantza etortean. Gosez bizi da batez be.
—Gosez? Gosez zu, Peru maitea? Horren behargina izanda, gosez? Eutsiz, Praisku; hartu eizuz diruok eta eroan eiozuz Peruri. Eroan eiozuz solomo eta lukainka honeek be, eta ardao botila pare hau be bai; janariak on dagion. Ama Birjina Begoñakoa! Gosez nire Peru!...

Tangadaka erion negarra gure Errupertari senarraren oroime-
nez. Errufinok, ostera, ezagutu ete eban inoiz kolko barruan hala-
ko poz sorginik? Errupertaren aurrean, baina, ez eban irribarre-
txurik be loratu.

—Ez zaitetz samindu, Erruperta! —esan eutsan gozo-gozoro—. Neke-saminetan dozun senar hori, laster izango dozu inoizko zorionsuen. Behingo baten nagotzu beragaz barriro be.

Eta lukainka, solomo eta diruok zorro baten sartu eta zorroa lepoan hartuta, pipea biztuteko akordurik be barik, pozik urten



eban Errupinok beste mundurantz, Doña Errupertari agurrik beroena egiten eutsala.

Erruperta Praiskuren alde otoi-tz beroan geratu zan, joanaldi on eta arin bat egikean eskatuaz.

Baina Errupertaneko beste norbait ez egoan, horraitino, otoi-tzean hasteko! Mutil ona etorri jakon etxe atzeko solotik Ixidro, bere bigarren senarra!

—Erruperta! Baina nori emon deusana halako zorrokadea?

—Beste munduko gizon bateri. Nire Peru be beragaz ei dago eta, berarentzat emon deusadaz lukainka, solomo eta diruak, Perurentzat. Gizajoa gosez hil beharrean ei dago eta!

—Heu hazana hi gizajo eta inozente handia, heu! Nondik nora dakina hik maltzur zahar danganino hori beste munduko gizonen bat izan donala?

—Berak esanda. Guzurra esango eustan, ba?

—Ai Erruperta, Erruperta! Hi lako andrakaz ezin leiteke bizi-modurik atera. Adarra jo deua-na polito azeri zahar horrek! Aze-

ri-azeriorrek!... Baina oker dabil, oker, beste munduraino helduko dala uste badau... Oraintxe bertan noako atzetik!

Eta kortan eukan zaldia hartu, aparejuak gertu eta lauhandan urten eban Ixidrok etxe atzeko bidean zehar.

Atrapau ete eban Errufino? Beragana heldu zan bai. Baina ez uste zorroa atrapau eutsanik. Tontokiloa zan, izan be, gure Errufino eta! Zer egin ebalu uste dozue Ixidro beragana etorrela ikusi ebanean? Zorroa sasiarte baten polito-polito ezkutau, ganetik eroian jake zaharra erantzi, eta bide-ertzean jarri zan tenplau-tenplau, atsedean hartu gura baleu lez.

Ixidrok lapur-usainik be ez eutsan hartu Errufinori. Edozein ibilkari iruditu jakon. Eta egun ona opatu eta ostean, itaun hau luzatu eutsan:

—Zu, lagun! Ikusi ete dozu bide honetan zehar harako gizon txiki zimel bat, zorro eta guzti?

—Bai, gizon. Ez da askorik atzeko bide horretatik honantza etorri izan dala. Estarta horretarantza joialakoan nago.

—Egingo zeunskit mesede bat?

—Zergaitik ez, ba!

—Hartu eidazu zaldi hau, ba, eta ea ni hona etorri arte eukiten deustazun. Lapur danganino hori atrapau egin behar dot.

—Lapurretaren bat egin deustue orduan?

—Lapurretaren bat? Eta ez txikia egin be! Ez dakit zenbat lukainka eta dirutan daroastan...

—Suerte ona euki daizula, ba. Zaldia neure kontura!

Ixidro arrapaladan sartu zan estartan gora, zaldia Praiskuren eskuetan ixten ebalu. Esku onetan ipini eban, hatan be! Zer egin ebalu uste dozue Errufinok Ixidro aldendu zanean? Horixe, irakurleok! Zeuok igarri izan dozuen berberorixe! Jantzi eban jakea, hartu eban zorroa bizkarrean, zaldi ganean jarri zan, eta tximisteak berak baino be arinago iges egin eban paraje haretatik urrun.

Ixidrok-eta, Errupertak-eta beste mundura egingo ebalu uste izango eben, beharbada... Ahalegin guztiak egin arren, ez eben Errufinoren azterren ez gorantzirik be hartu izan eta.

Baina gure Errufino ez zan, antza, eretxi bardinekoa. Edo... beharbada bai! Bai, demontres! Zaldi, lukainka, solomo, edari eta diru haren bitartez igaroriko urtebetetze-eguna ez ete eban, gero, beste mundukoa izan?

Hareek lako egun askotxu bageunkaz, irakurle!

XX

JOSEPA ASTRONOMU

Inor izatekotan, Josepa zan zelebrea, Josepa!

—Dirua egiteko burutsua izan behar dala? Kia! Ez nago horretan. Buru asko barik be nahiko diru egiten dot nik —esan ohi eutsen auzokoai poz-adurretan.

Egin be, gero, polito egiten eban dirua Josepak. Hamaika astronomuri, posturea eginda, irabazi eutsen harek denpora ona ala txarra egingo ebanentz!

Postura honeetarako, baina, lagun bat eban bitarteko. Igarriko ete zeunskide zein zan bere lagun hau? Astotxu bat zan, Txapar izeneko astotxu zahar-zahar bat. Txaparrek, plip-plap, plip-plap, belarriak hara eta hona erabilten baebazan, denpora txarra egingo eban; geldi baeukazan, ostera, denpora ona.

Baina ez uste Josepak astronomuai holakorik esaten eutsenik. Jakingo balebe, horraitino, agur bere *negozioa*, eta agur bere entzute ona. Bai zera esan!

* * *

Herri haretan bazan aberats bat negozio askoko gizona. Don Luzio eritxan. Nik ez dakit orduan zein erabilen: etxe-jasoteren bat, pinu-ebateren bat edo zein beste erabilen. Baina denpora ona ala txarra egingo ete eban aurretik jakiteak, asko ardura eutsan

Don Luziori negozioaren onerako. Hamar mila pezeta eukazan aginduta hurrengo astean zelako denporea izango zan igarten eutsan astronomuarentzat. Oker esaten eutsanari bost mila behintzat kentzekotan. Jakina!

Hamar mila pezeta!!! Ez zan dirutza makala! Ia herri osoa joan jakon Don Luziori denporearen gorabeherak igarteko prest. Ezjakinen esana nork jarraitu, baina? Ez; hori astronomuak bakarrik igarri eikien gauzea zan. Eta astronomuok laster izan ebazan Don Luziok etxean; zazpi-edo.

Gela batera eroanda, dzangada batzuk edanaz batera, agertu eutsien astronomuok euren eretxia. Euririk? Ezta! Eguzkirik ederrren eta gozatsuena izango zan hurrengo aste guztian. Ez eukan Don Luziok ardura beharrik; egingo eban eta.

Eretxi hau emoten egozala, tan, tan, tan, deika izan eben norbait atean.

—Nor zaitugu, ba, zeu? —itandu eutsien barrutik.

—Josepa Errotetako naz. Edegi eidazue atea.

Josepa Errotetako! Nongo emakumea ete zan berau?!

—Eskean zatoz, ala, emakume?

—Ez, ez nator eskean. Don Luziok deituta, denpora ona ala txarra egingo dauenentz erantzutera etorri zariela entzun dot eta, neuk be neure eretxia emotera etorri nahi izan dot.

—Ez dozu entzun, baina, astronomuak besterik ezin leitekezala etorri?

—Astronomuak bakarrik? Eta neu ez nozue astronomu, ala?

—Bai, bat! Itxurea badozu behintzat!

—Ai itxurea! Ez egiozue jaramonik egin itxureari. Itxi eidazue sartzen.

—Asto eta guzti gura ete dozu, ba?

—Asto eta guzti, jakina.

Atera urten eben astronomu biak, barre-algaraka emon eutsien Don Luziori-eta Joseparen barri. Horraitino be emakume gaixo ha etorken denporearen gorabeherak azaldu gurarik. Barre eragiteko be!

—Sartu zaitekez, Josepa; sartu zaitekez. Pastelak-eta daukaguz ganera guk hemen zuretzat.

—Eskerrik asko, jaunak. Baina ez nator pastel bila, Don Luziori erantzuna emotera nator ni.

—Zeu ez zinan etorriko, baina, Josepa! Astoa ekarriko zenuan erantzuna emoteko. Ea eragiozu arrantza, ea.

—Adarra jo kontuan bazarie mutilak. Baina ez dakit, ba, ezer artezik esan deutzazuen Don Luziori. Don Luzio, aste honetan denpora ona egingo dauela esan deutsue jakintsu honeek? Alai zakustazanez, ba!...

—Halantxe da, Josepa; baiezkoan itxi nabe.

—Um!!! Ez dakit, ba! Ez dakit, ba!...

Eta Josepak Txaparren belarrietara begiratu eban. Plip-plap, plip-plap, atzera eta aurrera erabilzan artega astotxuak bere belarriak.



—Don Luzio —esan eutsan Josepak—, astronomu honeek oker egon jatzuz. Aste honetan denpora txarrak egingo dauz. Gaurko gaua orduko daukagu zerua euria dariola.

—Ja, ja, ja...! Ez eiguzu barre eragin, emakume. Tira, hartu eizuz pastelak eta kopatxu bat, ea zentzunera zatozan.

—Zentzunera nork etorri behar dauen laster jakingo dogu. Agur, Don Luzio eta astronomu jaun jakintsuok. Iluntzera arte.

Beste barik, Josepak, hartu astotxua, eta lehengo bidetik urten eban taka-taka.

Don Luzio-eta Josepa munduan zehar dabilzan kitanetariko bat zalakoan egozan. Kitanaren bat izango zanez, jakina, ba, holako urtekerak eukitea. Ez eutsien bape jaramonik egin bere eretxiari. Zera egingo eutsien!

Ordu erdi geroago, puru handi bana bizturik, herritik kanpora ibiltalditxu bat egitera urten eben zazpi astronomuok, Don Luzio lagun ebela. Entzungarri joian, antza, Don Luzio bere negozioen gorabeherak kontetan. Ez ziran ezegaz konturatu.

Baina baetorren, baetorren haizea eta laino baltz bildurgarriak itsasaldetik. Joseparen esana betetera joian, antza. Bost minuturen barruan, zeru guztia hodei baltzez estalduta egoan; isildu zan haizea, eta agur gure astronomuen eretxi jakintsua! Bat-batean hodeiak ura erielat hasi ziran, lur guztia ito beharrik.

Une honetan Don Luzio eta gure astronomuak ikusi bazenduz, irakurle! Han joiazan arrapaladan eta sokorruka, hor altzau eta han jausi, aterperen bat non aurkituko. Itxura makala herrian sartukeran gizonok ekarriena!...

—Mutilak —inotsien alkarrerik gure astronomuak—, gaiozaan hainbat arinen herritik kanpora!

—Gaiozaan, bai, gaiozaan! Hondatuak gozak osterantzean eta.

Don Luziok ez eban gehiago ikusi gizonon gerizperik; hanka egin eutsien, badaezpadan be. Baina egun gitxi barru eskuratu ebazan astronomuok zor eutsiezan bost mila pezetak.

Berak be, ostera, baetsazan zor pezetaren batzuk norbaiteri. Astea igaro baino lehen han izan eban Josepa ate-joka, Txapar lagun ebala.

—Ez neutsun esan nik, Don Luzio? Ai nire astotxu hau baino astronomu hoberik ez dago, gero! Begiratu zelan igarri dauzan denporearen gorabeherak.

Eta gure Josepa hamar mila pezetagaz joan zan egun haretan etxera.

* * *

Osterabe esan ahal izango eutsen auzokoai buru asko barik be berak nahiko diru egiten ebala.

Nork ez, gero, halako astotxu jakintsua euki ezkerok?

Baina, txist!, irakurleok. Don Luziok ez dagiala jakin, gero, Txapar astotxuaren abilitaderik!

XXI

GORRIA, GERO, GALANTA!

Ni neu ez naz izan inoiz soldadu. Baina badot anaia bat urte eta erdiko soldadutzea eginikoa.

Soldadutzeak ez dau izan behar, antza, on-ona, nire anaia Juanek dinoanez. Itandu egiozue, badaezpadan be. Laster entzungo deutzazue erostea: bateko gosea igaro ebala, besteko logurea izan ebala, hau eta bestea zala; atxakia behintzat ugari.

Sinistu ete geinkio? Nik neuk ez behintzat. Bizimodu txarra, bai! Eta aitaren boltsikotik hartutako diruak? Eta etxetik bialdutako solomo eta lukainkak? Kontxo! Askok gura izango leukie soldadutzan harek eroandako biziarea. Bai horixe!

* * *

Baina, autortu beharrean gagoz, egia da eta: maiatz hile haretan gure Juanek igaro eban baino gau bildurgarriagorik gitxitan igaro izan dogu, ziur. Harek izan behar eban gaua, harek! «Ikaragarriagorik, ezin!», inoan gure Juanek.

—Zer gertatu zan, ba?

—Zer gertatu zan? Nik neuk ez daukat gatzik kontetako. Baina Juanek berak esango deutzue oraintxe. Entzun egiozue.

—Mutil, barriri be lelo bardinagaz? Gogaituta be banaiagok ia.

—Nigaitik ez dok, baina, Juan. Irakurleak jaukaadaz entzun gura oraingoan.

—Irakurleak? Umekondoori, hi be irakurle eta guzti bizi haz?

—Badakik, ba... Zeozer egin behar dok mundu honetan eta.

—Tirok, ba, tirok. Hire irakurle finokaitik badok, pozik bai pozik kontauko joat. Badaezpadan be, ez jeutseat nahi euroi nik igaroa lako gaurik. Arraioa!...

—Larregikeriarik ez egiek esan behintzat.

—Larregikeriarik? Entzun deidela lehenengo. Gero esango juek egia dinotsedanentz. Mutilak! Ha zoan baltzak igarotea, ha!

«Guardia-egile, zelatari nintzan gau haretan. Inoiz soldadu izan bazarie, jakingo dozue, nik bestean, zer dan gauez guardia egitea. Soldadu gizajoaren logura eta neke-minak! Baina ez uste nik gau haretan logurarik izan nebanik. Lo egiteko nengoan! Gorriak, alboko mendietan ebilzan gorriak ziran bildurraren bildurrez dardarka baten neunkienak. Une batetik bestera etorri leitekezan gure kanpamentua hartzera. Gau haretan baetozan, zer egingo neban nik? Gaua isil egoan. Mozoloren baten noizik behineko oihua besterik ez zan entzuten. Artega nengoan: zigarroak erre eta erre. Baten baino sarriagotan ikusi neban zugatz bako txaren ostean gorriren bat. Ete zan, beraz? Kia! Irudimenaren trasteriak ziran. Erlojura begiratu, eta hamabiak oraindino. Izerdi larria, gorputz-dardarea, zigarro-erretea..., eta bien bitartean hamabi eta erdiak heldu ziran. Geroago ordu batak be entzun nebazan; ordu biak be bai. Apur bat trunkildu nintzan. Ez ete etozan, ba, gorriok gau haretan? Fusila alboan itxita, ezin eitekean baina, lo apur bat egiteko asmoa be hartu neban. Bai zera lorik egin! Jesarri nintzaneko —une horren adi egozan, antza, gorriak— ez dodaz, ba, entzuten hogeit bat metro ingurura, harako orbel zapalduak atera ohi daroetan moduko krik-krak batzuk? «Ene mutilak! Gorriren batzuk izan behar juek horreek!», esan neban kolkorako. Hartu neban fusila. Zutunik jarri nintzan. Zarata alderantza fusila ipini eta, nondik aterariko indarrez ez dakit, baina: «Geldi!», egin neban deadar. Zaratok, baina, lehengo letxe.

«Geldi! Nor zaitut?», esan neban bigarrenez. Oraingoan be inork erantzun ez. Dardarka eta izerdi larrian nengoan. Bildur izanda, baina, zer onik neukan? «Geldi! Gora eskuak!», deitu neban hiru-garrenez be ahal neban ahotsik gogorrenaz, hiru-lau pausu aurretatzen nintzala. Zaratok, ostera, geroago eta hurrago, eta inork erantzuten ez... Zer egin? Neure burua gorrien eskuetan jausten itxi? Bai ondo be! Neurtu nebazan luze-laburrak, oratu neutsan gatilluari, eta, su eta gar, mutilak!, laster entzun ziran gauaren isiltasunean tiro ikaragarri bi.

Zer gertatu zan? Tiroen hotsera batu ziran lagunak emon eusten danaren barri. Hilda luze itxi neban gau haretako *gorri* zelataria. Gorria, gero, makala beraxe! Ikaratu zaitzeze, ene entzuleok! Zer eta, txarri bat! Sei-zazpi arroako txarri biribil bat ez zan, ba, nire gau haretako gorri bildurgarria? Hango barre egin beharra! Hango zorionak hartu beharra! Hango txaloak eta gorak, nik hildako txarria zala eta ez zala!... Koronelak be egin eban gozatsu barre:



—Hi haz mutila, hi! Guztion nagusi izatea merezidu dok, Juan! —esan eustan.

Baina oraindino ez nengoan barre-zantzorik egiteko. Estu-larriak igaro nebazan makalak! Taupadaka neukan bihotza!...

Badakizue noiz jarri nintzan barre-algararako moduan? Txurruplanplina ugari zala, danon artean txarria bazkaldu genduanean, orduantxe.

Gau haretako nire estu-larri eta trebetasunaren ordeztu, ez ete geunkan, gero, ondo mereziduta halako bazkaritxua?».

* * *

Baietz esan beharko deutsagu, irakurleok; haserratu ez dakigun, besterik ez bada.

Baina soldadutza txarra izan ebala sinistu? Nik neuk ez, behintzat. Kontxo! Neu be izango nintzateke soldadu horren txarritxu gozo bat, patrikereari minik egin barik, irunstarren.

Nor ez, gero!

XXII

SAN PEDRO EGARRI

Umore ona daukazue, mutilak? Ez galdu, arren, ez galdu umore hori! Jo txistu eta tanbolina; egin jantzan be gura badozue!

Umore ona eukitea gizon ospetsuai ez jagokela uste dozue, ala? Nor, esaterako, gure Jauna eta San Pedro baino ospetsuagorik? Eta begiratu, inoizko umorerik gatzatuenaz agertzen jakuz gure euskal ipuinetan: San Pedro ia beti bereren bat egin edo bere bihotz zabal handia erakusten deuskula; eta gure Jauna, ziria sartu eta ostean, San Pedrori irakatsi on bat emon gurarik. Beti, behintzat, umore onez.

Oraingo honetan be holan ikusiko dozuez.

* * *

Nik ez dakit norantza joiazan gure Jauna eta San Pedro. Hurrengo herrira, beharbada, sermoiren bat-edo egitera. Dana dala, bajoiazan, bajoiazan taka-taka bidezidorrari jarrai. Eta aldasbehera baten gure Jaunak zaldi-burdina bat aurkitu eban bide ondoan.

—Peru —esan eutsan San Pedrori—, ea altzau eik zaldi-burdina hori.

San Pedrok, baina, garriko mina-edo eukan, antza, goiz haretan...

—«Zertako altzau burdina zahar hori? –esan eban kolkorako–. Horren balioagaitik!...».

Eta ostiko bat emonda, bertan itxi eban.

—«Bai, e, Peru? Ondo jagok!» –pentsau eban gure Jaunak bere artean.

Eta isil-misilean hartu berak, eta boltsikoan gorde eban zaldi-burdinea.

—«Damutuko haz, bai, hire alperkeriagaitik» –inoan bereztat.

Herrira heldu ziranean, gure Jaunak hamar txakurrean saldu eutsan burdinea errementari bateri, eta hamar txakur horreekaz kilo bat kereiza erosi eban.

Behingoan garbituko ebazan San Pedrok kereizok. Kinutan egiten eutsen gozoagorik!... Baina gure Jaunak ez eutsan garaunik be emon. Geroagorako gorde ebazan.

Herriari bakotxak bere hitzalditxua egin; bazkaritzat hiru-lau sardinazahar iruntsi, eta, aupa mutilak!, etxerantzako bidea hartu eben barrero gure Jaunak eta San Pedrok.

Bero zer egoan arratsaldea?! Izertzan joian San Pedro. Eguzkiaren erroak kiskalgarri jausten ziran, jausi be eta. Baina kanpoko beroa ez jakon ezer gaixoari. Urdaila, urdaila ekarren irakiten!

—«Ez ete dok aurkituko, gizajoorrek, iturritxuren bat, besterik ez bada? –inotsan kolkoari triste-tristerik–. Sardinazaharrok, horraitino!...».

Gure Jauna lar ondo be konturatu zan San Pedrori gertatzen jakonaz; barreari eutsi ezinik egoan eta. Baina ez eutsan jaramonik egin. Zaldi-burdinea ez eban altzau gura izan, bai?, eta orain alperkeria haren zorrak ordaindu beharko ebazan.

Hartu kereiza bat, eta zast!, boltsikotik jausten itxi eutsan. San Pedrok, atzetik etorren eta, kereizea ikusi ebanean, isil-isilik hartu, eta klauski!, hazur eta guzti iruntsi eban. «Ez nau ikusi Jesusek, ez nau ikusi Jesusek», inoan barrurako poz-pozik.

Baina bai, irakurle, ikusi eban, ikusi eban Jesusek, ezer esan ez arren.



Urruntxuago, beste kereiza bat bota eban Jaunak behera; eta San Pedrok, bildurrez baina, hartu eta jan laster, Jesusek ikusten ez ebalakoan. Ikusiko ez zinduzan, ba, Peru?!

Gero beste bat, haratxuago beste bat, sei, zazpi, hamar... hamabost, danak bota eutsazan apurka-apurka. Eta gure San Pedrok guztiak garbitu. Ekarren egarriaz!...

Hiru-lau pausu barru, nekatuta be baegozan eta, gerizpe baten jarri ziran atsedean apur bat hartzeko.

—Eta, Peru! —esan eutsan Jesusek—. Goizeon ez hengoan, ba, garriko minez? Kereiza guztiak batu dozak!

—Badaki, ba, Jauna —erantzun eutsan apal-apalik San Pedrok—, egarri be banintzan-eta...

—Ai Peru, Peru! —generatu eutsan gure Jaunak—. Zaldi-burdinea hartzeko behin bakarrik makurtu bahintz makurtu, ez heuan hainbeste bider makurtu beharrik izango kereizak jateko.

Ziur-ziur nago San Pedrok hurrengo kereizak horrenbeste kostau barik jan ebazana.

Irakatsia emon eutsan polita gure Jaunak.

XXIII

MIGEL FERMINEN BEHORKUMEAK

Ba ete dakizue, irakurleok, estu bizitea zer dan? Ni ezezkoan nago; ez dakizuelakoan. Zera jakin behar dozue! Eguneroko ogia eta noizik behineko ardao-txurruta, gitxienez, eskuan dozuez beti eta.

Baina Migel Ferminen narruan egon bazinie egon, jakingo zenduen oraingo zer dan estu bizite hori. Lar ondo be bai, enetxuok!

Zer zala uste dozue bere eukite guztia? Etxetxu bat, behi bat, hiru-lau oilo eta solotxu bat gitxienez behintzat, esango deustazue beharbada.

Kia! Hori baino be txiroago zan gure Migel Fermin; askozaz txiroago. Behor bat, behor zahar bat zan bere aberastasun guztia. Behorra, eta behor horrek urtero-urtero emoten eutsazan umeak, jakina. Behorkumeen diru eta auzokoak emoten eutsienaz bizi zan gure Migel Fermin.

* * *

Baina azkeneko urte honetan estu-larririk baeukan gizajoak! Zergaitik esaten badeutset, barre egingo dabe nire irakurleak gozatsu. Baina barre, bai, barre! Horretarako egoan gure Migel Fermin! Ez jakon, ba, antzutu bere behor maitea? Beterinarioari

deitu, jateko apartekoa emon, hango eta horko kitanuakaz berba egin..., nik ez dakit zenbat ahalegindu zan gaixoa. Baina dana alperrik: behorra ez zan umedun egiten.

Ezinezko gauzatzat itxi, eta behorra saldu-edo egingo ete eban, ba? Aitatu be holakorik Migel Ferminen aurrean! Nahiago eban harek bere begi biak emon, behor ha baino. Kia! Ez eukan saltzeko. Zelan edo halan, nahi-ta hogeigunegun bera jan-edan barik egon behar, aurkituko eutsan erremedioa behorraren antzutasunari. Iruñean behintzat egongo zan abere kontuan jakitunen bat.

Eta, ze demontre!, hurrengo egunari itxaroten egon barik, txiki-txaka, txiki-txaka, Iruñera bidea hartu eban eguerdi haretantxe. Migel Fermin eta behorra, bikote makala! Bajoiari, bajoiari, eta ehuneko bat egingo neuke postura Migel Ferminek berak be ez ebala uste hain arin eta errez behorrarentzako erremedioa aurkituko ebanik.

—Behorra antzututa dozula-ta, Iruñera ei zoaz.

—Bai, gazte; halantxe da izan.

—Iruñeraino erremedio horren bila? Neuk emon neikizu, nahi izan ezkeron, erremedioa.

—Ez da izango?!

—Bai, Migel Fermin; hamentxe bertan daukat erremedio hori. Haoneexek dozuz...

Eta gauza biribil handi bi erakutsi eutsazan.

—Oiloak be -jarraitu eban esaten- arrautzen beharra daukie, ezta?, txitak aterateko. Behorrak be bai. Ezarri egiozuz, eta behingoan aterako deutsuz umerik ederrenetariko bi.

Migel Ferminek, nire irakurleatariko bat izan balitz ez dakit baina, Migel Fermin zalako-edo, sinistu egin eutsan horren kontseju ona emon eutsan gazte hareri. Bai, ba! Kontseju-emolea gauza horreek liburuetan ikasiriko korbatadun estudiante bat zan eta.

Gazteari bere eskerrik beroena agertu, gauza biribil-biribil bi harek polito-polito esku banatan hartu, eta, aupa mutilak!, pozarren barriztu ebazan Migel Ferminek lehen ibilirik bideak bere behorraren laguntasunean.

—«Kontxo, Migel Fermin! —inotsan kolkoari bidean zehar—. Oraingo honexek izan behar jok, ba, erremedio segurua. Eta bat ezeze, ume bi be izango jozak oraingoan hire behorrak. Aurten badok irabazia, mutil. Poztu heinteke, beraz!...».

Herrira heldutakoan, burubide hagaitik barre-algaran hartu ebela? Asko ardura eutsan Migel Fermineri. Baserritar hareek baino gehiago ez eban jakingo ikasle harek, ala? Bai seguru. Kia, kia! Inori jaramonik egin barik, lotuko eban berak behorra, etxe ondoko sasiartean, behor-arrautza bi hareek ipinten eutsazala. Luzaro barik, arrautza ganean jarri, eta umeak aterako eutsazan, bai horixe!, bere behor maiteak. Fina zan, izan be, eta!

Iluntze haretan bertantxe lotu eban Migel Ferminek behorra, etxe ondoko sasiartean habia antzeko bat eginik, arrautza bi hareek ipiniaz. Besakada bat sekulabedar be itxi eutsan alboan, goserik igaro ez egian.

Hurrengo goizean goiz jagi zan Migel Fermin ohetik; behorren gomuteaz ezin eban begirik itxi. Lo-denporan be amesetan besterik ez eban egin eta.



Praka eta alkondarak jantzi, abarkak oinetan lotu, pipatxua biztu, eta behorra arrautza artean jarri ete zan, bai ete zan ez ete zan, artega joan zan Migel Fermin sasiarterantza, behorra bildurtu ez egian behatz-puntetan.

Ene bada! Gure Migel Ferminen bihotzaren pil-pilka beroa! Zer eta, sasiartetik urtenda pizti txiki bi ez joiazan, ba, saltu-saltuka zelaian zehar?! Behorkumeak ziran, behor maiteak aterariko ume biak! Ha poza Migel Ferminena! Putxo!, putxo! deika, umeon atzetik joan zan, eurok besarkatu eta behor-amagana eroan nahirik. Ezin, baina, ezelan be atrapau!

—«Bai, ba –inoan kolkorako–; mendian jaiok izanik, basatiak dira, izan eta. Behorrek berak batuko dauz nik baino erreza-go eta arinago».

Eta behorragana joan zan.

Ai ene Migel Fermin! Sasiartean zer aurkitu ebala uste dozue, irakurleok? Hantxe ez zan, ba, bere behor maitea hilik eta erdi janik?! Azpian, arrautza biak apurtuta. Zereko arrautzak, gero! Kalabaza, kalabaza handi bi ziran-eta arrautzatzat eukazan hare-ek. Eta behorkumeok, otso goseti bi izan!...

Ha saminaren handia Migel Ferminena! Sasi ondoan bertan konorte barik luze aurkitu eben gaixoa herritarrak solorakoan.

* * *

Seneratu zanentz? Nik neuk ez dakit. Ez nintzateke bape harrituko bertan hil zala esango baleuste.

Behorkumerik ez; eta behorra bera hilda, horraitino!...

XXIV

PETRA GAIZTOAGO

Irakurleok, ez dozue izan inoiz jakingurarik, gizona ala emakumea gaiztoagoa dan jakin-nahirik inoiz ez?

Nik izan dot, ba; sarritan, izan be. Baina, ahaleginik asko egin arren, ez neban jakin lehengo zapatura arte. Erramon eta Petrari jazorikoak jakinazo eustan.

* * *

Baziharduen arratsalde baten laietan gure senar-emazteok. Zeozer esan behar, ba, eta gure Petrari itaun hau egitea emon eustan buruak:

—Zu, Erramon: nor ete da munduan gaiztoago? Gizona ala emakumea?

Nor gaiztoago?! Nor gaiztoago?!... Kontxo! Atsegin izan jakon Erramoneri emaztearen itaun hau.

—Gizon gaiztoa gaiztoago, emakume gaiztoa baino —erantzun eustan aho betean, gizonen alde ondo esanik gozoena inoalakoan.

Petrak, baina, ezetz eta ezetz: emakume gaiztoa dala gaiztoago, eta emakume gaiztoa dala gaiztoago. Gaizto izatea zerbait txalogarri iruditu, antza, Petrari be...

Ordu erdi igaroko eben, gitxienez, ekinahaleko berbaketan, norberaren eretxia txapeldun jarri nahirik. Bai zera ezer garbirik

atera! Emakumea gaiztoagoa danik ez eban baieztuko, ezta ezer-gaitik be, Erramonek. Eta Petrak be ez gizona danik, nahi-ta begi bat emon behar izan!

Nork ete eukan errazoa? Erramonek ala Petrak?

Ni Petrak eukalakoan nago. Maltzurak halakoak, Erramon, urruntxuago joanda, bedar-ebaten zan artean, zer egin eban? Joan etxera; afaritarako eukan besigua ekarri, eta sokilpean sartu isil-isilean. Gero, Erramoneri deituta, laietan ekin eutsien biok barriro. Hiru-lau laiakada emon ebazanean, harrituta geratu zan Erramon. Zer eta, besigu eder bat ez eban, ba, atera laia-ertzean, dingilizka?!

—Berton jaiorikoa dok hori, Erramon, bertan jaiorikoa! —esan eutsan Petrak.

—Bai, e! Lurrean jaiorikoa! Kontxo! Holako arrain ederrik, horraitino!...

Eta besiguarenak berarenak baino begi handiago bigaz adi-adi egokon Erramon.



—Ederra ete dan, gero! —inoan behin eta barriro.

Gizajoak andreari sinistu egin eutsan, antza. Bai, ba! Emakume izanaz, gaizto eta guzurtia izango jakon, ba?

Guzurtia zanentz nik ez dakit baina, Erramon baino maltzurragoa zana igarten ez da gatz.

Afaria prestau behar ebala-ta, ordu eta erdi lehenago etxeratu zan Petra besigu eta guzti. Oriotan besigu erdia prestau eta, jan eta ostein, beste egunetako afaria ipini eban Erramonentzat: porrusaldea, gaztainak eta artozko esne-zukua.

—Petra, baina non dona besigua?

—Ze besigu eta besiguondo?!

—Laietan geniharduala aurkiturikoa.

—Nongo laietan, edo? Amesetan zabilz zu, Erramon.

—Ze ames eta ze arraio?! Ekarri eidana arin besigu hori.

—Ez dinot nik? Zoratu jako gure Erramoneri; burua galdu dau. Ai enebadaxua!...

Eta negar-sinuka urten eban auzora bere zorigatxaren barri emotera.

—Erramoneri zoratu, hatan be! —inoen harrituta auzokoak—. Erramon burutsu horrerri zoratu!...

—Halantxe da! Halantxe da! Soloan aurkituriko besiguaren eske ez jat, ba, hasi gaueon?

Sinisgor egozan auzoko Txomin-eta, Patxo-eta. Baina Erramonen ahotik besiguarena entzun ebenean, orduan ez eben izan gehiago eztabaidarik kolkoan. Zororik egoan bai, guztiz zororik. Eta sokaz lotu eben gizajoa.

Auzokoak etxeratu ziranean, oilo gangar baten antzera kar-kar eta kar-kar, barre-algaraka hasi jakon Petra Erramoneri.

—Sorginen bat sartu jana, ala, barruan?

—Bai sorginik! Txikia nok neu eta! Arratsaldeon ez hinoan, ba, gizon gaiztoa emakume gaiztoa baino txarragoa dana? Ikusi dok oraintxe. Besigua lurtean sortu zala esan, eta hik sinistu. Neuk sartu naioan, Erramon, neuk sartu naioan lurtean besigua, hi ala ni errazoidun gintzoazan jakitearren. Hondino be gizon

gaiztoa emakume gaiztoa baino okerragoa dalakoan egongo haz, eztok?

* * *

Ezezkoan nago ni; Erramonek aurrerantzean bestetara pentsauko ebalakoan.

Izan be, gero, emakumea, onean, ona eta zintzoa ei da; gizona baino hobea, dinoenez.

Baina gaiztakeria kontuan hasi ezker, nork aurea hartu emakumeari? Ez Erramonek, ezta gizona beste edozeinek be. Mutilak doguz eurok!

XXV

DON PAULINOREN PREFAZIOA

Bai, irakurleok; neu be horretan nago. Don Paulino abade tre-be, burutsu, eta nahi dozuen guztia izango zan.

Baina iluntze haretan behintzat, Patxo Zuetzaren mendietan zehar etxerantza etorrela, ez eutsan horrek guztiorrek askorik balio izan. Zer balioko, gero, usterik gitxienean eta inoren laguntasun barik aurkitzen zala, *Lukihandik* bidera urten eutsan eta!

Lukihandik bidera urten?! Ba ete dakizue, irakurleok, nor zan *Lukihandi*? Gizon bildurgarriagorik ez eben sekula ezagutu Don Paulinoren herritarrak. Nork esan inguruetakoko herrietan harek egindako lapurreta eta gaiztakeriak? Baina batez be ibiltariakaz zan bihozbakoa. Hamaika gizezkek eta emakumezkek, diru guztiak emon eta ostean, hartu eben haren eskutik berebiziko zigorradea! Hazurretarainoko bildurraz erabilzan *Lukihandik* inguruetakoko jenteak. Bihozgogorragoa zan gizona!...

Don Paulinori be ez uste berba onez eta agurka bidera urten eutsanik.

—Emoidazu dirua, ala berton garbituko zaitut —esan eutsan, puñal bat erakusten eutsala.

Dirua ala bizia? Musturreko bat emongo eutsan galanta Don Paulinok, ahal izan ezkeru. Baina *Lukihandiren* puñalaren aurrean, nork holakorik egin?

—Badamotsudaz, hartu eizuz diruok...

Azkeneko txakur txikia emon eutsanean, generatu eutsan *Lukihandik* Don Paulinori:

—Eta gero, kontuz, gero, inori ezer esateagaz! Ikusten dozu puñal hau?

—Inortxuri be ez, horraitino? –gozoro-gozoro Don Paulinok.

—Inori be ez!

—Aita-ama eta etxeakoai be ez?

—Ezta mutik be!

—Gizon edo emakumeai ez arren, Jaungoikoari berari behintzat ez ete deusat emon ahal izango, ba, zorigatx honen barri?

—A, bueno! Jaungoikoari..., ja, ja, ja!, Jaungoikoari, bai, emon zeinkio nahi bestean.

—«Jainkoari bai, orduan? Esango jeutsaat, ba, halako baten, hik eta besteren batzuk be entzuteko eran».

Eta iluntze haretan karterea hutsik eroango eban etxera Don Paulinok, baina burua, ez horixe! Asmakizuna izan eban polita!

Zein hartu ete eban, irakurleok, igarriko ete zeunskide? Abade izan, eta mezatan noizik behinean ahots altuan errezuak egin behar izanik, zein asmakizun hartuko eban, ba?

—Mezako errezu edo otoitzen baten ordeztu, *Lukihandigaz* mendian gertaturikoa esan?

—Berorixe, irakurleok, berorixe! Zuhurrak zaituet, gero!

Begiratu zelan jazo zan gauzea.

Askotxu itxaron behar izan eban, baina, azkenez, baetorkon, baetorkon *Lukihandi* eleizara. San Isidro egunez izan zan. Zeinen errez eta zeinen pozez begiratzen eutsan Don Paulinok sakristaiko ate-ertzetik *Lukihandiri*, koruko bazter baten egon arren!

—«Hau dok hirea!» –esan eutsan pozarren kolkoari. Eta gehiagoko barik, altarara urtenda, hasi eban mezea: «*In nomine Patris, et Filii...*».

Lukihandi, koru bazterrean jesarrita, bere gisako beste lagun bategaz berbetan egoan, noizik behinean barre-purrustada batzuk

eginaz. Ziur-ziur nago joandako egunetan Don Paulinori egin eutsana kontetan egokona.

Baina, hondino meza entzuteko ardurarik ez eban izan baina, Don Paulino prefazioa kantetan hasi zanean, gure *Lukihandiri* laster kendu jakozan berba eta barregurok.

—«Arraioa-arraioa! Baina zer esaten hasi dok abade madarikatatu hori?...».

Zer esaten? Heure bizitzako birtute eta eginen txalogarriak, mutil. Ez jak atsegin entzutea? Niri eta nire irakurleai bai, behintzat.

Ederto, Don Paulino! Ahots altutuagoan hori, ahots altutuagoan!

—... *Lukihandi* lapur bat eta gaizkilea dala dinotsut, neure Jaungoiko maite. Niri neuri kendu eustazan, antxina ez dala, neukazan txanpon guztiak, eta *edari epeltxu* bat edan eragin eustan gero: Jaungoikoari baino ez esateko. Horregaitik, hara ba, nik gaur esan zuri, neure Jaun Ahalguztidunorreri. Hantxe dago, koru bazterrean dago; atrapau eizue gizon hori...

Lukihandik, korutik jatsita, hanka egin gura izan eban. Baina ez eutsien emon denporarik; gizon eta emakume, eleizako guztiak, altzau jakozan kontra, eta lotuta juezagana eroan eban.

Don Paulinok San Isidro egun haretako baino *eskerrik asko* beroagorik ez ei eutsan aspaldian zeruari emon. Emongo be, bai gero?



XXVI

AZERIAREN BETEKADEA

Goiz haretan bai urten ebalá pozik azeriak bere habiatik! Sinistuko deustazue? Urdaila baloi bat bera baino be putzituago ekarteko asmotan urten eban.

—«Gaur? –inoan kolkorako—. Gaur egin behar joat, ba, egundoko betekadea. Zegaz edo hagaz; besterik ez bada, inguruko ardirik zaharrena berbera janaz. Baina goserik etorri ni neure habiara? Ezta, ezta herri-mutil guztiak harrika urteten badeuste be. Ez horixe!...».

Eta betekadearen itxaropenak kili-kili egiten eutsan urdailean; eta kili-kili honek ia barre eragin be bai.

Arrapalada baten, laster heldu zan beheko trokatik tontortxu bateraino. Bai pozik begiratu ebalá gure azeriak inguruetako baserrietarantza! Jantzan hasi ez jakunean! Eta, pozaren pozez barre antzeko bategaz haginak erakusten ebazala, hor joan jakun saltu-saltuka baserri horreetarantza.

Gitxien uste ebanean, harako moltso antzeko bat aurkitu eban bidean.

—«Zer ete dok berau? Jatekoren bat ete dok? Izan be, koipea, koipea dok! Nire betekadearen ederra!».

Eta ahoa zabaldu eta haginkadea emotera joakon. Baina gogamen batek atzerantza eragin eutsan:

—«Koipe hau jaten bajoat –esan eban kolkorako–, urdaila tanbor bat bera baino be putzituago ipiniko joat, eta gero ez joat besterik jan ahal izango. Hobe izango joat bertan itxi».

Eta kokoloak halakoak, koipea lehengo lekuan ipinita, aurre-
ra jarraitu eban.

Baserri baten ondora heldu zanean, kurrin-kurrin batzuk entzun ebazan.

—«Norenak ete dozak zaratok?» –esan eutsan kolkoari.

Eta, horma ganera igonda, ikusi eban norenak ziran. Zazpi txarri, zazpi txarrikume eukazan begien aurrean!!! Azeriaren poza!

Hiru saltutan heldu zan txarriak egozan lekuraino, eta ahots indartsuz esan eutsen:

—Geldi hemen, mutilak! Neureak zarie! Jan egin behar zaituet!

—Gu jan? Gagozan lohiokaz! Hobe izango dozu lehenengo hor pozu horretan garbitzen bagozuz.

—Tira, ba, tira. Baina ea arin ibiltzen garan, gosez nago eta.

Eta azeria, txarrikumeak pozura eroanda, banan-banan garbitzen hasi zan. Txarrikume koitaduoï ezagun jaken bildurra; dardarka egozan gaixook!

Jan ete ebazan? Gura bai, gura! Bien bitartean txarrikumeon ama etorri, eta jo musturraz eta hankaz gora ez eban bota, ba, azeria pozura? Bertan ito ez zanean! Urten ebaneko, txarrikumeak, iges eginda, han eukazan kortako ate ondoan barre-algaran eta burlazka.

—«Ederra egin jeustek! –esan eban azeriak guztiz minduta–. Hori bai dala inoren lepotik barre egitea! Baina, zertarako ernegau? Hondino eguna luzea joat. Eukiko dok, txotxo, ugari zegaz urdaila bete...».

Esan eban lez gertatu jakon. Beheko zelaira heldu zanean, behor bat aurkitu eban hiru umegaz.

—Neureak zaituet! –esan eutsen azeriak, aurreko kadera bategaz lurra jotzen ebala.

—Ni? Hazurra besterik ez nazanau, ni zuretzat janari?
—erantzun eutsan behorak—. Gozoagoak izango jatzuz neure umeok.

—Zu edo umeok, bardin deust. Baina laster zarie neure urdaillean.


—Mesede bat egin ahal izango zeunskit? —itandu eutsan behorak—. Arantza bat daukat atzeko kadera horretan, bai?, eta joan-etorri luzea egin behar dodanez, ba, arantza hori ateratea gura neuke.

—Lotsea behintzat ez daukana larregi hik. Tira, jaso eidana kadera hori!

Eta hasi jakon azeria arantzea ateraten. Baina, azeria urtena eta buruzorrotza izango zan baina, behorra gehiago, antza.

—«Hau dot nirea!» —esan eban barrurako. Eta bere indar guztiak batuta, itzelezko ostikadea hagin-haginetan emon, eta luze itxi eban azeria, konorte barik eta ahotik odola eriola.

Seneratu zaneko, behorak bere umeakaz hanka egin eban.



Kendu ete jakozan azeri barrabanari betekada-nahiak? Arraio-arraioa halakoa hondino prest egoan baten bateri narrua kentzeko.

—«Orain arte adarra jo jeustak polito jentemodu honek. Baina ikusiko joagu nork urteten joan azkenean garaile!».

Eta, sutan begiak eta ahotik bitsa eta odola nahastean eriozala, beheko errotarantza jo eban.

—«Ni gaur goserik neure habiara? Ez horixe! Beste piztirik aurkitzen bajoat aurkitu, horratino, behingoan joat, ba, neure hagin artean. Bai arraiotan!...».

Pausu gitxi barru, zarata bat entzun eban haratxuagoko arantza artean. Begiratu, eta ahuntz bat zan; iges egin guran egoan ahuntz zahar bat.

—Igeska, e, igeska? Ez dona, ba, alde egiterik, ez horixe! Neurea haut!

Ahuntz koitadearen larri eta estuak nork esan? Belauniko jarrita, negar-anpulutan, ia barbarik be egin ezinik, hasi jakon esaten:

—Ez naizu jan, arren. Zertarako jan, gero? Ez dozu ikusten, ba, zein zaharra eta okela bakoa nagoan? Askozaz gozoagoak izango jatzuz etxean daukadazan ume biak. Hiru hilebetekoak dodaz.

Azeria, ahuntzaren errazoi honeekaz, zer egin ezean geratu zan. Etxeratzen ixten baeutsan, bildur zan okerrekoren bat egin ez egion. Ixten ez baeutsan, ostera, betekada handirik ez eukan ahuntz haregaz.

—Ea, ba, joan eta ekarri eidazana umeok. Baina okerrekoren bat egiten badeustana egin, jakingo dona, gero, nor nonan. Artez ibili, badaezpadan be!

Eta ahuntza, zaharra zan baina, behingoan heldu zan etxera. Baina hain maite ebazan umeak azeriari emoteko?! Bai ondo be! Horretarako egoan!

Deitu eutsan jaubeari, eta ahal ebanik arinen kontau eutsan jazoriko guztia.

—Azeri madarikatu hori hondino be hemendik dabil? Neuk garbituko joat, ba!

Eta gehiagoko barik, hartu eskopetea eta urten eban kanpora jaubeak.

—Hor hago, e, arraioori? Plum!, plum!, bota tiro bi eta, siku itxi eban etxe ondoko sasiartetik begira egoan azeria.

* * *

Nork bota ete eban, beraz, egun haretan betekadea: azeriak ala jaubearen eskopeteak?

XXVII

DON FAKUNDOREN ERBIA

Asko maite eben herritarrak Don Fakundo. Abade bat bazan onagoa! Beti irribarrea ezpanetan; beti agurrik zintzo eta beroena, aberats zein txiro, guztientzat. Edozein mesede eskatu eikioen herritarrak, egingo eutsen eta. Eskuzabala eta behargin hutsa zan, beraz, Don Fakundo.

Eta gero bere atsedentxuak hartzen ebazala? Ondo irabazita eukazan, ziur.

* * *

Esan beharrik ete dago? Gure Don Fakundori –ondo ekien herritarrak– edo baserrietako soloak ikustera urten, edo eskopetea eta txakur pare bat hartuta ehizara joan, jakon guren-gurena. Otartetik erbia atera, tontortxu baten aurea hartu, eta plum!, bota tiroa eta erbia siku itxi... Hori zan, hori, Don Fakundorentzat munduko olgetarik atsegingarriena! Eta ez uste: ehiztari ona zan Don Fakundo. Hamaikatxu erbiren usaina eukien abadeareneko zartanak! Ondo ekian hau mendialdeko Patxok.

Arratsalde haretan –penatxuaz, baina– ez zan Don Fakundo ehizara joan; txakurrak falta ei jakozan.

Errezuen liburua besapean hartuta, inguruko solo artetik ibiltaldi bat egiteko asmoz urten eban kanpora.

—Arratsalde on, jauna! —agur egiten eutsien Don Fakundori hor-hemenka solo-landetan ebilzanak—. Gura dau berorrek txurrut bat?

Eta Don Fakundok agurrik zintzoenaz erantzuten eutsen; eta dzangada batzuk edan be bai, bero be egiten eban eta! Baina luza-roko autu-mauturik ez eban inogaz euki. Ez, ba; mendialdeko Patxoren soloak ikusi behar ebazala emon eutsan buruak eta. Ganera, mendialdeko Patxoren solo-landetan erbirik asko ebi-len... Eta baleitekean harri edo sokilen bategaz afaritarako erbi-ren bat eskuratzea.

Astiro-astiro, noizik behinean atsedean hartu eta errezuak egina-z, heldu zan gure Don Fakundo Patxoren lurraldeetara. Hamai-katxu bider damutu jakon eskopetarik ez ekartea! Upealako erbiak ez ebazan, ba, ondo-ondotxutik atera? Bai zera sokilakaz hil! Danak egin eutsien iges!

Baeroian bihotz-samin bat mendialdeko Patxogaz solo-hegal baten topez egin ebanean!

—Erbi asko, edo, Don Fakundo?

—Ez nok erbitan etorri. Baina ederrak ikusi joadaz horko lan-da horretan.

—Ikusi, eta atrapau ez?

—Ahal izan banaiok! Baina, nire sokilai barre eginda, iges egin jeustek barrabanok halakook. Ezin hauat, Patxo, gaueon erbi-afaritara deitu.

—Erbirik ez daukalako ez da izango behintzat, jauna!

—Ez dinoat, ba? Garaunik be ez jaroat gaur etxera eta!

—Eta goizeon bialdu deutsadana?

—Goizeon bialdu? Ez nekian ezer.

—Halantxe da, bai. Ederragorik ez dot aspaldion ikusi!

—Banekian nik bihotz onekoa hintzana! Lagundu nahi badeustak, gero, etorri! Bion artean jango joagu.

—Pozik be lagunduko neuskio. Baina ondo daki berorrek, baserrian beti lan asko. Neure osasunerako be jan dagiala, Don Fakundo! Ea bestetxu bat be noiz bialdu ahal deutsadan.

—Hurrengoa neuk, Patxo, hurrengoa neuk bialduko deuat ehizara natorrenean.

—Berorrek nahi badau, bardin. Agur, Don Fakundo. On egin degiola erbiak.

—On egitea neure kontura. Agur, Patxo. Hurrengora arte! Poz bat baeroian Don Fakundok iluntze haretan ezkaratzera!

—Ama, gaur afari ona, ezta?

—Bai, Fakundo, beti lez.

Baina Don Fakundok ez eban afaritan erbirik jan. Hurrengo eguneko bazkarirako itxiko eban amak... Halan uste eban behintzat Don Fakundok.

—Ama, gaur bazkari ona, ezta?

—Inoiz txarrik izan dozu ala, seme?

—Mendialdeko Patxok atzo erbi bat bialdu euskunez, ba...



—Gurera erbia bialdu? Ezta gorantzirik be! Niri neuri behintzat!...

—Ezta izango?!

—Dinotsudana, seme.

Barre egin? Betilunez jarri? Ez ekian zertara jo gure Don Fakundok, Patxoren adar-jote hau zala eta ez zala. Mundu hone-tan eroapena gauzarik beharretakoa dalakoan oheratu zan gizajoa eguerdiostekoa egitera.

Baina erea etorkonean esan behar eutsan, bai, arpegi-arpegira bere egikizun motz hau.

Erea berez etorri jakon, ehizara joan zan arratsalde baten. Artajorran aurkitu eban Patxo.

—Lanean ezta, Patxo?

—Bai, Don Fakundo. Eta? Erbia gozo egon zan, ala?

—Ziztrinori, gaur be adarra joteko umorez?

—Zer, ba? Erbia ez zan sueteraino heldu, ala?

—Ze erbi eta ze erbiondoko?! Neuk neroian jangurea besterik ez zan sartu gure suetean.

—Horraitino, Don Fakundo! Ba, nik neuk bialdu neban, ba, erbia berorren etxera. Horko sasiarte horretatik urten eban, eta nik esan neutsan: «Txotxo, joan hadi abadearenera!». Guzurra esan ete neutsan, ba, jauna, lehengo egunean?

Don Fakundok izan eban zati baterako barrea, Patxoren zitalkeria hau jakin ebanean.

—Erbi zein koneju, meriendatxu bat emon beharko deustak behintzat gaur adar-jote honen ordez!

Bai pozik emon be Patxok bere parroko jaun estimaduari. Eta ez edozelakoa, gero! Oilaskotik gora jan ei eben.

XXVIII

ZERUAK NAHI ETA EZKONDU BEHAR

Badira urteak! Baina hondino ez jat ahaztu behin Tomas *Lodiri* entzuniko hau: «Mutilzahar geratu? Ezta! Nahiago joat, neke-minez ahulduta, gazte-gazterik hil».

Tomas *Lodiri*, bai. Baina gure herrietako sakristauai ez derixie, antza, holakorik. Batez be nik ezagutu neban Krispin hareri.

* * *

Mutilzahar geratu baino lehenago hil? Ezkondu baino lehenago bai! Bestelako bizimodua jaroak mutilzahar batek! Andra eta semeen ardura barik, burukomin barik..., pepe eginda, mutil, pepe eginda. Gure Krispinek, behintzat, zoriontsu bizi zala inoan; eta heriotzara arte be zoriontsu biziko zala bera, Don Martinek gura baeutsan. Eta gurako ez eutsan, ba, Don Martinek halako sakristau zintzo eta fina eban Krispineri? Hamaika domeka-arratsaldez ikusi ebezan herritarrak euren mendi edo landetan zehar erbi edo oilagorren baten atzetik, edo abadeareneko balkoian autu-mautu gozatsuan! Eta autu-mautu horretan zer aita-tuko eben, ba? Eleiza eta sakristiako alkarren eginbeharrak, jakina.

Baina aspalditxuko domeka eta jaiegunetan behintzat baerabilien beste berbaketa jakingarriago bat: Don Martinek ezetz eta

gure Krispinek baietz, mutilzaharraren bizikerea burukomin gi-txiagoko eta zoriontsuagoa be badala eta ez dala.

Nork ete eukan errazoa? Apurren bat biok izango eben, segu-ru. Baina gure Krispineri holakorik baieztu eragin baino lehen, apurtu beharko eban eztarria Don Martinek. Krispinek berak eukan errazoi guztia; Don Martin oker egoan.

Zer egingo deutzazu, ba?! Don Martinek behintzat ez uste bere sakristauaren buru gogorragaitik askorik ernegetan ebanik. Bai zera ernegau! Burugogortxua izango zan, baina lagun han-dia eban Krispin. Eta alkarrerri txikitotxu bat eskintzen eutsiela, amaitzen eben beti euren autu-mautu luzea. Hurrengo domekan izango eben euren problema horrerri jirabira batzuk emoteko erea.

Eta izan be, gero, izaten eben apaxkadea, zigarrotxu bat erre eta dzangada batzuk edanaz. Baina Krispinek Don Martineri erra-zoirik emon? Ezta, ezta! Txarra be bazan-eta mutilzaharraren bizimodua.

—Txarra ez, baina ezkonduarena ez ete dok hobea? Ai Kris-pin, Krispin! Hi haz mutila, hi!

—Zer, ba?

—«Zer, ba?» dinostak? Don Martinek ez jok jakingo, beharba-da, baina nik bajakiat egunotan darabilana. Garbiñe atsegin jak, e?

—Garbiñe atsegin? Garbiñeeee... Baina, zer dinostak?

—Burubakoa haz-eta... Tirok, Krispin, ez hadi larritu. Neuk bakarrik jakiat. Eta heure alde naukak. Garbiñe hartu behar dok, bai, emaztetzat. Badakik andratxu ona eta ederra doana.

—Bai eta gehitxuago be!

—Zer, horraitino?

—Aberatsa dana.

—Hobetoago. Eta egin deutsak, ba, berbarik?

—Oraindinokarren ez. Baina pentsauta jaukaat zelan lehenen-lehenengotik Garbiñe amuan atrapau.

—Zelan, Krispin?

—Nik ez jakiat dakianik. Baina aspalditxuon jabilk Garbiñe hori, egunero-egunero hiru-lau eleizaratze egiten jozaala. Ederra halakoa, badakik zertan datorren? Senargei bat gura ei jok; eta hor jabilkok Ama Birjina horrerri arren eta arren.

—Eta?

—Begiratu eik, ba, niri zer otu jataan: altara atzean ezkutau, eta Krispin sakristauagaz ezkontzeko esan. On deritxak?

—Ondo baino hobetoago, Krispin. Banekian nik buruzorrotza hintzana. Eta, ezkonjaiak noiz izango joaguz, ba?...

—Ikusiko joagu, ba. *Negozioak* ondo urteten bajeustak behintzat, laster izan beharko.

—Ez eik eztabaidarik euki. Ama Birjina daukak lagun.

—Nik be halan uste joat. Pekaturik be ez dok izango handi-handirik holako ziri-sartzea be eta.

Gau haretan ez eban begirik itxi Krispinek: bihotza eukan pil-pilka beroan. Garbiñe emaztetzat! Herriko neskarik ederren eta aberatsena zan haxe bera! Holako suerterik, horraitino!

Beste egunetan baino ordubete arinago jagi zan ohetik, eta kantu-kantari jagi be. Heldu jakon Garbiñe emaztetzat hartzeko eguna. Hau poza! Don Martineri mezea eraso, sakristia eta altarako zerak konpondu, eta Don Martinegaz armozua hartuta, solora barik, goiz haretan eleizara jo eban barrero. Inor be ez egoan eleizan. Era polita altara ostean ezkutetako! Laster sartu jakun Krispin. Isil-isilik saguari begira dagoan katu bat irudian Krispinnek altara ostean. Kili-kili bat baerabilen kolko barruan..., gozogo! Garbiñe emaztetzat!

Hamar minutu barru, eleiza-ateetan zarata bat entzun eban. Garbiñe ete zan etorrena? Atera burua, eta begiratu eban eleizako ate alderantza. Ene bada! Bera ez zan, ba! Garbiñe bera! Pozaren pozez gure Krispineri bihotza lehertu ez jakonean! Eta Garbiñe artez-arte Ama Birjinaren altarara etorren. Mosu bat emongo eutsan orduan Krispinek, beroago! Altarako ertz batetik adi-adi jarri jakon. Garbiñe, burua esku artean hartuta, errezuan bero! Honetan -poztu zaitez, Krispin!- zutunik jarri, Ama Birjinagana

eskuak luzatu, eta inoizko berbarik nahitakoenak Garbiñeren ahoan:

—Ama, Ama maitea: senargei bat gura neuke, zeure gogoko bat.

Eta begirakunerik samurrenaz irudiari adi-adi geratu jakon Garbiñe.

Gure *Ama Birjinak* erantzungo ete deutso? Gura bai. Baina ahots lodi batek urteten baeutson urten?! Kontxo! Negargarria izango zan hori. Badaezpadan be, hobe lehenengo eztarria ondo-ondo gertu, edo Garbiñeren beste eleizaratze bateri itxaron... Baina ez eban izan horren beharrik.

Hara Garbiñe bigarrenez be otoizka:

—Zeruko Ama laztana, esan beit, arren: herritarren artean zein jat senargeirik egokiena?



—Sakristaua jatzu, alabatxu; Krispin sakristaua jatzu danetatik egokiena —erantzun eutsan oraingoan gure mutilak ahalik ahotsik meheen eta gozoenaz.

Eta? Garbiñek igarri ete eban Krispin zanik? Ezta antzik be! *Ama Birjinari eskerrik askoka* eta inoizkorik alaien abiau zan goiz haretan etxerantza.

Eta gure Krispin? Taupada beroan eukan bihotza. Garbiñe emaztetzat, horraitino!

—«Zeuri eskerrak, Garbiñe! Zeuri eskerrak!» —eta adurra be erion ahotik gaixoari...

Don Martinek ez dot uste egun haretan baino ikara handiagorik aspaldion hartu ebanik. Ez jakozan, ba, etorri Krispin eta Garbiñe biak besotik hartuta?

—Zer dakarstazue, enetxuok?

—Badaki, ba, berorrek..., zeruari ezetzik ezin leio emon eta.

—Ezkontzeko asmoz, ala?

—Holantxe, jauna, Garbiñeri Ama Birjinak agindu ei deutso eta.

—Ez dona izango, Garbiñe?! Ama Birjinaren agindurik izan dona?

—Krispinek dinotsanez, jauna. Aspalditxuon nentorkon senargei on baten eske, eta atzo goizean esan eustan Krispin berau nebala egokiena herrian.

—Holakorik, horraitino! Eta, Krispin, ez hinostan, ba, mutilzaharraren bizimodua hobea dala?

—Bai, baina, badaki, ba..., Garbiñe lako emazte bat dagoanean, ba...

Don Martinek ezin eban luzaragoan gorde izan kolko barruan eukan barregurea. Ezkongei biai bere zorionik zintzoe-nak emon, eta barruko gela batera eroan ebazan, neskameari pastel eta paitarra ekarteko agintzen eutsala.

Hilebete baino lehentxuago Krispin eta Garbiñe alkarren senar-emazte dakuskuz. Don Martinek ezkondu ebazan.

—E, Krispin! —esaten eutsan barre antzean Don Martinek alkar ikusten ebenean—. Ama Birjinak be, antza, nire eretxikoa izan behar jok, eztok?

—Baietz dirudi. Eta Jainkoari eskerrak esan beharko! —erantzuten eutsan Krispinek.

* * *

Krispinek lako Garbiñe bat euki ezkeru gure herrietako sakristau eta sakristau ez diran askok be ez ete leuskioe, gero, beste horrenbeste erantzungo? Ez ete leuskioe erantzungo, mutilzahar geratu baino ezkontza on bat egitea hobe dala? Probarik egitea balitz!..

XXIX

EZKONTZA-HAUSTE BAT

Bazan, ba, matrakea etxe haretan! Mutilak! Auzoko txakur eta katu guztiak alkarren kontra hasita be, ez dot uste Lorentzorenean izaten zan baino zarata handiagorik aterako leukienik.

Familia izango ebela ugaria? Ez, irakurle. Ez eukien semerik bat bera be. Lorentzo eta Toribi ziran honen guztionen egile. Senar-emazteok, ezkondu ziranetik, ez dakit bakezko egun bat igaro ebenik. Jesussss! Ha zan eztabaida eta errieta egin beharra! Egunean ordu pare bat igaroko eben, gitxienez, alkarrereri trapuzahar eta zeresan guztiak arpegira botaten. Lorentzok Toribigaitik ganora eta ardura bako alpertzar bat zala. Toribik Lorentzori diru-galtzaile, mozkorti galdu bat zala...

Bestaldeko Paulak-eta baeukien kontziertu eta musikaririk asko joandako urteetan. Ia gogait eginda be baegozan eta.

* * *

Paula-eta gogaituta, beraz? Gehitxuago egozan gure matrakalariok. Baten baino sarriago emon eutsen gogoak bestela biziko zirala baxotxa bere bidetik, ezkontzea hausita. Nork, baina, horrenbesterako bularrrik? Ez ziran ausartzen. Baina egunean baino egunean eztabaida eta matraka gogorragoak eukiezan eta, azkenean, bai. Nahi-ta mundu guztiak jakin behar izan, ezkon-

tzea hausi eta bakotxa bere bidetik joateko burubidea hartu eben.

Eta nora joango ziran, ba, ezkontza-haustearen bila? Abadeagana, jakina.

Irribarrez hartu ebazan Don Pedrok.

—Ezkontzearen haustea nahi dozue orduan?

—Bai, jauna. Ezkondu ginduzanez, ezkontzea hausteko ahalmena be badaukala berorrek entzun dogu eta.

—Ez zarie zoriontsu alkarren laguntasunean?

—Zoriontsu? Inpernuko demoninoak gehiago jakoz, jauna.

Eta Lorentzo hasi jakon emaztearen *birtuteak* azaltzen. Toribi mutik geratu? Bai ondo be! Laster itxiko eban narrugorrian Lorentzo gizajoa, Don Pedrok, berbea hartuta, isildu ez baleuz:

—Ondo dago, ondo dago, ene semeok; biok dozue errazoirik nahiko. Ondo baino hobeto egin dozue ezkontza haustera etortez. Eleizpera joanda, han itxaron eidazue apur baten; laster joango naiatzue.

Don Pedroren berba honeek oso poztu ebezan gure Lorentzo eta Toribi. Alkarregazko askatasuna! Holako zorionik!

Abadeak esan eutsen lez, eleizpera joanda, alkarren ondoan belaunikatu ziran, ezkondu ziran egunean lez. Etorri eitekean Don Pedro ezkontza-haustea egitera.

Etorri be baetorren, ba! Eleiz jantzi ederrez eta ospetsu, etorri be. Sakristaua ekarren aurretik kurutzeagaz; alboan mutiltxu bi argi banagaz. Eta berak eskuetan liburu bat, urbedeinkatu-ontzia eta isopua ekarzan.

Eleizpera etorrikeran Don Pedro ikusi bazendu, irakurle, zeuk be txapela kendu ezeze, errespetoz belaunak lurrean jarri be egingo zenduzala ziur nago. Baina eleizpe haretan egonda, Don Pedroren burutazinoak ezagutu bazenduz, barre-zantzoa ugari izango zendualakoan be banago.

Ezkontzako Sakramentua hausi? Lorentzo eta Toribi, buztarrian dagozan idi bi lez, askatu? Bai ondo be! Ezkontzako Sakra-

mentua olgeta bat da eta! Lezino on baten beharra eukien hare-ek, ez besterik.

Eta ez ardurarik izan, irakurle. Behingoan hartuko eben Don Pedroren eskuetatik...

Sakristaua kurutzeagaz aurrean, eta mutiltxuak ondoan eba-zala, gotzain jaun batek baino be ospetsuago emon eutsan hasike-rea funtzinoari Don Pedrok: «*In nomine Patris, et Filii...*». Gero, eleiz liburuia edegita, marmarozka latinezko zeozer irakurten eba-lakoa egin eban; minutu bi inguruan-edo. Otoitzak amaitu ebaza-nean berbalditxu bat be egin eutsen horren burubide ona hartu ebela-ta zorionak emonaz. Eta orain etorren ezkontza hausteko zeremonia edo egin beharrekoa. Eleiz liburuak ez ekarrela? Neu be horretan nago. Baina Don Pedrori ez eutsan hobeagorik buruak emon. Zer ete zan berau? Eleizpe haretan egon bazina, irakurle!

Don Pedrok busti eban isopua urbedeinkatu-ontzian, eta –ez zaitetz bildurtu, Lorentzo, ez da ezer; bedeinkazinotxu bat...– kaska!, emon eutsan buruan isopuaz. Gero, barriro isopua urbe-



deinkatuan bustita, beste kaskarreko bat Toribiri. Gero, barriro Lorentzori, hurrengo Toribiri. Honeri bat, horrerri beste bat, gero-ago eta abiada eta indar handiagoaz, kiski eta kaska, jo eta ke... Ene mutilak! Zelako bedeinkazioak ziran eurok! Burua erdibitu behar eutseen eta.

Eta, zer? Don Pedro gelditu? Baita zera be! Bere eginbeharri *leña* ekion: kiski eta kaska, emonahalean...

—Jauna, baina noiz amaituko dau berorrek ezkontza-hauste hau?

—Ai seme-alabatxuok! Min hartzen dozue? Hondino iraungo dau, ba, apurtxu baten.

Eta, larregi be bazala? Neuk be halan uste dot, irakurle. Baina Don Pedro ez zan, antza, gure eretxikoa. Kaskarrekoka jarraitu eban, senar-emazteai negar eragiteraino eta gehitxuago be bai.

—Ai ene!, ai! Don Pedro, amaitu bei hainbat arinen funtzinoa. Ai, ai, ai!...

—Min hartzen dozue orduan?! Jakin eidazue, ba, enetxuok, jakin behin betiko: ezkontzea ezin hausi leiteke, harik eta biotatik bat hil arte.

—Ezkontza hausteko biotarik bat hil behar? Eleiz funtzino hau horren gogorra bada, hobe dogu, Toribi, etxera joanda, ezkondu ginanean agindu genduan lez, bakean eta luzaro bizi.

—Goazen, Lorentzo, goazen hainbat arinen!

—Bai, seme-alabatxuok; holan egiten badozue, bizitza hone-takoa, eta geroko inpernua be aldenduko dozue zuekandik. Eta zerua lortu be bai, enetxuok!

* * *

Harrezkeroztik Paula Bestaldekok-eta ez eben denpora asko-rik igaro Lorentzoneko matrakak entzuten. Senar-emazteok ondo ikasi eben, antza, Don Pedroren lezinoa.

XXX

TOMAS *KIRRUREN* DISTRAZINOAK

Ume nintzanean, batek badaki zenbat biderrez esango eustazan Don Fernando eritxan maisu harek honako berba honeek:

—Txotxo, lezinoa ikasi eik; ikasi eik lezinoa! Beti hago albo-ra begira, distraiduta.

Eta batean zaplada bat, bestean belarrietatik tirakada bat, gaur bazkari barik itxi, bihar belauniko..., beti emoten eustan behintzat kastiguren bat. Kontxo! Gogorra ete zan, gero, nire maisu ha! Distraidu egiten nintzala-ta, ala!, zigorra *leña*!

* * *

Nigaz halakoa izanda, zelakoa izango ete zan Tomas *Kirru*-gaz, bere eskolan eta batez be bere ondoan euki baleu? Gizajoari oraingo belarriak atera ezeze, bizkarreko hazurrak be apurtuko eutsazan mila bider.

—Zer dala-ta? –itanduko deustazue, beharbada, irakurleok.

Zer dala-ta? Distraidua zalako galanta. Jesussss! Bazenkie jakin!...

Behin baten, mezea erasoten egoan eta, *Sanctusera* heldu zanean, ohitura danez, ba, kandlea izetzen hasi zan. Kokoloa halakoa bost minutu egongo zan gitxienez kandlea izetzen. Ezin,


baina, ezelan be izetu! Zera biztuko eban! Bonbilleak emongo eutsan, ba, sua?

Beste baten txapela oinean eta zapatea buruan ebala urten eban kalera; eta txamarrea praken ordeztu, eta txamarrearen ordeztu prakak jantzita be inoiz, ikusi ei eben lagunak.

Harako Don Martin indianuagaz gertaturikoa jat oso barregarri.

Distraidua izango zan baina, gure Tomas *Kirruk* ez eban erango gizartean lagunak baino gitxiago izaterik. Ez horixe! Besteak zinera joiazala? Laster sartuko jakun berau be bazterren baten.

Zapatu haretan Don Martin indianuaren ondoan jarri zan Tomas. Pelikula polita zan, antza, gau haretakoa. Tomas *Kirru* behintzat ahoa zabalik adi-adi egokon. Ete egokon, gero! Ardiren batek pikaka eginda-edo, behintzat azkurea izan eban ezkerreko besoan. Eta *Kirruk* –zeuok esan, ene irakurleok, oharreza zanentz– bere besoari egiten eutsalakoan, ez deutso, ba, Don Martinen izterrari hazka egiten?! Eta –honen harrigarria!– ezkerreko besoan gehiago azkurarik ez.



Baina halako baten, nire maisu Fernando barik be, izan eban gure Tomas *Kirru* gizajoak eskarmenturik nahiko; distrazino bate-tik etorritakoa, jakina.

Afaria janda, oheratu baino lehenago, atsegin be bajakon eta, zigarrotxu bat erreten hasi zan. Amaitu ebanean –zer egingo eban, ba!– zigarro-kondoa leihotik bota, eta lotara joateko asmoa hartu eban.

Baina –sinistuko deustazue?– oharbakoak halakoak, zigarro-kondoa izarapean itxita, ez deusku, ba, bere burua leihotik behe-ra jaurtiten?!

* * *

Harrezkero, ez dot entzun Tomas *Kirru* gehiagotan distraidu zanik. Ez, ba; hurrengo egunean kanposantura eroan eben eta.

XXXI

KUKUBEL SOINULARIA

Ba ete dago, gero, soinularirik herri osoa, abadea bera lehenen dala, jesus baten jantzan ipintekorik?

Kukubeltxu bazan, ba, horrenbesterako.

Hamaika txori euki eroiazan berak kantarituta, ahoa zabalik, mendian ardiak jagon bitarteetako txilibitu-joteaz. Eta ardiai be hamaika ordu gozatsu igaro eragin!

Hori guztiori, baina, asko izanda be, gitxi iruditu jakon egun baten. Jantzan eragiteko txilibitu bat lortu behar ebala emon eutsan buruak. Baietz eta baietz. Eta Ama Birjinari eskatu eutsan.

Emongo ez eutsan, ba Ama Birjinak holako txilibitu miragarria Kukubeltxuri, inguruetako neskatilarik zintzoen eta maitaleena eban hareri! Bai pozik be! Ene!

Eta zelako soinu gozokoa emon, gero! Bera entzunaz baka-rrik, ardi zein txori eta pizti guztiak barre-algaran eta jantzan hasten ziran ekinahalean.

Kukubeltxu ebilen pozik txilibitu haregaz! Ordutan igaroten eban gozoagorik Bizkargi aldeko larretan!...

Arratsalde haretan be Kukubeltxu, bere meriendatxua hartu eta Txuri txakurra lagun ebala, ardiak zaintzen joan zan mendira. Bero egiten ebalako-edo, asko jan ebelako-edo, behintzat ardi eta bildots guztiak pagadi bateko gerizpean etxunda aurkitu eba-

zan, hausnarka gozatsuan. Eta igarri ete dozue? Kukubeltxuri jantzaldi bat emon behar eutsela etorri jakon burura. Hartu txilibitua eta, jo eta jo hasi jaken. Ene bada! Han hasi zan erronomia! Ardiak euren bildotsakaz, txoriak txorietara..., ze polito eta gogotsu egin, gero, jantzan! Txakurra be bero ebilen; eta Kukubeltxu beragaz *baltsioan* egiteko gogoia baten baino sarriago izan ebalakoan nago.

Pozarren ebilzan eta, Kukubeltxuk geroago eta soinu politagoak jotzen eutsezan bere txilibitu barriaz.

Baina, berak ez ekiala, baebilen beste *pizti* bat be jantzan nahiko hurrean. Eta ez uste barre-algaraz ebilenik. Bai zera barre-algaraz! Oraingo sasiarteko arantza guztiak gorputz osoa zulotu eta odoletan ipini eutsien eta. Mutil ona egoan Don Bixente! Erbia hobeto atrapatuko sasiartean ezkutau, eta bera ez zan izan, ba, Kukubeltxuren erbi? Sorgin-sorgina halakoa atrapatzen baeban atrapau!...



Txilibitua isildu zanean, Don Bixente, ozta-oztaz baina sasiartetik urtenda, Kukubeltxugana joan zan. Kukubeltxuk hartu eban bildur-ikarea, parroko jauna eskopeteagaz-eta odoletan beragana etorten ikusi ebanean! Tioren bat hartu ete eban deskuiduan? Erruki bat emon eutsan gizajoak!

Baina Kukubeltxu bera bai errukarria!

—Sorginorrek —esan eutsan abadeak—, nongo demoninoak daukazana barruan? Ea neugaz arin herrira. Bihar hartuko dona, lotsabakoorrek, hartzekoa!

Eta ostikoka eta zipli-zaplaka eroan eban alkatearenera Kukubeltxu errubakoa.

—Alkate jauna —esan eutsan—, hemen dakartsut gure mendietako sorgin bat. Herri guztiaren aurrean urkatzea merezidu dau gitxienez. Begiratu gaur arratsaldean jazorikoa.

Eta Don Bixentek zehatz-zehatz ardien jantzak, txorien jolasak, txakurraren animoak..., eta, txarrena zana, bere arantza arteko komediak kontau eutsazan alkateari.

—Hori guztiori holan bada, ez dago ez bairik —esan eban alkateak—. Bihar goizean urkatuko dogu neskatila hori.

Hamaikatxu negar egin eban Kukubeltxuk gau haretan. Ardiak-eta pozarren euki erioiazalako urkatu egin behar ebela?! Zer txarrik egin eban berak horregaz? Ganera txilibitua Ama Birjinak emonikoa izanda!

Baina negarrak eta erostak ez eutsien ezer balio. Hurrengo goizean, herri guztiaren aurrean, urkamendira eroan eban alkateak Kukubeltxu.

—Azkeneko graziarik eskatu gura badozu, eskatu arin; laster jatortzu heriotzea eta —esan eutsan alkateak.

Eta Kukubeltxuk zer eskatu ebala uste dozue? Eskuak libre itxi egiozala, indar barik eukazala-ta.

Eta alkateak, egia inoalakoan, askatu eutsazan eskuak.

Orduan jazo zan gauza barregarria! Kukubeltxu, atera amantaltetik txilibitua eta, inoizko soinurik gozoenak joten hasi zan. Eta herri guztia, handi eta txiki, zahar eta gazte, ez zan hasi, ba,

ekinahaleko jantza eta barre-algara gozatsuan? Ene mutilak! Noiz ikusi ete zan halako erromeriarik herrian? Don Bixente bera be, lotsaren lotsaz gorri-gorri eginda baina, ez ebilen, ba, taun-taunka eta barrearen barrez ito beharrik?

Ordu erdiko soinua jo eutsan gitxienez Kukubeltxuk herriari. Eta isildu zanean, beste ordu erdiko txalo eta gorakaz erantzun be bai herriak Kukubeltxuri. Zelako soinu eztitsu eta zerutarra jo eutsen, gero, bere txilibituaz! Beraz, Kukubeltxu urkamendira eroan? Inork holakorik eskatu baleu, horraitino! Bera bai eroango ebalá herriak behingo baten, nahi-ta alkatea bera nahi parroko jauna izan.

Baina alkatea eta Don Bixente bera be Kukubeltxuren alde jarri ziran harrezkeroztik. Hazelako jantzaldia izan eben eurak be, bere txilibituaren kontura!

Ordubete geroago, Kukubeltxu, beste egunetan lez, txori, ardi eta bildotsakaz olgetan ebilen Bizkargi aldeko larra gozoetan.

XXXII

HIRU IKASLEEN BAZKARIA

Hamaika sasieskola eginikoa naz ni neure gaztaroan!

Baina Juanito, Paulino eta Estebanen ondoan santu bat izan nintzalakoan nago, santu bat. Hareek ziran mutilak, hareek!

* * *

Hur-hurreko herritxu batetik Bilboko ikastetxe batera zeozer ikasteko asmoz joanak ziran. Baina urte guztian ez dot uste hamar biderrez maisuak eskolan ikusi ebazanik. Piper egiten eben ia beti, piper. Diru apur bat baeukienez, jan-edan eta olgeteari emon eutsien gogotsu. Ha bai zala pepe eginda bizitea!

Baina patrikerek, lehenengo hartu ezik, ezin emon luzaroan dirurik. Eta berauxe gertatu jaken gure mutiloi. Piper bat erosteko be diru barik geratu ziran azkenerako. Diru barik, eta etxe barik; maisuak ez eutsen gehiago aterik edegi nahi eta.

Honegaitik guztiagaitik larritu zirala gazteok? Bai zera larritu! Nahikoa adimen zorrotz eta zitalkeriarik eukien hareek ardurara gitxigaz bizimodua aterateko. Ez ziran, ba, ikasle?

Bazkari on bat egin behar ebela emon eutsen behin buruak. Nondik, baina, atera bazkari hori? Behingoan asmau eben era polit bat. Batak okelea ekarriko eban; besteak ogia, eta hirugarrenak ardaoa.

Zelan? Nondik? Ez ardurarik izan. Mutilak doguz holako gauzetan gure ikasleok!

Hamar minutu barru, hor ikusi zeinke Esteban zaragi bat lepoan hartuta Bixente taberneruarenerantza.

—Eup, Bixente!

—Egun on, gazte! Ardaoa dakarstak, ala?...

—Berorixe, Bixente. Ni neu ez nozu ezagutuko, beharbada, baina Patxo taberneruaren morroi naz. Berak bialdu nau zaragi honegaz.

—Eta? Zer gura jok, ba, Patxok?

—Jentemodu *altua* ei jatorko aste honetan eta, badakizu, ba, ardao ona emon gura deutse. Hemen dakartsudan hau on-onik be ez danez, ba, hobeagaitik truke egin gura ete zeunskion-edo esan deust.

—Bai pozik be, holan bada. Mesede handiagorik be egingo neuskio nik nire lagun zahar Patxori.

Lagun zahar ona egoan gure Bixente! Gero taberneruak jente burutsuak dirala entzungo dogu, gero! Bixente lakoak izanaz behintzat, ez dakit, ba... Baina noizik behinean ez da etorten txar-to holako taberneru bat edo beste. Estebaneri itandu egiozue, ea; ea ezetzik erantzuten deusuen. Azeriak halakoak polito adarra jo eutsan eguerdi haretan Bixenteri. Urez beteriko zaragiagaitik ardao gozozkoaren truke egin eutsan eta. Txurruplanplinetan baeukien zati baterako!...

Bien bitartean, Juanitok-eta zelan ete erabilien euren *negozioa*? Ez uste behintzat Estebanek baino txarrago erabiliko ebenik. Buruezak be baziran eta!

Paulinok tratu eder bat egin eban herrian Txomin Bekortagaz. Bildots eder bat erosi eutsan. Zegaz ordaindu, ostera, txakur txikirik ez eukan eta? Ondo pentsauta eukan bere trasteria. Jau-bea eleizatik jakola-ta, bertara abiau zan Txomin Bekorta lagun ebala. Txomin eleizako ateetan itxita, barrura sartu zan jaubeari dirua eskatuko eutsalakoan. Baina barraban harek zer egin eban? Txomineri dirua ekarri, beraz? Bai laster be!

—Zu, Txomin, abadea daukazu itxaroten hor zokondo horretako autorlekuan. Diruak-edo emon gura deutsuz.

—Nongo diruak?

—Nik neuk ez dakit ezer. Sartu zaitetz eta jakingo dozu.

Zer ete zan, zer ez ete zan, heldu zan, ba, gure Txomin Bekorta abadeaganaino. Eta diruokaitik itandu eutsan.

—Diru bila hator autorlekura? Esan eik «Ni pekataria», eta autortu eizak pekatuak, bestela egingo dok eta.

—Zertako deitu deust, ba, berorrek?

—Nik deitu haudala? Ez jakiat noiz!

—Halan esan deust eleizatik urten dauen ikasle batek. Eta endemas dirua emongo deustala berorrek...

—Ai, Txomin, Txomin! Traturen bat egin dok, antza, ikasle horregaz.

—Halantxe da, jauna. Bildots bat saldu deusat.

—Saldu ala emon?

—Saldu, jauna, saldu. Diru askorik bageunka be holako erre-galuak egiteko!

—Ba, nik iii... bildots hori erregalau egin doala uste joat.

—Erregalau? Zergaitik, ba?

—Zergaitik? Ez deualako ordainduko. Lar be bajakiadaz nik estudianteen kontuak!

—Ikusiko dogu, ba...

Eta Txomin Bekortak, altara ez inora agurrik egin barik, tximista bat baino arinago urten eban eleizpera, estudianteari diruak kendu edo lepokada on bat emoteko ustez. Baina lepokadea berak hartu eban galanta! Ordurako Estebanek eta Paulinok bien artean hilda ezeze, narrututa be baeukien bildotsa Bilbotik kanpoko arboladi baten.

Ederto joaken gauzea gure mutiloi. Pozago egozan!

—Esteban! —inotsan Paulinok eskuak igurtziaz—. Okela eta ardaotan bajaukaagu egun batzuetarako. Juanitok ekarriko ete jeuskuk ogirik?

Hoba ekarri ez, hiruretatik bizkor eta urtenena izanda! Bost minutu barru euren artean zan. Zestokada ogia ekarri eban makala!

—Eta? Okelea eta ardaoa lortu dozuez, ba?

—Bai, Juanito; bildots oso bat eta zaragi bete *gorri* jaukaaguz hamen.

—Ez dok izango?!

—Ikustea daukak.

—Zuek zarie mutilak! Eta ez dozue larriunerik igaro?

—Bai zera larriunerik! Jaubeak bai igaro dituela mingotsak!...

Eta Estebanek eta Paulinok, barre-algara baten, kontau eutsiezan Juanitori euren apaxkada guztiak.

—Neuk be ez joat, ba, komedia gitxi erabili! —esan eutsen Juanitok, lagunen egikizunak entzun ebazanean.

—Guk bestekorik bai, gero?

—Bestekorik, eta handiagorik be, nahi badozue. Panaderuari ogiak kendu, eta zorren ordeztu, labatiba bat hartu eragin jeutsaat.

—Ja, ja, ja... Zelan izan dok hori, Juanito?

—Esango deusuet. Ogiak erosita, esan jeutsaat: «Zu, gero nik ez dot ekarri dirurik, gero! Ogion zorra hartu gura badozu, neure ugazabaren etxera etorri behar dozu». Ogiaren balioa hartzera etorri ez panaderua? Baita jaubea Durangon neukala esan baneutsak be! Baina mediku baten etxera eroan joat tontokiloa halakoa.


—Labatibea emoteko ala, Juanito?

—Horretarakoxe, mutilak! Panaderua atarian itxi joat lehenengo, gero medikuagaz berba egin joat, eta panaderuari gora igoteko esan... eta, nahitanahiez, *zer* hori emoten hasi jakozanean, hanka egin joat otzarakada honegaz. Zer deritxazue?

—Ederto baino edertoago! Estudiante buruezak gozala esango juek, gero. Gaur behintzat ez gozak izan. Ez horixe!

—Ez horixe! —baieztu eban Juanitok be, zaragitik txurru-planplin gozo bat egiten ebala.

* * *



Eta nik zer esan behar ete deutset? Tontokoteak dirala? Bai zera izan! Burubako batzuk ez dabe Juanitok-eta egin ebelako *negoziorik* egiterik. Orduan, zer esan?

«Egun on, mutilak; eta on egin deizuela!».

Egingo eutsen, arraiotan!...

XXXIII

TRISKILIREN GORABEHERAK

Ez zenduela ezagutu *Triskili*? Ez da izango?! *Triskiliren* antzekorik bai behintzat askotxu, nik uste.

Gizon ernegadu, pirri halako bat ez dozuela inoiz ezagutu? Ez eizazue esan ezetzik; etxetik urrun urten barik beharbada.

* * *

Halakoxea zan behintzat gure *Triskili* hau. Mila zorri gitxienez pikaka eukazala irudian; beti umore txarrez, beti artega! Hori baino ez balitz, baina! Txarren-txarrena bere emazteari emoten eutsan gerra eta burukomina zan. Mikaela gizajea! Hamaika bider entzun behar izan eban bazkaria txarto ipinita egoala, etxea garbi eukiten ez ekiala, hamar emakume be ez zirala gizon bat beste, eta ez dakit zenbat horrelako.

Baina, azkenez amaitu jakon pazientzia gure Mikaelari. Gogait eraginda eukan senarrak. Traskilak halakoak jakingo eban, ba, nor zan errazoidun! Eta bata-bestearen zereginak aldatu egin behar ebezala otu jakon.

Aurrerantzean Mikaelak berak hartuko ebazan solo-landetako lanak. *Triskilik* janaria ipini eta etxeko zereginak atondu beharko ebazan.

Guzurrik esan barik, *Triskilik* izan eban ordu baterako barrea bere emaztearen burutasun hau jakin ebanean.

—Kontxo, Mikaela! Baina, bizar apurtxu bat behar zeunke, ba, solo-lanetarako...!

Mikaelak ez eutsan ezer erantzun; baina bizarragaz zein bizar barik, hurrengo goizean goiz etxe atzeko soloan egoan, sokilak apurtzen ekinahalean.

Triskili goizeko bederatziak inguruan jagiko zan ohetik. Zirriki-zarraka, prakak lotzen ebazan bitartean, heldu zan ezkaratzeraino, eta hiru minutuko aharrausi bat egin eta gero, sua izetzen hasi zan. Sua izetzen, beraz? Arpegia bai eukala izetuta, gorri-gorri ordu erdi luzean biriki-hauspoi haizea atera eraginaz. Eta azkenean laban baino be soinean su gehiago. Ez jakon, ba, jake zati handi bat erre? Gero, ia erdia behera botaten ebala, esnea eskegi eban egosteko. Egosi zan, baina erre-usain bat baeukan, erre-usain bat!...



—«Egina eginda, eta kitu!» —inotsan kolkoari gure *Triskilik*. Eta hartu pitxar bat, eta sagardotegira joan zan, sagardo bila. Baina, sagardo-txorroari kinu maitetsuka egoala, ez dauz, ba, zarata handi batzuk entzuten ezkaratzean? Nor ete ebilen barruan?

—«Badaezpadan be, jakin hobe...!».

Eta *Triskili*, sagardorik munduan bazan be gogoan euki barik, arrapalada baten heldu zan suetera. Zein eta, txarria bera ez zan, ba, ezkaratzean ebilena?! Talo guztiak jan, esne-lapikoa ostikopean erabili, aulki bat apurtu, eta luze egoan gure txarria, inoizkorik zorionsuen, lozorroan.

Triskili jarri zan mutila! Hartu makila lodi bat eta, zist eta zast!, etxe guztian erabili eban aidean hara eta hona txarri gaixoa. Azkenean, itsu-itsuan, txarria eskilaratik behera bota eban. Nork esan han egin zan tortilladea?

Triskili, baina, ez egoan erostaka gelditzeko. Oraintxe gogortu eban sagardo-barrikea edegita itxi ebal... Jesus baten heldu zan sagardotegira eta, Aitearen, Semearen! Ha egoan ikusgarria! Barrikoa dana hutsituta, oilolokearen arrautza guztiak sagardo artean uger, eta oilolokea bera barrika ganean beste munduko gauzaren bat ikusten balego lez, kar-karka harrigarrian.

Zer egin ezean, jatordua be laster eta, gure *Triskili* zopa apur bat ipintera joan zan ezkaratzera. Baina hau tamalgarria! Ogia ebagi ordean, ez dau, ba, atzamar bat ebagiten?

—«Denganino-denganinoa! Hau be bai? Hau jazo behar niri? Holan ezin leiteke bizi!».

Eta inon diranak esanaz, Mikaelari deitzeko asmoz, urten eban etxetik. Bidean joiala, baina, behien morrosak eta astoaren arrantzak entzun.

—«Hori be bai? Horreek be ezer jan barik?».

Eta bedarsiku apur bat emotera joan jaken *Triskili*. Baina burubakoak halakoak ez dau, ba, pipea bedarsiku artean ixten, eta bedarsikuak ez deutso, ba, sua hartzen?! Jesus, Maria eta Jose! Gure *Triskilik* burua galdu ez ebanean! Idi-buztarriagaz orduantxe joian etxe ondotik Patxo *Handi*. Eta eskerrak honeri! Etxe

atzeko pozuko ur eta lehen esaniko sagardoaz ozta-oztaz amatau eben sua. Osterantzean agur *Triskiliren* etxea be!

Eginkizun honen ostean, izertzan egozan gure gizonok. Apaxkadea izan eben makala! *Triskilik*, merezidu be baeban eta, txurrit batzuk egitera eroan gura izan eban Patxo *Handi*. Baina, andreari deitu barik tabernara joango?

—«Ze andra eta ze andraondoko?!» —hasi zan bere kolkoari esaten. Andrea baino lehenago zan bera. Ganera, goiz haretan izan ebazan gorabeherakaz!

—Gaioazaan, Patxo, gaioazaan *gorriari* mosu emotera...

Ordu lauren barru, baserritar biok tabernan dakuskuz.

Bien bitartean, gure Mikaela nondik nora ete jabilku? Sololanen oso nekatu, eta, gizonak deitu ez arren be jatordua izango zala-ta, oraintxe etorren atxurra lepoan hartuta etxerantza. Ez uste *Triskiliri* zorigatxen bat jazoko jakon bildurrik ez ekarrenik. Gizajeak, goiz guztian izan eban bildur hau. Halako gizon ganorabakoari zer txarrik jazo ez, gero?

Etxera heldu zanean, ikusi eban Mikaelak bere burutazinoak ez zirala izan errazoibakoak. Etxearen itxurea aurkitu ebana! Ika-rearen gogorraz konortea galdu ez ebanean!

Eta, hau txarrena!, gizona inon agertu ez! Nondik nora izango ete zan bera? A, bai! Gerotxuago jausi zan kontuan: tabernan egongo zan, Gregorioneko tabernan. Izan be, hantxe aurkitu eban Mikaelak gure *Triskili*, Patxo *Handi* lagun ebala, mahai-azpi baten lozorroan, etxeko txarria baino zorientuago...

Bazkari barik, jakea erreta, txarria hanka guztiak apurtuta, sagardo-barrikea hutsituta, bedarsikua erreta... eta, hau guztiau gitxi balitz lez, inoizko mozkorrik handiena!

Gogortxua izan jakon gure *Triskiliri* egun haretako lezinoa!

Bai ondo ikusi ebala etxe-zereginetarako bere balio eza!

Eta apal-apalik, Mikaela gizajeari bere erruak autortuaz, parka eskatu behar izan eutsan.

* * *

Ez deritxazu, irakurle, *Triskiliren* antzeko beste hainbeste eta hainbeste senarreri be, esan dogun moduko *komediaren* bat ondo bai ondo etorriko litxakiela?

Niri baderitxat behintzat.

XXXIV

UME ALPERRAK DOZUZ, KLAUDI?

—Zer txarrik egin deusue, Klaudi, semeok? Beti zakustaz euron atzetik agiraka eta esanahalean.

—Ai, Felix! Zeuk bazeunkaz euki umeok, zeuk!... Ez zeuskit holakorik esango!

—Gaiztoak ete dozuz, ba?

—Gaiztoak ez. Baina alperragoak jatzuz, alperragoak! Ezin leiteke inora joan eurokaz. Hau agindu, eta jaramonik ez; beste hori agindu, eta bardin! Zer egin, gero, umeokaz?

—Ernegau, ezta, Klaudi?

—Ernegau, horixe. Eta ez gitxi, gero!

—Ja, ja, ja... Bai, ba! Ez zenduan inoiz entzungo Inazi alper-raren ipuina eta. Entzun dozu, Klaudi?

—Ez nik. Zer ete daukat, ba, bera entzuteaz?

—Zer? Adu eidazu, arren, eta gero esango deustazu ezer daukazuentz.

* * *

«Inazi, lehen esan deusudanez, emakume alper bat zan. Lanik egin? Ezta arean be! Ez lurrik atxurto, ez hazirik erein, ez jantzirik josi, ez surik biztu; ezer be ez eban inoiz egiten! Aita-amak itxi eutsienaz bizi zan; ez dakit zenbat urtetan holan.

Baina halako baten, diruak amaitu, eta txakur txiki bat bera be barik geratu zan. Jan-edana irabazteko lanean hasiko ete jaku Inazi? Bai zera lan egin! Zirkinik be ez alperrak halakoak! Auzokoak emoten eutsien zeozer, eta honegaz bizi zan. Auzokoak be, ostera, aspertu ziran denpora gitxi barru. Hobe eben txarria loditu, hareri jaten emon baino! Hondakinik be ez eutsien emon behar; ezer jan gura baeban, lan egin egiala beste guztiak lez.

Lanerako egoan andrea! Zein burubide hartu ebala uste dozu, Klaudi? Berak ez ebala lanik egin gura eta, lurpera bizirik eroan egiela agindu eutsen auzokoai.

—Lurpera bizirik, Inazi? Zeuk nahi dozun lez, zeuk nahi dozun lez! —erantzun eutsien auzokoak.

Eta bihozmin asko barik, hartu andetan, eta baeroien, baeroien andrea kanposanturantz. Bidean joiazala, inguruko emakume batek urten eutsen bidera.

—Nor hil jaku, ba, herrian? —itandu eutsen emakumeak arpegi larriz.

—Hil? Guk dakigunik inor be ez.

—Atautea hutsik daroazue, ala?

—Ez hutsik. Atxispeko Inazi daroagu barruan.

—Atxispeko Inazi! Neure lehengusinea! Eta bizirik daroazue?

—Bai, ba! Beronek gura dau-eta...

—Inazi, bizirik al zoaz kanposantura? Ez daukazu zer janik, ala? Ez eizu egin, arren, holakorik! Neuk emongo deutsudaz arto-aneга batzuk!

—Eihota ala eiho barik? —itandu eutsan orduan Inazik ataute barrutik.

—Eiho barik, andrea! Gitxi deritxazu, ala?

—Holan bada —jarraitu eban Inazik—, aurrera, gizonak, sepulturaraino! Ez nago ni arto-garaunik eihoteko!

Eta sepulturara eroan eben Inazi alperra».

* * *



Orain, Klaudi, Inaziren ipuina entzun dozun ezkeru, esan eidazu: honen alperrak ete dozuz semeak?

—Honenbestean be! Honenbestean be!... Baina badakizu, ba, Felix...

—Bai, Klaudi! Badakit nik, zu bestean ez arren, nahiko beharginak dozuzana semeak. Ez eizu erostarik egin! Eta inoiz holakorik sinistea gatx egiten bajatzu egin, ekarri gogora gure Inazi! Haren antzik be ete dau, gero, zure semeak alperkerian? Ez ba, Klaudi! Ez ete dakizu, gero, zuk holakorik?!...

* * *

Klaudiri irribarre gozo bat agertu jakon ezpanetan azkeneko berbok entzutean. Hoba jakin ez berak, Inaziren ondoan bere semeak fin hutsak ebazana! Baina eroste, ba; erostatxua Klaudik be, guraso guztiak lez.

Guraso guztiak lez, beraz? Zuek be, guraso zarien irakurle maiteok, Klaudiren antzera ohitura ete dozue semeakaitik erosta egitea?

Holakorik balitz, horraitino, badakizue erremedioa: gogoratu behin eta berrero Inazi alperraren ipuina; inork emoniko artagarauna eihoten eroatea be lar eritxala, eta abar.

Osagarri hau hartu ezkerro, egingo neuke Bizkai guztian be seme-alaba alper bat aurkitu ezetz!

Ez da, ala, egia, Bizkaiko umetxu maitegarriok?

XXXV

JOSETXU ARTZAINA ETA JIGANTEA

Ezagutu zenduen zuek Josetxu artzaina? Zuen edade ingurukoa zan, ba, mutiltxua; zolia eta behargina, inor izatekotan!

Goizetan, bere maletinxua hartuta, bestaldeko umetxuak lagun ebazala, taka-taka joaten zan eskolara. Eskolan lezinoak ondoen-ondoen ikasten ebazan berak, eta kuentak-eta bai polito atera, gero! Askok maite eben maisu eta eskola-lagun guztiak.

Arratsaldeko eskolara ezin joan, baina. Ardiak eukiezan etxean, eta eurak zaintzera joan behar eban mendira. Askok maite ebazan Josetxuk ardiak eta pozarren ibiltzen zan artzaintzan, batez be bildotsak jaioten ziranean. Olgetatan egiten eban eurakaz, olgetatan...! Nekatu arteraino.

* * *

Baina arratsalde baten gertatu jakon gertatzekoa! Ez jako, ba, agertzen erraldoi edo jigante handi bat, eta besoetan hartuta ez dau eroaten, ba, gure Josetxu maitea itzelezko kobazulo batera? Josetxuren estu-larri eta negarrak...!

—Hago isilik, kokoloori! —esan eutsan Jiganteak—. Hobe izango dok horko lapiko horretatik jaten badok, apur bat loditu haiten.

Josetxuk lapikora begiratu eban. Eta zer ikusi ebala uste dozue? Giza besoz eta hankaz beterik egoan lapikoa! Josetxu

bera be lapikoan egosi eta jan gura ete eban Jigante denganinokak?!

—Bai, mutil –jarraitu eutsan esaten negar saminean egoan Josetxu gaixoari–; hik be, lapiko horretan egotaldixu bat eginda, neure urdailera etorri beharko dok. Eta gozo egongo haz ziur, enetxuori! Ea orain isiltzen hazan, lo egin behar joat eta.

Eta giza izter bi janda, lotara joan zan Jigantea.

Bien bitartean Josetxuk asmau ebana igarriko ete zeunskide?

—«Negar egiteaz –pentsau eban kolkorako– ez dot irabazten ezer. Jigante arraio horrek hil eta jan egingo nau. Orduan, zer? A, bai! Jigante hori begibakarra da; lotan dagoan artean aterako deusat begi hori, eta gero ezin atrapau izango nau. Hau poza!».

Eta, esan eta egin. Hartu sutan egoan burduntzia, eta zast!, begi-begitik sartu eutsan lozorroan egoala.

Jigantea txilioka eta orroaka hasi zan, kobazulo guztian hara eta hona, Josetxu non atrapauko; ezin atrapau, baina. Orduan kobazulo-atean jarri zan, ardiak urten egien, izterrak zabal-zabalik ipinita. Eta hasi jakon esaten Josetxuri, ahotik bitsak urteten eutsala:

—Barrabasorrek, hik ez daukak, ba, urteterik! Berton, neure esku artean, hilko haut, hilko.

Eta urteten eben ardi guztiai ikutzen eutsen lepoan, ardiak ziranentz jakiteko.

—«Nik zer egingo dot orain? –inotsan kolkoari erdi negarrez Josetxuk–. Jan egingo nauela...! Baina..., zer? Zer jatort burura? Ez daukadaz, ba, berton ardi-narruak ugari? Euretarike bat lepoan ipinita, ardi banintz lez urtengo dot kanpora. Gogorapen argia daukadan hau!».

Sinistuko deustazue, irakurleok? Beeee...! eta guzti urten eban Josetxuk Jigantearen izter azpitik. Eta arrapaladaka hasi zan aldasbeheran.

Baina Jiganteak ereztun bat euki boltsilloan. Eta barrabana halakoa ez jakon, ba, hasi esaten: «Josetxu igeska, Josetxu igeska!»?

Orduan Jiganteak, dzaunba!, jaurti eban aldasbehera ereztuna, eta ereztuna –hau tamala!– Josetxuren atzamar-atzamarrean sartu zan.

—Hemen Josetxu! Hemen Josetxu! –inoan ereztunak, eta Jigantea aldasbehera gure Josetxu gaixoa atrapau guraz.

Orduan Josetxuk, ereztuna atzamarretik atera ezinda, atzamar eta guzti bota eban pozu sakon-sakon batera; eta etxerantzako bideari jarraitu eutsan.

—Hemen Josetxu! Hemen Josetxu! –inotsan hondino ereztunak Jiganteari, bertan egoalakoan.

Eta Jiganteak, Josetxu berea ebalata, plausta!, saltau eban pozura. Baina..., zer? Kokoloa halakoa bertan ito zan ereztun eta guzti; pozuan bertan.

Josetxuren etxekoak, bere estu-larriak jakin ebezanean, mosu bero-bero bana emon eutsien gaixoari, eta ardura handiaz osatu eutsien atzamarreko ebagia.

Bizirik urten ebanean, pozik. Hoba ez!



XXXVI

HIL BAT ZAINTZEN

Ez deustazuela sinistuko? Eta niri zer?

Baina Bartolo zapataria, hau eta handiagorik egiteko be bazala, hori beti esango dot. Hoba izan ez! Gizona dogun trebe eta odolotzaz!

Oraingo honetan zer egin eballa uste dozue, ene irakurleok?

* * *

Domeka arratsalde bat zan. Gizonezkoak, jakina, tabernara beti lez; eta tabernan ardaoa ugari. Eta ardaoak, badakigu, ba, burua berotu gitxienez. Morrokoneko Peru behintzat bero ebilen:

—Bartolo *Zapatari* bildurtuezina dala? Isilik egon zaiteze, gizonak. Baietz neuk ikara on bat sartu!

—Zereko ikarea sartu behar deutsak hik! Bartolo bildurtze-korik ez jagok inon, mutil.

—Bildurtu baietz! Postura!

—Baina, zelan bildurtzeko ustea daukak, ba?

—Hara: hil-soinekoz jantziko nok, ataute barruan luze jarriko nok hilda banengo lez; eta neuk jakingo joat zer esan eta zer egin. Gaez izan behar jok, gero! Gaeon, nahi badozue. Zuetariko batek emongo deutsazue enkargua Bartolori. Baina bakar-bakarrik itxi beharko dozue gelan.

—Ondo jagok, Peru; bajaritxaagu. Baina gero bereren bat egi-
ten badeua egin, hor konpon, gero!

—Ez ardurarik izan, mutilak! Ikusiko dozue Bartolo hori be
beste edozein bestean bildurtia danentz.

Iluntzeko seirak inguruan, Bartolok, dan-dan!, hots bat en-
tzun eban bere lantegiko atean.

—Aurrera!

—Gabon, Bartolo! Domekan be lanean?

—Zeozer egin behar, ba. Eta?

—Hemen natortzu, ba, mesede baten eske. Hil bat zainduko
ete zeunke gaueton?

—Bai nik. Nor da, ba, hil hori?

—Peru Errotetako.

—Ezaguna neban. Ze ordutan zaindu behar dot, ba?

—Gauerdi ingurutik goizalderaino.

—Eta alogerik izango ete dot?

—Baietz esan deuste. Eta afaria eta armozua be emongo deu-
tsuezala.

—Ondo dago. Bederatzietarako Perurenean izango naz.

Afari on bat janda, gaueko hamabiak inguruan, gure Bartolo,
bakarrik baina, tenplau-tenplau geratu zan Peru zaintzen. Tresna
eta guzti joan zan eta, zapatak konpontzen hasi zan ekinahalean,
Peru, lau argiz inguraturik, aurrean eukala.

Halako baten, baina, zirkin bat egin eban Peruk zerraldo
barruan.

—Um!!! Geldi egon, gero! —erremuskada egin eutsan Barto-
lok, kiski eta kaska zapatari-untzeak sartu eta sartu jarraitzen
ebala.

Handik gerotxuagora, zirkin handiagoak egin ebazan Peruk,
Bartolo bildurtuko ebala-ta.

—Ummm!!! —esan eutsan bigarrenez be Bartolok, mailua
erakusten eutsala—. Gero negarrak ez dau balioko, gero!

Peru, ostera, Bartoloren urtekerak gorabehera, baiezkoan
egoan oraindino, bildurtuko ebalakoan.



Ordu lauren barru, Peru, burua jasoaz, Bartolori adi-adi jarri jakon begi biribil-biribil bi erakusten eutsazala. Luzaroan ez, osterara...

—Ez deuat esan? Hartu egidak, ba!

Eta Bartolok, itzelezko mailukada bat bekoki-bekokian emonda, siku itxi eban, benetan hilda, gure Peru. Bartolori kopla gitxi!

Jazoriko hau jakin ebenean, ez eben izan larriume makala herritarrak! Bartolo herriko plazan urkatu egin behar ebala eskatu eutsien ahots batez alkateari.

Bartolok, baina, errurik ez! Ez eutsien, ba, hil bat zaintzen deitu?

Hori egin eban, ba, berak. Hori berori bakar-bakarrik!

XXXVII

POSTURA OSTEKO ZARATATXUAK!

Posturak gizasemeenak bakarrik dirala? Guk ez doguz gizonen artekoak besterik ezagutzen.

Baina antxina-antxina ez ei zan holan izaten. Abereak be alkarren artean berba ezeze, gizonari jagokozan beste gauza asko be egiten ei eben. Kontxo orduko abereak! Ez ziran, ez, oraingorak legezkoak!

* * *

Egun haretan –ez dakit domeka ala jairen bat zan– hartza, otsoa eta azeria ziran posturagile; astoa, juez. Inguruetako abere eta pizti guztiak postura ha ikustera joan zirala, ez dago esan beharrik. Batzuk hartzaren alde egozan, beste batzuk otsoaren alde; hirugarren batzuk, gehienak, azeriaren alde jarri ziran. Bai, ba! Azeriaren azkartasuna baekien eta.

Zelai handi bat autu eben posturea egiteko. Goizeko hamarrek ingururako prest egozan gure mutilok indarrak neurtu edo nor ziran agertzeko.

Zertaz izango zan, baina, posturea? Juezak esan beharko eban. Itandu eutsien, ba; eta asto zahartxuak erantzun:

—Hiru gauzetara izango da jokoa. Hiru parte honeetatik bi irabazten dauzana, haxe izango da saritua.



Kutxa batetik papertxu bat atera, eta irakurri eban gure astotxuak jokoaldiaren lehenengo numeroa: «Burrukan nor nagusi izan».

Ba, ba! Nor izango zan, ba, nagusi?! Hartza, haor, hartza! Halan uste eben ikusmira egozan guztiak; eta errazoia eukien, euki be. Hartzak irabazi eutsen beste biai burruka kontuan.

Abereak hartzari jo eutsiezan txaloak isildu ziranean, gure asto aguretxuak, betaurre eta guzti, bigarren papera kutxatik atera, eta irakurri eban:

—Bigarren partea, neure abere maiteok, hauxe dozue: «Zeinek urrunago ahotsa entzunazo».

—Hori dok eta, astotxu! Honetan behintzat baietz neu nagusi izan! —esan eban otsoak, pozaren pozez jantzan hasten zala.

—Baietz, gero! —erantzun eutsien hartzak eta azeriak—. Ikusiko joagu, ba!

Eta hartza izan zan lehenengo ahots egiten. Metro eta erdiko ahoa edegi arren, ez eban ahots handirik atera.

Hurrengo, azeriak egin eban ahots. Umetxu baten ahotsa irudian bereak: mehe-mehea, fin-fina. Bai zera lehenengo urten!

—Eta otsoak zer egin ete eban, ba?

—Zer egin? Atera eban ahausi gogorraz, adi-adi eukazan txori guztiak zugatzetatik behera jausi ziran eta! Eztabaida barik, berak urten eban nagusi. Bai horixe! Eta txalotan hartu eban, txalotan!...

Ene mutilak! Gure azeriak eukan baten bat zatitu beharra! Hiruretatik azkarrena bera, eta hondino baten be irabazi ez! Asto zahar danganinoa zan erruduna: zergaitik ez eban ipinten berak irabazi eikean jokoren bat?

Baketu zaite, azeritxu, baketu zaite, oraingo hau zeurea dozu eta! Entzun egiozu astotxuari, ea:

—Hirugarren eta azkeneko postura-aldi hau, neure anaia abereok, zeinek urrunago saltau izango dozue. Ea, ba, mutilak, azkeneko ekinalditxua!

Otsoari adurra erion ahotik astotxuaren berba honeek entzun ebazanean. Suertea eukan makala! Saltu kontuan, hartza eta azeria baino gehiago izango ez zan, ba? Hartza baino bai, ziur.

Baina azeriari irabazi ahal izango eutsan, gero?

—Irabaziko ez deuat, ba, gizajoorreri! —esan eutsan otsoak azeriari, katuak saguari begiratzen deutsan lez begiratuaz.

—Isilik egon hadi, isilik, harro galduori! Laster ikusiko joagu.

—Laster ikusiko? Ikusita jagok hori, mutil, ikusita.

Eta lau metroko saltua egin ebala-ta, harroputzituta egoan gure otsoa, azeriak bere erdi be egingo ez ebalakoan eta saria berea ebala ustez.

—Geldo madarikatuori! —burla egin eutsan azeriak—. Hi baino gehiago ez noala? Esango deuat oraintxe.

Eta abiadea hartuta, bost metro eta erdiko luze-laburra egin eban. Txalo-hotsa azeriak bere eginkizunaz atera ebana! Hartzak ez otsoak ez eben hartu haren bestekorik. Antzik be ez!

—E, otso! Orain belarriak apalik, eztok?

—Emoten badeuat emon, umegorriori!

—Emon bai emon! Neuk emongo deuat hiri oraintxe, neuk!

Eta zer egin eutsala uste dozue, ene irakurleok? Zer egin eutsala azeriak?

Lotsa larregirik be ez eukan eta, zist-zast!, *zaratat.xu* bi bota eutsazan arpegi-arpegira. Eta hantxe egoan haretx baten zuloan sartu zan.

Buztana agiri, baina! Eta otsoak buztanetik heldu! Hango komediak! Abere eta beste pizti guztiak barrearen barrez ito beharrik egozan. Azeria, ostera, min emoten eutsan eta, otsoaren hagin artetik buztana kendu ezinik. Eukan amorruez jan egingo ete eutsan, ba, buztan hori? Baita zera be! Azeria beti azeri, irakurleok, azeria beti azeri! Eta otso lelokoteari zer egin eutsala uste dozue? Buztanaren ordean ahoan zugatz-adar bat eukala sinistu eragin eutsan. Eta azeriak zugatz-zulo haretan lo gozatsu egin ezeze, astotxuaren eskutik joko-saria hartu be egin eban.

—Zelan baina hori, posturako hiru numeroetatik bat besterik irabazi ezta? —itanduko deustazue beharbada.

—Zergaitik? Ikusmira egozan abere eta pizti guztiak aho batez azeri barregarriarentzat eskatu ebelako.

* * *

Zuek be ez ete zeuntsien emongo, gero, postura ikusten egon bazinie?

XXXVIII

NIKOLASAREN JANTZI BARRIAK

Nik neuk ez neban ezagutu Nikolasa. Baina nire aitita zanari sarritan entzun neutsan berari buruz berba egiten.

Atso barregarria izan behar eban, inor izatekotan, aititari entzun neutsanez. Hamaika barre egin ei eban berak Nikolasaren lepotik! Urteetan hirurogei eta hamarretik gora eukiko ebazan, ardura barik; itxuraz behintzat gehiago be emoten eban eta.

Bere baserritxuan bakar-bakarrik bizi ei zan Nikolasa. Azaporru eta behi batek emoten eutsan esneaz, erregina bat bera baino be zoriontsuago bizi zan. Lanik gitxi eukan eta, ia egun guztia etxe aurrean igaroten eban aulki baten jesarrita, eguzkia hartzen.

—Behia esnetsu, edo, Nikolasa? —itantzen eutsien baserritarak, asto edo burdiagaz solorantza joakeran.

—Ni baino gehiago bai behintzat! —erantzuten eutsen Nikolasak, trankiltasunik handienaz.

Eta nahi ez arren be, egia inotsen biribila! Birtute askorik izango eban beharbada, baina zikotzagoa ei zan, zikotzagoa! Jesussss! Asmau be ez zeunkie egingo!

Basontzi bete ur emoteko be, ordu erdi luzean arren eta arren egon behar ei jakon eta.

* * *

Baina polito jo eutsan behin adarra herriko jostkileak. Aititari entzun neutsan lez kontauko dot hemen.

Urteak aurrera eta, Nikolasak be, seguru, ba, beste edozeinek lez, jantzi barri batzuk egin gura jaiegunetan-eta eleizara joateko. Hamazortzi urteko neskatilea irudian eta! Eta horretarako, jakina, edo jostkileagana joan behar, edo jostkilea bere etxera ekarri behar. Zergaitik ez dakit baina, bigarren hau iruditu jakon ondoren gure Nikolasari: jostkilea bere etxera ekartea. Eta auzoko mutiko bategaz bialdu eutsan errekadua Peru Anton jostkileari.

Mila bider damutu jakon burubide hau hartzea. Ez eutsan emon behar, ba, orain Peru Antoneri jornalaren ganera jan-edana be? Eta jan-edan honetan, jakina, josteari emon beharreko denpora ederra galduko eban. Baina behin berbea emon ezkeru, ez egoan atzera bihurtzerik. Eta gure Nikolasa iluntze haretantxe bertan hasi zan hurrengo egunerako mahaikoak gertatzen.

—Egun on, *Doña* Nikolasa! —agur egin eutsan Peru Antonek hurrengo goizean goiz.

—Halan Jainkoak emon! —erantzun eutsan Nikolasak, mahaia ipinten hasten zala.

—Jantzi barriak orduan, Nikolasa! Erromeriarako, edo?...

—Tira, Peru. Hurreratu zaitex eta gosaldu eizu; jantzi kontuak, gero.

Peru Antonek, apetitu ona ekarren eta, ez eban birritan entzun beharrik izan katilukada esnea garbitzeko.

—Peru, armozua be hartu gura badozu, gero, prest daukazu.

—Ekarri zeinke, Nikolasa. Kalterik ez deust egingo behintzat.

Eta lukainka, urdaiazpiko, koipetsua, eta abar laster izan ziran Peru Antonen urdailean.

—Bazkaria be jango zeunke, Peru? Prest daukadanez, ba...

—Zeuk gura dozun lez, Nikolasa, zeuk gura dozun lez. Esker ona agertzearren, baita afaria be nik... Zeuk esango dozu.

Eta bazkariaren ostean, afaria be asko kostau barik iruntsi eban gure Peru Antonek. Hazelako platerkadak jan ebazan! Inoizko biribilen jarri eban *tanborra*. Eta hiru minutuko autu-mautu



gozatsuaren ostean, patxada-patxadaz mahaitik jagi eta, bekoki-ko izerdia kentzen ebala, agur egin eutsan Nikolasari, esanaz:

—Nikolasa, parkatu baina, afari ostean lan egiterik ez dot ohitura. Jantzi kontuak hurrengorako itxi beharko doguz.

Eta Peru Anton pipea erreten sartu zan goiz haretan etxean. Eguna igaro eban atsedentsua Nikolasaren lepotik!

Gizajeak, berandutxu baina, gura ez arren be, lezino polit bat hartu eban egun haretan.

Harrezkeroztik, aitikak esan eustanez, eskuzabalagoa ei zan. Bai seguru!

XXXIX

MARTIN *TXILIBITU* ETA MITXIN

Orain arte beti entzun izan dot nik katuagaitik txarto esaten: pizti gaizto bat dala, on-egina esker txarrez ordaintzen dauela; maltzur bat besterik ez dala..., eta ez dakit zenbat honelako.

Neuk be ez uste, gero, katuakaz konfiantza handirik daukadanik. Hondino ondo gomutetan naz.

Eskolako kuentak-eta ateraten nengoala, katilukada bat esne-zopa ekarri eustan behin amak gelara. Gerotxuago jango nebala-ta, mahai ondoan itxi neban, ba, katilukada esne-zopea. Hiru-lau minutu barru hartu neban katilua esne-zopea jateko asmoz. Baina —joan eta atrapau eik!—, hutsik egoan. Etxeko katarrak jan eustan dana!

—Denganinoorrek, hartu behar deustak, ba, sekulakoa! Tri-pandi arraiorrek!....

Eta gelako ate-leihoak itxita, hasi nintxakon eskoba-makileaz jo eta ke, bazterrik bazter erabiliaz. Baina... katarrak berak, esne-zopen ganera neu be garbitu ez nindueanean! Hazelako txatxamurkadak egin eustazan arpegi-eskuetan! Begiak atera ez eustazanean! Beraz, katua pizti txarra ete dan, gero!

* * *

Baina Martin *Txilibit*urentzat ez zan izan, antza, hain txarra katua. Hondino antxina ez dala jakin neban.

Sei urte eukazala hil ei jakozan aita-amak. Hiru anaia zira-nez, hiruren artean zatitu behar gurasoak etxeko ondasunak. Ondasunak: errotea, mandoa eta katua besterik ez ziran. Anaia zaharrenari errotea emon eutsien; bigarrenari, mandoa. Eta Martineri, badakigu, ba, katua, katutxua bakarrik.

Beste anaiak gurasoakandik harturikoaz atera eikien bizimodua, lan apur bat egin ezkeru. Baina Martin *Txilibituk* zer egikean katuagaz? Burrukan gehienez be!

Hau zala-ta, triste-tristerik egoan gizajoa; burua erre kara botateko asmoa be etorri jakon behin baino gehiagotan. Eta bota be egingo eban, nik uste, katuak bere tristetasuna igarrita, itxaropen apur bat sortu ez baleutso.

—Zerk jarri hau, Martin, horren triste? —itandu eutsan behin ahotsik gozoenaz.

—Zerk jarriko nau, ba, Mitxin! Heugaz bizi behar ei joat aurrerantzean. Eta katutxu batek ze bizimodu jamostak niri?

—Hori baino ez badok, ez hadi larritu, Martin. Entzutea jaukaat horko baso horretan bizi doala jauregi eder baten gizon aberats bat. Duende-entzutea ei jaukak gizon horrek. Jauregira joan eta, neuk jakingo joat zer egin beragaz. Baietz *negozio* on bat egin! Ekarri eidak, ea, zapata pare bat mendian zehar joateko.

Zapata pare ezeze, okela-zati eder bat eta esne epela be emon eutsazan Martin *Txilibituk* horren bihotz handiko katuari.


—Ea suerte ona daukaan, gero!

—Baietz ustean naioak behintzat!

Agur eginda, duendearen jauregirantza abiau zan gure Mitxin. Ordu eta erdi inguruan heldu zala uste dot duendearen jau-regira.

—Egun on, jauna! —esan eutsan atea jo eta, edegi eutsanean.

—Baita zeuri be, katutxu! Zertan zatoz ona zapatatxuakaz-eta horren harro?



—Preminazko gauzarik ez dakart ekarri. Baina toki honetan entzute handiko jauna zarala jakin dodanez, ba, zeu ezagutu gurea etorri jat.

—Ni ezagutu! Eta zer dakartsu, ba, ni ezagutzeak?

—Ekarri, ezer be ez. Baina badakizu, ba, jakinguratxua... Zu, egia da dinoenez, duende zarana?

—Bai. Eta, zer?

—Jauna, nik iii... eskatu, ezer be ez. Baina gura zindukedaz, ba, duendekeria batzuk egiten ikusi.

—Hori baino ez bada, neure alde jokatzea dan ezkeru, pozik egingo dot zure nahia.

—Ezetz lehoi itxurea hartu? —katuak duendeari, gogotik adarra jo behar eutsala-ta.

—Hartuko ez joat, ba! Hara...

Eta ikaragarritzko lehoi baten irudia hartu eban duendeak.

—Ezetz orain sagu irudia hartu? —bigarrenez be katuak bildur-arpegia erakutsiaz...

—Sagu irudia ezetz? Hori errezago mutil, hori errezago!

—Ea, ba, ea...

—Hara, katutxu; hona hemen sagu bihurtuta.

—«Bai, e, sagutxu? —esan eban kolkorako gure Mitxinek—. Honen adi egon nok, ba!».

Eta zast!, lauhankaz bere ganera jausi, sartu haginak sama-saman, eta bertan ito eban sagu-duendea.

Jauregira heltzeko ordu eta erdi behar izan ebazan; baina etxerantzako bidea ordubete baino arinago egin eban. Izertzan, baina inoizkorik zorionsuen heldu zan gure Mitxin errotara arratsalde haretan. Sagu eta guzti heldu be...

—Martin! Martin! Barri pozgarri bat dakarrat!

—Zer jazoten dok, ba, Mitxintxu, zer jazoten dok?

—Ene, ene! Bahenki jakin! Jesussss!

—Zer dok, ba, Mitxin, zer dok? Sagu hori atrapau doala-ta, duendeak sariren bat emon deua, ala?

—Ze sari eta ze sariondoko?! Berau ez joat, ba, duendea, berau? Neuk hil joat!!!

—Ez dok izango, Mitxin?! Duendea hil hik? Isilik egon hadi!

—Baietz, ba, Martin; egia dinoadala! Begiratu eik, begiratu eik. Jauregira helduta, esan jeutsaat: «Ezetz lehoi irudia hartu?». Eta bat-batean lehoi izugarriaren antza hartu jeustak. «Ezetz orain sagu bihurtu?». Eta ez jatak, ba, sagu be bihurtzen? Nik orduan, zast!, heldu sama-samatik eta bertan ito joat.

—Hi haz mutila, Mitxin, hi haz mutila! Besarkatu naik!!!...

Besarkada beroa benetan Martin *Txilibituk* eta katuak alkarrerri emon eutsiena!

Hurrengo goizean goiz, Mitxin eta Martin, alkarrerri eskua emonda ikusi zeinkiezan jauregira bidean.

* * *

Nik neuk ez nebazan ezagutu. Baina pepe eginda biziko zira-la esan beharrik ez dago. Halako jauregi ederrean!...

XL

ORBELAUNGO AZERIA

*Aita Bitoriano Gandiaga
Orbelaungo seme eta adiskide maiteari*

—Orbelaungo azeria gizontxu bat ei zan ia.

Ia bakarrik? Praka, alkondara, abarka eta txapel eta guzti dabilen azeria ia bakarrik dala gizon? Ia, eta ia barik be esango neuke nik.

Eta ez uste, gero, nik bakarrik esango neukenik! Itandu zeinkioe, ene irakurleok, Orbelaungo Anastasiri. Hamaikatxu ordu gozo igaro eroiazan berak kontu-kontari azeria lagun ebalu suetan! Anastasi, emakume zanez, ba, beti egoan jakin gura: Gernikan jeneroa zelan ete ebilen, arrautzak zenbatean ete egozan, oilasko pareak zenbat balio ete eban, eta abar.

Azeria –zer esanik be ez!– pozik Anastasiren jakingura hau zala-ta. Erdia baino gehiago guzurra ziur, baina, pipatxua erreaz batera, bainotsan barri eta ipuinetan!... Zorrokadaka! Eta gero Anastasik meriendatxua edo hamarretakoa emon: katilukada gatzatua edo gatzai-zati on bat. Eta, honen ganera, gatzai pare bat afaritarako-eta eroateko.

Kontauezinak dira gure azeriak Anastasigaz eukitako berbal-diak! Hamar, hoge, berrogei?... Batek badakiz! Eta biak pozik, zein baino zein pozago!

* * *

Baina Mendatako Orbelaunen baegoan besteren bat azeriaren eguneroko joan-etorriak ondo ikusi ezin ebazana. Jose zan, Anastasiren senarra.

—Anastasi! —esan eutsan solotik etorri zan eguerdi baten—. Ez dakit, ba, ez dakit, ba, azeri horrek gauza onik dakarskun etxera. Gaztaiak urritzen doaz, urritzen, datorrenetik. Hobe egingo dozu gehiago aterik edegiten ez badeutsazu!

Anastasiri gogortxuak iruditu jakozan Joserren berbak. Hor-hango barriak ekarriaz ez eutsen, ba, mesederik asko egiten azeriak? Baina senarra, senar eta, baiezkoa emon eutsan, ez eutsala gehiago aterik edegiko azeriari.

Ez eban gure azeriak bihotz-sastada txikia hartu, hurrengo goizean Anastasik aterik edegi nahi izan ez eutsanean! Baina ez zan horregaitik haserre jarri.

—«Haserratzaz zer besterik jaukaat une mingots bat baino? —esan eban kolkorako—. Hobe joat egun batzuetan neure habian jaukaadazan gaztaiak janaz, bakean bizi. Eukiko jok oraindino Anastasik nire beharrik!...».

Ez zan oker egon azeria. Egun gitxi barru, Anastasik jakin-nahi handi bat erabilen kolkoan: gaztaiak saldu gura eta, zenbatean ete egozan Gernikan.

—«Ai, hemen baneuka azeritxu hori!» —inoan barrurako.

Eta azeria laster izan eban, ba, ate-joka.

—Egun on, azeritxu! Zeu zara, hatan be? Oraintxe egon naitazu, ba, zeure beharrik! Esan eidazu: zenbatean dagoz gaztaiak Gernikan?

—Saldu egin gura dozuz, ala, Anastasi?

—Bai, ba! Dozenatxu bat daukat eta.

—Ba..., bihozminez dinotsut baina, periodikuetan behintzat ez dator barri pozgarririk. Gaztai bakotxak bost pezeta besterik ez ei dauz balio.

—Ez da izango! Eta gaztaiok alperrik galtzen euki behar etxean!...

—Alperrik galtzen, Anastasi? Holakorik jazo baino lehenago neuk erosiko deutsudaz. Eta, jakin daizun, pezeta bat gehiago emongo deutsut bakotxagaitik.

—Ez da askorik! Baina..., tira, ba, tira! Holan behintzat ez dogu Gernikan beste galduko.

Eta gaztai guztiak saldu eutsazan azeriari. Hazelako kili-kilia eroian kolkoan gure morroskoak bere habiarantza joiala! *Nego-zioa* egin eban polita!

Josek, hau guztiau jakin ebanean, ez eutsan agiraka gitxi egin Anastasiri:

—Ai Anastasi, Anastasi! Ez neutsun lehen be esan? Zelan egin deutzazu jaramon azeri lapur guzurti horreri? Hamalau pezetaren galtzea egin dozu gaztai bakotxagaz! Hoge pezetan ei dagoz Gernikan!

Hoge pezetan Gernikan!... Izan eban Anastasik damurik nahiko. Baina ez egoan erremediorik; oraingo, gaztaiak ondo gordeta eukiko ebazan azeriak. Baina hartu eutsan amorru bat! Atrapetan baeban atrapau, horraitino, halako baten, berotu behar eutsan, ba, bizkarra! Azeri-azeria halakoa!

Egunak joan egunak etorri, gaztai batzuk be bai etxean eta, Gernikara bidea hartu eban Anastasik. Eta azeriak ikusi.

—«Orain be gaztaiakaz etorriko dok beharbada gure Anastasi!» —esan eban kolkorako.

Eta, sasiarte baten ezkutauta, zast!, zapatatxu bat bota eutsan bidera.

—Ene! Zapatatxu honen polita! Bitorianori bai etorriko jakola ondo —esan eban Anastasik ikusi ebanean. Eta itxi otzarea hegal baten, eta zapatatxua ikusmiratzen hasi zan.

Baina bien bitartean azeriak, zer? Edegi zorroa, isil-isilik sartu bertan gaztai guztiak, eta hanka egin eban bere habiarantza.

Nork esan, gero, Anastasiren amorru biziak, otzarea hutsik aurkitu ebanean?! Azeriagaitik inon diranak esanaz heldu zan gizajea etxera. Baina oraingoak be erremediorik ez; lapurretea eginda egoan. Ai azeriaren koitadua, bazterren baten aurkitzen

baeban aurkitu! Kostauko jakon beste baten holakorik egitea! Bai arraiotan!

Kostauko, beraz? Gure azeria ez zan behintzat eretxi bardinekoa. Astebete barru amaitu ebazan Anastasiren gaztaiok, bat izan ezik guztiak. Eta, beharrik egoanez, nora joko eban, ba, jateko bila? Orbelaunera, jakina! Anastasiren lagun zaharra zan, izan be eta!

Lagun zaharra bai, baina ez zan ausartu badaezpadan be aterik joten. Etxe aurreko laban sartu zan. Handixik ikusiko eban noiz urteten eben solora; eta gero, isil-misilean, leihotik sartu eta ostuko ebazan gaztaiak.

Txarto urten eutsan, ostera, azerikeriak gure mutilari. Anastasi, ogiak-eta erre behar ebazala-ta, ez zan hasi, ba, labasua egiten? Ai ene gure azeri gaixoa! Ume baten baino be ahots mehea-goaz txilioka eta sokorruka hasi zan, kiskaldu beharrik egoan eta!

Ikaratuta geratu zan Anastasi sokorruok entzun ebazanean. Bere Bitoriano ete eban? Amatau sua, eta... nor zan, gero, berau? Azeria zan, azeri lapur danganino-danganinoa! Hartu makila bat, oratu samatik, eta hazurrak eiho artean emonahalak emon eutsazan.

—Ala! —inotsan Anastasik—. Ondo merezita heunkan azeri barrabanorrek!

Eta prakapean eukan buztanetik helduta, sasiarte batera bota eban, hildakotzat.

Hilda ete egoan gaixoa? Bai zera hilda! Ze polito jo eutsan adarra sasi ondoan egoan Anastasineko astoari!

—Eroan naik, lagun —inotsan negar antzean azeriak—; eroan naik nire habiaraino. Bahenki jakin zenbat garaun eta pentsu gozo jaukaadazan neure zulo haretan! Eta eroaten banok, dan-dana izango dok heuretzat. Aloger gitxi deritxak?

Astoa hasikeran sinisgor egin jakon. Baina garaunaren gomuteak, kontxo!, kili-kili egin eutsan urdailean; etxean be ez eutsien emoten pentsu larregirik be eta. Eta baietz esan eutsan, eroango ebala.

Ikusgarria joango zan asto ganean gure azeria prakak-eta, alkondarea-eta, txapel eta guzti. Apur bat minduta, horixe tamala!

Baina ez uste; egun gitxi barru jarri zan guztizko ondoen, edonora joan-etorriak egiteko moduan. Astoari, barriz, pentsurik emon? Zigorradea bai ugari artagaraunagaz errotarantzako bidean. Hiru aste osoan erabili eban behar eta behar; eta jateko guztizat bedarsiku apur bat besterik ez eutsan emon.

Bien bitartean Orbelaunen larri ebilzan Anastasi-eta: astoa falta jaken. Bila eta bila, horko bazterrak ikusmiratu, hango idi-zainari itandu, azkenean azeri bategaz topez egin eban andreak. Azeria ez zan lehengoa itxuratik; zahartxuagoa irudian.

—Azeritxu —itandu eutsan Anastasik—, ikusi ete dozu egunotan astoren bat libre?

—Bai, Anastasi! Hor beheko troka horretan dago bat.

—Ai barrabana! Zelan iges egin ete deusku honaino alpertzarrak halakoak?!

—Neuk be, Anastasi, askotan esan deusat joateko etxera, hobe izango dauela-ta. Baina ez dau gura izan; libre hobeto bizi dala dino. Baina nik goizeon lotu egin dot.

Arrantzaka hartu ebazan astoak Anastasi eta azeria; arrantzaka, eta Anastasigana joateko katea apurtu gurarik. Baina azeriak orain be bere alde jokatu:

—Ez dozu ikusten, Anastasi? Barriri be iges egin gura deus astoak!

—Iges egin? Ez sekulakoetan!...

Eta hartu makila bat, eta bizkarra bero-bero egin eutsan gai-xoari.

—Tunanteorrek! —inotsan Anastasik—. Ea, gero, holakorik barriri egiten ez deuskuan! Um!!!

Eta katetik oratuta, txaka-txaka eta apal-apalik eroan eban etxeraino.

Azeria, jakina, Anastasiren atzetik sari bila. Merezidu dauenari Anastasik emon ez? Baita bihotz erdia be, besterik ezinean!

Sartu eban suetera; ipini eutsan mahaia, eta zartanekoa-eta, gaztua-eta gerturik eukazanean, hasi zan jaten gure azeri *ongilea*.
Apetitu ona eukan, gero, mutilak!

Baina jan bitartean berba be egin behar eta, Jose-eta, Felix-eta etxeko guztiak aurrean eukazala, astoarena barrero kontetan hasi jaken.

—Tunantea da, gero, izan be! —inotsen txurrit bat bota eta lukainka zati bat janaz batera—. Tunante bat da zuen asto hori! Ez dakit zenbat bider egon naiakon esan eta esan etxera etorteko eta etxera etorteko, eta berak ezetz eta ezetz; kanpoan hobeto bizi dala, eta ixteko bakean! Ez ete dau, gero merezidu, Anastasi, beste zigorradaren bat be?...

—Merezidu badau, laster emongo jako! —esan eban Paulinok.

Eta, gehiagoko barik, joan kortara, eta makilea eskuan hartuta bajoakon emotera... Baina, harritu zaitzeze, ene irakurleok! Astoa ez da hasten, ba, berbetan, sueteko guztiak entzuteko eran?

—Guzurti bat besterik ez da azeri hori! —esan eban—. Guzurti bat, eta bihozbako bat. Berak eroan ninduan beheko trokara Anastasik lepokadea emon eutsan egunean, eta hantxe euki nau behar eta behar, ito beharrik gaurdaino!

Ene bada! Zer inotsen, gero, astoak? Lehengo azeri lapurra ete eben, ba, bera?

—Egia dok, azeri? —itandu eutsan orduan Josek, samatik oratzen eutsala—. Egia dok astoak dinoana?

Baietz? Ezetz? Ezin eban ezer erantzun maltzurak halakoak, bildurraren bildurrez ahokadea be saman geratu jakon eta.

Baina egia zan astoak inoana. Haxe bera zan gaztaien lapurretea egin ebana! Gaztaiena bakarrik, gero? Eta errotara eroaniko artagarauna? Eta Mendatako beste baserrietan falta ziran oilo eta arrautzak? Nork ostu ebazan?

Orbelaungoak ez ekien ezer. Baina, bai! Azeri haxe zan honen guztionen lapur be. Gerotxuago Orbelaunera heldu ziran guardia zibilak jakinazo eutseen zehatz-mehatz dan-dana.



Orbelaungo ezkaratzean orduan izan zan teatro eta komedia-
ren handia! Ezin zeinkie igarri, ene irakurleok! Josek makila
bategaz, Anastasik burduntziaz, eta umeak arbi-buruakaz, hantxe
erabili eben aidean azeria.

Eta gero, eskuak lotuta, guardia zibilak kartzelara eroan eben
maltzur danganinoa halakoa.

* * *

Harrezkeroztik kartzelatik atera ete daben? Nik neuk ez
dakit. Baina harako gizon txiki, lepoker, arpegiluze, pipadun bat
inoiz ikusten badozue ikusi, irakurleok, kontuz badaezpadan be.

Ea, gero, Orbelaungo azeria dozuen!

XLI

JOSE MIGEL MAISU

Baserritar sendo askorik ezagutu dot nik neure bizitzan. Baina Jose Migel bestekorik, bat bera be ez.

Jose Migel zan gizona, Jose Migel! Berrehun kiloko harria leporatu baietz. Baita baserri-lanetan edozein atzetik itxi be. Oso langile zintzoa zan Jose Migel; eta ganera on-on hutsa, urrezko bihotz baten jaube zan.

* * *

Baina zezeil haretan, urte guztietan lez, ikustaldi bat egitera joan nintxakonean, beste bat eginda aurkitu neban Jose Migel. Ohean zetzan; argal-argal, kolore zuriz eta ezertarako gogo barik. Gizajoak gitxirako bizia eukan, itxuratik.

—Jose Migel! —esan neutsan agurrik beroena eginaz—. Zelan, baina, ikusten zaitudan era horretan? Hain osasuntsua beti izan eta.

—Bizitzearen gorabeherak, Felix, bizitzearen gorabeherak —erantzun eustan, irribarre antzeko bat egiten eustala.

—Zorigatxen batek jo-edo, Jose Migel?

—Nahiko zorigatxik dok, mutil, izan joadan hau. Itzelezko ezbehar eta burrukea sortu jatak gorputzean. Sortu, eta bereak egin be bai, ikusi ahal doanez.



—Horraitino! Jakin gura neuke, ba, burruka horren barri. Gogorra izan jatzu, dirudianez.

—Gogorra, Felix, sekulakoetan! Berbarik be ia ezin joat egin eta. Ahalegin apur bategaz, ea kontetan deuanan ahal joadan eran.

Eta Jose Migel gizajoa, bere indar guztiak batuta, arnasa apur bat hartu eta ostean, hasi jatan honako gertakizun hau kontetan. Jakin nebanean, harrituta geratu nintzan, neuri be beste horrenbeste jazo ete lekidan bildurrez.

Zer zan, ba, Jose Migeleri jazorikoa? Harrigarria benetan, harrigarria! Ez jakozan, ba, esku-oinak sabelaren kontra altzau? Esku-oinak sabelari emon eutsien gudea! Alpertzar bat zala, jan besterik ez ebala egiten... Eta bere lanetik jango baleu! Baina zantartzarrak halakoak ez eban, ba, jaten eurak irabazten ebenetik? Kia, kia! Holan ezin eitekean bizi! Inor pepe eginda biziteko,

nekatu eurak lanean? Ez horixe! Sabelak berak ezin eikean ogibideren bat ikasi, ala? Eurak behintzat ez eutsien gehiago janik emongo.

Sabelak zer erantzun ete eutsen? Baekian txarrean hasten bazan, ez ebala esku-oinokaz gauza onik izango; eta eurakandik harturiko mesede guztiakaitik eskerrik beroena agertu eutsen. Baina esku-oinai errazoi guztia ezin emon. Ez ete eutsien zor, ba, sabelari euren sendotasuna eta bizia? Beragandik ez ete eben hartzen, ba, sendagaia, ibili eta lan egiteko? Hobe eben alkarrerri lagunduaz bakean bizi.

Esku-oinak jarri ete ziran sabelaren esanetara? Bai zera jarri! Guzurti bat zala, barritsu bat zala; betiko leloa ahoan orain be. Leloa jo ezeze, bete be egin eben, arranook, buruak emon eutsen hau: sabela jan-edan barik itxi eben.

Zer jazo ete zan? Jose Migelegana begiak bihurtu baino ez daukagu. Hara hor ohean hazur besterik ez dala, gose eta egarriak hilobira eroan aginean. Sabela ezeze esku-oinak be guztiz daukaz motelduta. Euren eginkizunaz damututa, esku-oinak sabelari jan-edana emon nahi izan eutsiela? Sabelak ezin hartu, baina, ezer. Berandu zan, berandu!

—Felix! —esan eustan Jose Migelek, azkeneko besarkadea emoten eustala—. Berba bi esan nahi deudaz neure azken-agurra emonaz batera: ez eik inoiz uste izan norbera beretzat nahikoa danik. Inoren laguntasuna beharko jok biziteko. Laguntasun ezak badakusk nora erakarri joan nire gorputz ahuldu hau; laster naiagok ni hilobian. Baina lezino hau ikasten badok ikasi, poz bat erango joat neugaz. Agur, Felix. Maite izan eik beti batasuna, alkartasuna!

Negarra eridan gau haretan, etxera helduta, oheratu nintzanean. Egun batzuk geroago jakin neban Jose Migel lagunaren heriotzearen barri.

* * *

Beraz, Jose Migel, ni eta nire irakurle maiteok be hemen gaukazuz, geure eskerrik beroena agertzen deusugula: zeure bizitza bardinbakoagaitik, eta batez be, zeure heriotzearen orduan emon deuskuzun irakatsi eder horregaitik! Batasuna maite izango dogu; eta euskaldun garan ezkerok, euskaldunon arteko batasun eta laguntasun beroa. Anaia izango gaiatzuz, haor; eta anaiak lez jokatuko gure Herriaren ospe eta handitasunerako.

XLII

JULITXU ETA LIBETXU

Julitxu eta Libetxuren ipuina entzuten dodanean, negarra darit beti. Hain jataz maitekor eta errukior umetxu bi honeexek!

Gura dozue entzun ipuin polit samur hau?

* * *

Julitxu zortzi urteko mutiltxua zan; Libetxu, barriz, sei urteko neskatila eder-ederra. Neba-arrebak ziran biok, eta asko maite eben alkar. Lantxu bat egiteko edo olgetarako, ezin ziran bata-besteagandik aldendu. Pozgarrizko bizitzea, benetan, neba-arrebatxuok eroiena!

Baina..., ai ene bada! Zoritxarra gitxien uste danean etorri ohi da ate-joka edonora. Egun batetik bestera ez ziran Libetxu eta Julitxuren etxean ia ogi zati bat be barik gelditu, ba? Inguruetako herrietan sortu zan gosetea, baserri baketsu harexetaraino be heldu zan. Eta euren aitik eta amordeak, egurgintzan lanik asko egin arren, ezin eben umeentzako beste irabazi.

Zer jazoko ete jaken gizajoai? Gosez hil, beharbada? Hiltokotan etxean bertan hilko balira...! Baina hau baino txarragorik emon eutsan buruak amordeari:

—Ume tenteltzarrok —esan eutsan aitari— etxean negarra dariela, enbarazu egiten euki barik, piztien janaritzat mendira botaten badoguz, hobe egingo dogu.

Umeak mendian itxi? Seme-alabatxu laztan bi hareek piztien erpeetara bota? Pentseteak be ikara emoten eutsan aitari.

Baina gosetea geroago eta estuagoa; eta bihotz bako amordea be geroago eta gogorrago bere burutazinoa bete gurarik.

—Gizona! —zirautsan agiraka sutsuan—. Umeok kanporatu arte ez dogu onik izango etxean; guztiok hondatuko gara. Beraz, gorde daiguzan geure buruok, ume-ardurak itxita.

Aitak, azkenez, bihozminez baina, amordearen nahia baiezkoa emon behar.

Hurrengo goizean han joiazan mendi alderantza gure Libetxu eta Julitxu gaixoak, ogi zati bana jaten ebela, euren baserri maiteari agurka...

—Ez negarrik egin, Julitxu —esan eutsan Libetxuk nebatxuari, mendiko bakartadean negarrez hasi zanean—. Harri-kirri batzuk bota dodaz nik bide guztian, bai?, eta eurak erakutsiko deuskue etxerantzako bidea.

Cerotxuago loak hartu ebazan, eta izartu ziraneko, iretargi eder-eder bat eukien irribarrez zeru-goian.

Eta iretargiaren argia lagun ebela, tipi-tapa, tipi-tapa joiazan etxerantza harri-kirrik harri-kirri. Hiru ordu barru, etxeko portalean egozan. Bildur ziran deitzen eta bertan egin eben lo hurrengo goizeraino. Aitak, bere umetxu bihotzekoak barrero etxean ikusi ebazanean, pozaren pozez ez ekian zer egin. Amordea, barriz, inon diran agirakak egiten hasi jaken:

—Arranook, laster joan beharko dozue barrero be mendira; eta ez zarie etorriko, ez, tenteltzarrok, etxera! Abereak iruntsiko zaituee!

Esan eta egin. Gauerako, amordeak eroanda, Julitxu eta Libetxu baso sakon-sakonean, bakartade bildurgarrian, dakuskuz barriz be. Oraingoan, gaixoak, ez daukie etxera bihurtzerik. Jo harantza, jo honantza, eta geroago eta baso barruagoan aurkitzen dira.

Ume errubakoak, gosez eta bihotz ilunez hilik egozan oraingo, txoritxu baten txorrotxio-txio-txio politak entzun ez balebez.



Ze poza txoritxu maite harek emon eutsena! Eta kantu gozoak kantari ez ebazan eroan, ba, basetxe polit-polit bateraino? Ez dot uste nire irakurleak konturatuko liratekenik Julitxuk eta Libetxuk hartu eben pozaz! Ganera etxe ha dana zan jan eitekeana: teilatua opil bigun gozoz eginikoa zan; hormak ogizkoak ziran; leihoak, barriz, azukerazkoak. Ene! Gure umetxuak egin eben betekadea! Bertan biziko ziran biok poz-pozik aurrerantzean.

Baina basetxe ha sorgin-etxea izan. Nork esan ume koitadu haren ikarea eta larriunea hango sorgintzar harek besoetatik oratu eta ezkaratzera sartu ebazanean? Heriotzea bera nahiago izango eben, nik uste.

—«Oi, sorgin maltzur-maltzurra! –hasi zan sorgina beretzat esaten—. Poztu zeinteketz! Azkenean lortu dozu gura zenduana!!!».

Eta umetxu hareek aurrean eukiteak kili-kilizko zer bat egiten eutsan urdailean; eta adurra be jausten jakon ahotik. Jan gura

ete ebazan? Halantxe zan, tamalez. Lehenengo Julitxu jango eban; gero Libetxu.

Eta Julitxu gela baten sartu eban apur bat loditu zedin; eta Libetxuk etxeko zereginetan lagundu beharko eutsan.

Egunero joaten jakon sorgina Julitxuri loditzen zanentz ikusterera.

—Ea atzamarra! —esaten eutsan.

Baina Julitxuk atzamarraren ordeaz hazur bat erakutsi zulotik. Eta sorginak, ikuste gitxikoa zanez, Julitxu argal egoala uste eban beti. Baina itzarroteaz be nekatu zan halako baten... Egun haretan bertan jan behar eban Julitxu. Zorroztu eban kutxilloa, gertu eban galdara bete ur bero, eta labasua eginda, ogiak erre ezkerero, dana egongo zan prest. Hau poza sorginarena!

Labasua egin ebanean, sorginari Libetxu be jan behar ebala emon eutsan buruak. Zelan prestau, baina? Laban bertan erreko eban! Julitxu egosirik eta Libetxu erreta: bai plater gozoak izango ebazala egun haretan!

Esan eta egin.

—Libetxu, ea horko barruko ogi horreei buelta emoten deutezanan!

—Ezin naz, baina, haraino heldu...

—Tenteltzarrori, ezin hazala heldu? Neuk besteraldetuko jonadaz, ba.

Eta ringi-ranga, ringi-ranga, sartu zan sorgina laba barrura ogiai buelta emotera.

Orduan jazo zana! Sorginari burura etorri jakona ez dau, ba, Libetxuk berak egiten? Plaust! itxi eutsan labako atea, eta sorgin-sorgina halakoa, orroaka eta txilioka, bertan kiskaldu zan; bai, laban kiskaldu.

—Julitxu, Julitxu! —esan eutsan Libetxuk bere nebeari, gelako atea edegiten eutsala—. Poztu gaitez, askatuak gara! Sorgina laba barruan kiskaltzen itxi dot. Julitxu...!

Eta neba-arrebatxu hareen alkar besarkatu beharra! Hareen alkar mosuka jan beharra...!

—Sorgin-baso hau itxita, goazen hainbat arinen gure aitatzuren etxera! —esan eban Julitxuk.

—Bai, Julitxu; aitatzu negarrez egongo jaku beharbada eta —erantzun eutsan Libetxuk.

Eta Julitxuk bitxi eta balio handiko harri ederrez otzara bat bete, eta Libetxuk be bere amantaltxuan gauza eder asko hartuta, etxerantza bideratu ziran. Inon be galdu barik heldu ziran euren basetxe maiteraino.

Aitatzuri emon eutsiezan besarkada eta mosuak! Gizajoa, amordea hil eta bakarrik bizi zan. Baina harrezkero bai izan eba-la bizitza atsegingarri eta zorionsua! Julitxu eta Libetxu maite-maiteak eukazan lagun eta!!!

XLIII

DON MARTIN SERMOLARI

Hamaika izerdi emonikoa dogu Don Martin bere herriaren alde! Hogei urtetik gora bajatzuz bere herritarren abade izan eta gogorik zintzoenaz eurakaitik ahalegintzen dala.

Baina fruturik ikusten ez. Herritarrak beti bardinak: bihozgogorak, entzungorak, Jaungoikoak ardura gitxi emoten eutsenak. Zer egikean Don Martinek holako jentemoduagaz?

Domeka goiz baten asmo argi bat etorri jakon burura:

—«Oraingoan? —inoan pozaren pozez eskuak igurtzirik—. Oraingoan ikusiko dogu, ba, nor dan gogorrago: Don Martin ala bere herritarrak. Harrizkoak ez badira behintzat, dardara apur bat eragingo deusiet, ba...».

Heldu zan beluko mezea; eleizea bete-beterik egoan. Ebanjelioaren ostean, Don Martin, igon pulpitora, eta hasi zan esaten ahots sendoz:

«Entzule maiteok, beste mundura joan-etorri bat egin eta ostean natortzue gaur pulpito honetara. Ikaratuta natortzue benetan, bihotza taupadaka dodala. Ai ene! Eta zer ikusi dodala uste dozue? A, entzuleok! Samingarri jat esatea. Deitu dot zeruko ateetan eta itandu dot: «Badago hemen inor abade nizan herrikorik?». «Ez, ez dago inor be», erantzun deust San Pedrok.

Jo dot gero garbitokiko ateetan, lehengo itauna eginaz. Eta erantzun hau emon deuste: «Bat bakarra dago, eta berori hor barruko pozu sakon horretan».

Joan naz gero inpernuko ateetara, eta itaun bardina egin dot han be. Ze erantzun hartu dodala uste dozue? Hau neke-lorra, herritar entzuleok! Sinistu leiteke? Inpernu guztia herritarrez beterik dagoala esan jat. Txarrak zarie, benetan, herritarrok. Gaiztoak zarie, eta Jaungoiko Ahalguztiduna bere zigorra erakutsi hur-hurrean daukazue».

Isildu zan apur baten gure Don Martin. Eta arpegia esku artean hartuta, negarrez edo burutazinoren bat pentsetan dagoanaren antza emoten eban. Gerotxuago, norberagaz ezbai gogorrean ibili danaren arpegia erakutsiaz, barriri hasi zan berba egiten, esku-begiak zerurantz jasoaz:

—Bai, Jauna! Ez itxaron gehiago! Bialdu zeure zigor hori herritar gaizto guztien ganera; bialdu hainbat arinen!

Mirariaren miraria! Ez da, ba, suzko moltso handi bat eleiz zulo batetik jausten? Eleiza haretan sortu zan algara eta bildurikarea!

—Jaun artezori! —jarraitu eban indartsuago Don Martinek—. Ez zaitetz baketu herri honegaz. Betor zerutik zure zigor harrigarria...!

Eta bigarrenez be jausi zan eleiz goitik su-moltso ikaragarri bat. Nork esan hango negar-zotinak eta hango eleizatik urten gurak?

—Ez parkatu, Jauna, ez parkatu! —gogorrago Don Martinek—. Hartu dagiela behin betiko zure eskuaren zigorra. Kiskaldu dai-zala herritar gaizto guztiak zure su hondatzaile horrek!

Kiskaldu ete, beraz?

—Jauna! —erantzun eutsan arrebeak sabaiganetik—. Ez jat, ba, sugarri guztia amaitu?



XLIV

PRAISKUREN ZALDIA

Gau haretan Praiskuk ez eban begirik itxi; burukomina eukan makala! Ez eutsien, ba, zaldia ostu? Hamar mila pezetan erositako zaldi mardo-mardoa bera!

Lapur arraioa esku artean euki baleu euki...! Baina atrapauko eban, bai horixe! Eta orduan erakutsiko eutsan, ondo bai ondo, nor zan Praisku. Bai, arraiotan!

Hurrengo egunean, beste hiru-lau baserritar lagun hartuta, hamabost kilometrora egoan herri bateko feriara joan behar eba-la otu jakon gure Praiskuri. Beharbada bertan aurkituko eban osturiko zaldia. Otu bakarrik ez, gero! Eguerdiko hamabi eta erdietarako han ikusi zeinkiezan, jakea leporatuta, aldasgoran bost baserritar jator hareek. Praisku ekinahaleko berbetan joian. Ardaoak jotako bat irudian; baina ardaoak barik, zaldi-lapurreteak jota joian gizajoa. Hamar mila pezetaren balioko zaldia ostu, hatan be! Beste holakorik!...

—Baketu hadi, Praisku, baketu hadi —inotsien lagunak adarra jo gurarik—. Zaldi bategaitik horrenbeste erosta, daukaan dirutzeaz?

—Dirutzea bai, dirutzea! Atzo erosiriko zaldia gaur ostu! Badok dirua egiteko modua! Holan ez gaioazak inora.

—Feriara behintzat helduko gozak. Eztok, Praisku? Eta behin hara ezkerro, izango joagu salgei zaldi ederrik asko. Eta baleitekek heure zaldiaz be topez egitea... Orduan zaldia ezeze, multatxu bat be agindu ahal izango dok, Praisku. Ez deritxak?

Praiskuri —kostau zan, baina— itxaropen-izpi batek egin eutsan kili-kili kolko barruan, barre eraginaz. Baleitekean, bai, ferian bere zaldia aurkitzea!

Heldu ziran feriarra gure baserritarrok. Praiskuri, ardaozalea izan arren, ardaorik zanik be ez eutsan emon buruak. Bere zaldiaz egoan artega gizajoa... Nork itxi, baina, lagunak ardao-dzangada batzuk edan barik? Hutsune makala egin eutsien tabernako zargiari! Praiskuren zaldiaren osasunera edan eben. Eta ez uste, gero, Praisku bera txurrut barik geratu zanik! Umorea eroan eban makala lagunakaz tabernatik feriantza abiau zanean!

Hango hegalean egozan txahalak ikusi, haratxuagoko behiak ikusmiratu, beste bazterreko idi hareek neurtu... Hara eta hona hasi ziran gure gizonok. Praiskuk, baina, zaldi-mandoak egozan lekura joan gura izan eban; eta idi-tratuak itxita, harantza joakuz baserritarrok. Zaldi-mandotan asko egoan ferian: berrehunetik gora bai. Baina Praiskuri asko eutsan, nahi-ta mila egon, berea aurkitu ezean. Joan hara, beste alderantza egin, horko zaldi horreek ikusi, haragokoen haginai begiratu... Cogotsu ebilzan bost lagunok. Baten baino gehiagotan iruditu jakon gure Praiskuri bere zaldia ikusten egoala, baina apur bat aurreratuta, laster jakin be ez zala berea. Bihozberatu horregaitik? Ez horixe! Azkenengo ikusiko eban zaldia, haxe izango zan, beharbada, berea.

Eta sinistuko deustazue? Haxe bera izan zan, ba! Hantxe hegalean egoana! Burua tente zer eukan, gero, Pintok?!

—Mutilak! —deitu eutsen Praiskuk lagunai—. Erduze honantza! Aurkitu joat zaldia!

Izan be, egia zan inotsena: zaldia agertu zan.

Nongo demonino edo nor ete zan ostu eutsana? *Triskili* zan. Inork igarri barik horrelako lapurretarik asko eginiko *Triskili* ijitanua.



Triskili lapur? Berari esatea baino ez daukazue, irakurleok!
Gure Praiskuri kutxillada bat emon ez eutsanean...!

Baina egia, egia eta, Praisku be gogor bereaz:

—Bai, gizona. Zaldi hau neurea dala! Atzo ostu eusten.

—Arraioori, hondino be horretan hago? Urte guztian neugaz jarabilat eta, heurea izango dok?!...

—Urte guztian heugaz? Oker hago, gizon, oker hago!

—Mila pezeta postura!

—Baita bost mila be!

Eta Praiskuri berari otu jakon postorea zertaz izan. *Triskilik* zaldia zein begitatik itsua zan igarten baeban, bereak izango eban zaldi eta bost mila pezetok. Igarten ez baeban, oster, Praiskurenak.

Zaldiari eskuakaz begiak estaldu, eta itandu eutsan Praiskuk *Triskiliri*:

—Zein begitatik jagok, ba, itsu zaldi hau? Urte guztian heugaz darabilan ezkerro, jakingo dok...

—Hori be esan behar! Ezkerrekotik, mutil, ezkerrekotik.

—Bai, gero? Ez ete haz oker egongo? Begiratu eik zelan ikusten joan hemetik.

Eta Praiskuk, eskua kenduta, Pintoren ezkerreko begia erakutsi eutsan.

—A, bai! Txarto esan joat, oker egon nok; eskumakotik jagok itsu zaldia, eskumakotik —bigarrenez *Triskilik*.

Baina lapur lotsabako bat besterik ez zala agertzeko, ez besterako. Zaldia, ez egoan, ba, begi bietatik inoizko ikusterik ederrrenaz?

Eta *Triskilik* zaldia bihurtu eta bost mila pezetak emon ezeze, hilebeteko kartzelea be eroan behar izan eban.

Cure Praiskuk-eta Pintoren izenean bota eben tripaki-betekadea izan baleu, behintzat, han kartzelan egon zan arratsaldeetan!...

XLV

PATXI ERROTA MEDIKU

Hareek ziran larriuneak, erregearen hareek! Garbiñe, bere bihotzeko Garbiñe alabatxua hilzorian eukan. Hilzorian, erreinuko medikurik onenen ahaleginak gorabehera. Gaixoa, une batetik bestera ito behar jakon derrigorrean. Eztarri-etzarrarian katigatuta eukan hazurrak eroango eutsan hilobira bere alabatxu bakarra. Ha neke-lorra! Ha saminaren handia erregearena!

Ez ete eban eukiko erreinu guztian hazur kontuan asko ekian besteren bat? Halan balitz...!

Badaezpadan be, bere nahi hau erreinuko periodiku guztietan agertu eban hurrengo egunean.

Eta sinistuko deustazue? Hogeitik gora osagile edo osagile antzeko etorri jakozan jauregira, alabearen hazur hori aterateko prest. Baina guztien artean be, ezin izan eben gauza onik egin. Garbiñe koitadua gitxirako egoan. Ai ene bada! Erregearen erostak eta samin gordinak! Hil egingo ete jakon, beraz, bere begietako Garbiñe lazta-na? Bere bizitzearen argi eban alabatxuak betiko agur egingo? Ezin eitekean. Ezta! Ezta! Mirariren bat egingo al eutsan zeruak!

Eta, otoitzaren bitartez edo zelan ez dakit baina, iritsi eban behintzat miraria erregeak. Harrigarriagorik asmatzea be kostauko jatzue. Mirari hau, emaztea lagun dauela, gure Patxi Errotak egingo deusku.

—Patxi Errotak, hatan be! Ardao-edale galdu bat besterik ez dan horrek? —esango deustazue, beharbada.

—Hortxe dago, ba, mirariaren zera. Mozkortzeko ezeze, beste gauza on askotarako be balio dau ardaoak. Jakina, ba! Eta sinisten ez badozue, gure Patxi Errotak irakatsiko deustue egitez egia hau. Entzun, ea.

Patxi Errotak irakurri eban periodikuetan lehen esaniko erregearen osagile-eskaria. Baekian berak, nahi ezkeru, ardura asko barik be, Garbiñeri hazur bedeinkatua aterako eutsana. Baina, apaltasunez-edo, alperkeriaz-edo, ez eban, behintzat, erregearen jauregirantza pausurik emon.

Baina andreak jakin eban gerotxuago erregearen eskari hau. Eta bere senarraren trebetasuna argi zabalera atera barik egon? Josepak bere Patxiren taiua ilunpean euki? Ez horixe!

Joan erregeagana, eta poz-adurretan agertu eutsan bere Patxi hazurretarako urten-urtena, *espeziala*, zala.

—Jauna! —jarraitu eutsan esaten—. Lanean hasteko, baina, oso nagia dot senarra. Lehenen-lehenengo zigorkada on batzukaz hazurrak berotu beharko deustazuz.

—Hazurrak berotu? Hori ez jat ezer kostauko. Ea hainbat lasterren dakarstazun zure Patxi zorioneko hori.

Emakumearen maltzurra! Berari be, edanda egoanean, senarrak emoten eutsala-ta, beste hainbesteko zigorradea nahi eban bere Patxi gaixoarentzat be. Garbiñe osatzea? Asko ardura eutsan Josepari!

Baina gure Patxi Errotak —bihotz hobekoa zan eta— egingo eban miraria. Hurrengo goizean, Josepa bere senarragaz erregearen jauregira joan zan. Garbiñe gaixoa egoan lekura sartu zan. Eta erregea, gure Patxi Errota ezagutu ebanean, oso bihozberatuta gelditu zan. Zer onik egingo eutsan Garbiñeri baserritar baldar ezjakin harek? Eta erregeak bakarrik ez. Beste hainbeste uste eben Garbiñe zaintzen egozan osagile guztiak be: «Kokolo horrek, zer egin behar jok, tenteltzar halako horrek?».

Eta barreari emon eutsien.

Erregeak, fede askogaz ez baina, Garbiñe ikustera etorteko agindu eutsan Patxi Errotari: ea osatu ahal eikean, edo hazurra atera ahal eikion. Gure Patxik, oster, zirkinik be ez, guztiz ika-ratuta egoan hainbeste zaldun eta handikiren artean eta.

—Lepokada bat hartu barik, ez deusue ezer egingo alper horrek! —egin eban deadar hegal batetik Josepa bihozbakoak.

Zigorradea behar orduan? Emongo jakon, ba. Eta erregearen aginduz, gizon sendo bi hasi jakozan zirki eta zarka, zigorradak emoten.

Honeri guztioneri begira-begira egoan Garbiñe ohetik. Eta ez eutsan emon, ba, barreak, beretzat ekarririko osagilea halan ikus-tean? Kar-karka hasi zan, kar-karka gozatsuan. Eta halako baten, eum!, barre-algareaz batera, hazur zorioneko hori be bota eban. Bai, hazur danganinoa be bota!

Osatuta egoan Garbiñe! Osatuta bai, Patxi Errotari eskerrak! Nork susmau erregearen poza bere alabatxua arriskutik kanpoan ikusi ebanean?



Esker onik bihotzekoena agertu eutsan Patxi Errotari bere mirari harrigarriagaitik.

Ez ebala izan, beraz, meritu handirik? Dana dala, Garbiñe arriskutik atera eban. Eta gizajoari, merezidu be baeban eta, hoge mila pezetatik gora emon eutsazan erregeak.

Harrezkeroztik behintzat, baeukan dzangada batzuetarako. Eta hori zan gure Patxi Errotak begikoen ebana: ardao-txurruplanplina. Txurruta ezkerro, izango eban, ganera, andreak egin eutsan azerikeria ordaintzeko be.

Bai horixe!

XLVI

DEMONINOAREN ADAR ARTEAN

Ene mutilak! Astrapalots bat bazan ikaragarriagoa eleiza haretan, astrapalots bat!

Hango egur-hotsa! Hango jesarlekuen jaustea! Hango atedranbaladea!... Demoninoren bat gitxienez baebilen barruan; bai, ziur. Gizonezko edo emakumezkorik ez behintzat; iluntzean bertan hiru-lau minutu lehenago Juanitok, eleizan inor zanentz ikusita, atek itxi ebazan eta.

Ama Birjina Begoñakoa! Josepak-eta, Mikaelak-eta eleiz ondotik etxerantza igarotean hartu eben bildur-ikarea!

Demoninoren bat ete ebilen, beraz, barruan? Ala lapurren bat? Edo, beharbada, garbitokiko arimaren batzuk?...

—Mikaela, goazen hainbat arinen parroko jaunagana. Jesussss! Demoninook egin ez leikienik, horraitino!

Abadearenera heldu orduko, han eukazan deika eta garrasikagure emakumeok:

—Don Jose Migel! Betor arin, demoninoak dabilz eleizan eta! Arin, jauna, osterantzean eleizea behera bota behar dabe eta. Ai Jose Migel! Badauka lanik konjuruak egiten! Demoninotan ibili behar dau eleizan, demoninotan!...

Abadea, etxetik urtenda, behingo baten joan zan sakristauari deitzera; bere eleizkizunetan beti izaten eban lagun eta.

Sakristauak, jakina, joan nahi ez. Demoninoaren adar artean jausteko? Bildurra eutsen makala demoninooi! Mikaela-eta, Josepa-eta lagunik nahiko ebazan.

—‘Amen’ esan besterik ez dok egin beharko, Luziano. Eta, egitekoan be, hiri ez deue ezer egingo demoninoak, neuri baino. Tira, hator, gizon, hator hainbat arinen, pizti barrabanok eleizan triskantzaren bat egin ez deiguen.

Luzianok, baina, ezetz eta ezetz. Bildur-ikaraz dardarka be ez egoan, ba, gizajoa? Abadeak be ez uste, gero, kolko barruan halako kili-kili edo pikakada batzuk sentiduten ez ebazanik. Baina eleizea bere kontura eban eta, ezeren jaramon barik, nahi-ta demoninoak eurakaz eroango baeben be, eleizea zaintzera joan behar eban berak. Luziano barik zelan, ostera?

—Hator, Luziano, hator! Hara, lehen be esan deuat: urrin-urrintxutik neuk esango dodanari ‘Amen’ erantzun besterik ez dok egin beharko. Horixe bakarrik. Tirok, Luziano; hartu eizak eleizako giltzak, eta hator, Josepa-eta be lagun izango joaguz eta.

—Don Jose Migel! Badaezpadan be, demoninoak nire kontra etorten badira etorri, zuhur ibili, gero! Bota konjuruak sendo!

—Bai, Luziano; ez eik izan bildurrik...

Bildurrik ez? Sakristauarenetik urtenda, eleiza alderantza joiazala, ez neuke esango zeinek eroian dardararik handiena: hirutxuak be alkarren antzean gizajoak.

Abadea joian lehenengo, atzetik Josepa eta Mikaela, eta azkenengo, hamar metro atzeragotik, Luziano, erdi makurrik eta zaratarik ez ateratearren behatz-puntetan. Heldu ziran eleizpera. Belarriak zuhurtu... eta —hau miragarria!— eleizea isiltasun bake-tsuan; zaratarik txikienik be ez zan entzuten barruan. Iges egin ete eben, ba, demoninook?

—Don Jose Migel! Ez bedi, arren, bihurtu etxera konjuruak egin barik. Demoninoa dan maltzurraz, bereren bat egingo deusku osterantzean eta.

—Maltzurra ete dan hau, gero! Baina dana dala, hemen badaogo egon, laster joan beharko dau inpernuko sakonera nire konju-



ruen indarrez. Bai horixe! Ekarri eidazuz, ea, Josepa, eleizako giltzok.

Emon eutsazan. Eta abadeak krisk-krask baten eleizako atek edegi be bai. Baina... –ikaratu zaitez, ene irakurle– ez dakutsu, ba, gure Don Jose Migel demoninoaren adar artean aidean? Eta emakumeen txilioak!... Eta Luzianoren arrapaladea!...

—Luziano! Demoninoak narovala! Demoninoak narovala! Lagundu eidak! Hator, Luziano, hator!...

Luzianok, baina, bere narrua gorde nahiago. Eta ‘Amen’ esanda, bere etxera iges egin eban tximisteak baino arinago.

Eta Don Jose Migel gizajoa, bere konjuru eta guzti, demoninoak eroan azkenez! Holakorik!

* * *

Beraz, demoninoak eroan ete eban? Ja, ja, ja... Barrea izan eban gozatsua herriak, jazoriko hau jakin ebanean.

Juanitok atea itxi aurretik, eleizan sarturiko aker handi bat ez zan, ba, gure zorioneko demoninoa?

XLVII

SANTIAGOETAKO SERMOIA

—Hori dok sermolaria, hori! Horren etorria eta horren eztorria! Indabea edo zeozer jaten jok, behintzat, aita fraile horrek! Kontxo!...

Eta pozarren joiazan baserritar hareek holako autu-mautu eta zeresanetan.

Izan be, gero, bazkariaren hurrengo, hori jaken atseginen jaiegunetan: eztarri oneko eta etorri hobeagoko aita sermolari bat. Baju-bajutxuan hasi, apurka-apurka ahotsa loditzen joan, itzelezko tronpeteria atera, eta honetan... ra!, eskuak zabalik eta begiak zuri-zuririk ipiniaz, isil-isil geratu; eta gero barrero ekinahalezko jarduketan jarraitu. Holakorik? Holakorik ez egoan ezta, ezta mundu guztian be!

* * *

Santiagootarako be, horren sermolari gartsurik balekartse ekarri parroko jaunak!...

Baietz esan eutsen Don Luzio; ahal izan ezker behintzat, ekarriko eutsela euren gustuko sermolari bat.

Eta Santiago bezperan, iluntze aldean, heldu zan abadearenera aita sermolaria. Morroskoa zan makala! Baita eleizako hormak behera botateko be baeukan harek ahotsik. Abadearenera sartu-

keran, Mikaelak-eta ikusi eben frailea. Eta badakizu, ba, emakumeak ezin ezer isilean gorde... Laster zabaldu zan herri osoan aita sermolaria etorri zala, eta morroskotea zala ederra.

Oso poztu zirala, ez dago esan beharrik; batez be gizonezkoak. Txomin *Txikik*-eta, Patxok-eta baeukien nahiko jairik Santiago egunerako: goizean aita frailearen sermoia, ostean pelotari eta aizkolariak, gero bazkaria; eta iluntze aldean, inoizko musaldirik gogotsuena txurruplanplin eta guzti... Amesetan be egin eben gau haretan eta.

Santiago eguna guztiz alai agertu jaken herritarrai: bolanderak zeruan jaiari txaloka, eguzkia mendi aldean irribarreka, soilulariak kalerik kale eta baserririk baserri *egun ona* emonaz...

—Aurten behintzat polito portau dok Santiago! —inoan Toribio errotariak be, nagiak atereaz leihotik begiratzen ebala.

Behingoan agiri ziran hor-hemendik gizon eta emakume aldra batzuk sei eta erdietako mezatarantza; zortziretakora be polito etorri zan jentea.

Baina beluko meza aurretxean batez be ikustekoak herri haretako bideak: baetorren jentetan eleizara! Pipadun aguretxuak, amama erostalariak, gizon eta emakume, mutil eta neska, ia herri osoak alkar jo eban Santiago egun haretako meza nagusian eleizan. Txomin *Txiki* eta Patxo be han egozan; Toribio erroztaria be bai.

Aita sermolaria han altara aurrean eukien. Ederra egoan benetan! Botako ez eutsen, ba, sermoi biribil bat? Bajutxuan hasi eta apurka-apurka ahotsa loditu eta trumoi izateraino heltzen dan holako gauza eta guztizko sermoi bat?! Pozik egozan herritarrak.

Baina, hareek ez baina, nik banekizan aita frailearen burutzinoak. Zereko altu-baju eta zereko trumoiak! Irakatsi on baten beharizana eukien hareek. Belarrien gozamenerako joan eleizara? Aita sermolaria teatrolari bat lez hartzeko eleizara? Ez horixe! Sermoiak arimen onerako dira, ez belarrien gozamenerako.

Mezea bajoian aurrera... Abeslariak Kyrie eta Gloria kantau ebezan. Abadea oraintxe ebanjelioa kantetan. Kontxo! Don Lu-

ziok be baeukan, gero, ahots ederrik nahiko; baina euren parroko jauna ezaguna eben herritarrak nahi kantuan nahi eta pulpitoan. Aita frailea, aita frailearen adi egozan Txomin *Txikigandik* hasi eta hango bazter haretako atsozahartxuaganaino.

Eta aita Bartolome, ebanjelio ostean, bajoaku, ba, pulpitorantza, herritarrak jesarlekuak hartu bitartean. Igon eban. Lepotik beherako mantua albo baten itxi eban; eskuak mangapean sartuta, batetik bestera begirada bat bota eban eleizan zehar. Eta gehiagoko barik, hasi zan sermoia egiten.

Ze sermoi, edo? Ama Birjina Begoñakoa! Zoratu ete jakon gure aita Bartolomeri? Eskuak gora, eskuak beheara, ikaragarrikoko zirkin eta tximinoikeriak egiten ez ebilen, ba?! Berbarik bat be ez eban esaten; noizik behinean trumoi antzekoren bat. Eta geroago eta gogotsuago, su eta ke, bere gorputz-eskuai eragin eta eragin; arpegiari be ateraten eutsan sinurik eta pariztarik! Izerdia tangadaka eriola emon eutsan azkena bere sermoiari. Ordu erdi bat iraun eban, gitxienez, holako jarduketa ikaragarrian...



Zorakeria-uneren bat izan ete eban, beraz, aita Bartolomek pulpitoan? Holako komediarik, horraitino!...

Edozeinek be hau uste izango eban. Baina, mezea amaituta, eleizpera joan ezkeru, konturatuko zan ez ebala, ez, zorakeria-unerik izan aita Bartolomek... Jentea zurbil-zurbil eta ikaratuta egoan.

—Mutilak! –inoan batak—. Nik ez jeutsaat ezer entzun; pekatuan naiagok ni.

—Neuk be ez jeutsaat gauza handirik entzun, ba –inoan Txominnek.

—Ezta neuk be.

—Neuk be ez.

Eta meza osteko txistu eta tanbolinaren akordurik be barik, barriru sartu zan ia herri guztia eleizara..., autortza on bat egiteko-edo.

Beraz, aita Bartolomeren pulpitoko *zerak* zoratu eragin ete eutsen herritarrai, txakur amorratu batek bere haginkadeaz zoratu eragin ohi dauen lez?

Ez zan, irakurle, holakorik jazo.

Aita Bartolomek, pulpitorakoan, hauxe esan eutsen herritarrai: «Nire sermoi hau entzun eta ulertu nahi dauenak, estadu graziazkoan egon behar dau. Ulertzen ez dauena, pekatu astunean dago».

Eta honek ikaratu ebazan mutilok: pekatu astunean egoteak.

Altu-baju eta trumoi barik be, nahiko sermoirik izan eben Santiago egun haretan. Bai horixe! Toribio errotaria bera be autortu zan eta!...

XLVIII

TXANGURRUA ETA KARRAMARROA

Nik badakit nire irakurle guztiai begi-begiko jakezana txanguru eta karramarro egosiak. Buztanpean zein okela gozoa daukien, e!

Baina erreketan atrapetan gatx dira arranoak! Bota eskua, eta zapa!, egin dabe atzerantza edo hegalerantza. Eta azartzen bazara, laster dozu atzamarren bat euren hanka-adarren artean.

Burudunak dira, gero, piztiok!

Eta, beharbada, nire irakurleak ez dakie zerk egin ebazan horren burudun, eta jakin gura egongo jataz.

Hemen natortzue, ba, jakin-nahi hori betetera.

* * *

Antxina, abereak askozaz be askatuago bizi ohi ziran, eta gu lako bateri ogi zati bat jatea jakuna, hori berberori jaken eurai alkarregaz berba egitea. Barritsuak ziran, benetan, orduko abereak.

Arratsalde baten, arrain-buztan gozo bat jaten egoala, karramarroak dei bat entzun eban. Arrain-buztana itxita, uretatik burua atera eban, eta itaun hau egin:

—Nor da?

—Neu, neu naz. Erdu arin! —erantzun eutsan lehengo aho-tsak.

—Nor ete dok, ba, hain larri dabilen hori? —esan eban karramarroak arrain-buztana iruntsiaz batera—. Banaioak, ba!

Eta zarra-zarra hasi zan bideari jarrai. Ahotsak urten eban lekuraino heldu zanean, ikusi eban nor zan deika eukana. Txangurrua zan; bere antxinako lagun zaharra. Tunantea halakoa, barreari eutsi ezinik egoan; eta lagun karramarroa beragana heldu zanean alkar besarkatu eta hasi jakon esaten txangurrua:

—Lagun zahar, ernegauta naiagok beti toki honetan; eta hi be egongo hintzala uste izan joat eta, horregaitik deitu deuat. Badakik zer otu jataan? Joan-etorri bat egin behar joagula munduan zehar. Beti hemen egotea azkena dok, mutil. Ikusgarririk asko izango joagu mundu zabal horretan. Ez deritxak?

—Bai, lagun; errazoia daukak, izan be. Biderakoak gertuta, joan egin behar joagu, joan, mundua ikustera.

Ordu erdi barru prest daukaguz mutilok. Janaria ugari daroe. Edaria? Puf!, edaria edonon eukiko dabe.

Gaua orduko, muskerren herrira heldu ziran. Muskerrak oso ondo hartu ebezan gure ibiltari biok; afari eder-eder bat emon eutseen, eta autu-mautu gozatsuan igaro eben gaua. Hurrengo goizean, muskerri agur eginda, saguzaharren herrira jo eben. Hemendik mitxeletenera, handik satorrenera... Eta batek badaki nondik norako ibiltaldiak egin ebezan gure tunanteok.

Ibili eta ibili, azkenez katamixarren lurraldera jo eben. Herriko ate aurrera heldu ziranean: «Geldi hor», entzun eben, eta jesus baten kate eta sokaz loturik aurkitu ebezan gorputzak. Bai, ba! Katamixarrak ogigaztaiakaz gudan ebilzanez, ba, areriotzat hartu ebezan. Eta gizajook holakorik jakin ez.

Katamixar Nagusiagana eroan ebezanean, itaunketa gogorra izan eben: nortzuk ziran, nondik etozan, zertan etozan, eta ez dakit zenbat honelako.

Errubakoak zirana jakin ebanean, Katamixar Nagusiak askatu eragin eutsen, eta itandu eutsen euren alde ogigaztaien kontra guda egin gurea eukientz.



—Gura izango ez dogu, ba! Bai pozik be! —erantzun eutsien txangurruak eta karramarroak bat-batean.

Baina gizajoak ez ekien, antza, zer dan guda egitea.

Gau haretan bertantxe emon eutsen Katamixar Nagusiak zeregina:

—Hi —esan eutsan karramarroari—, horko ate hori jagoten joango haz.

Eta txangurruari gero:

—Hik, barriz, sendo antza doan ezker, eta inork ezagutuko ez hauen ezker egundoko trebetasunik handiena agertu behar deuskuk gaueon. Errekearen hortiko aldean jaukaaguz geure arerio ogigaztaiak, bai?, eta ea behingo baten ikusten doan zer darabilen.

—Banoa, jauna; laster nozu euren barriagaz.

Eta zapa!, saltau eban uretara gure txangurruak.

Beste hegaler a heldu zanean, atera burua eta ea ogigaztairik zelatan egoan begiratu eban. Baegozan hiru-lau; baina danak lozorroan.

—«Hau dok nirea! —esan eban pozarren gure txangurruak—. Oigaztai Nagusiaren gelara bertaraino joan behar joat».

Eta laster heldu be. Baina gela barruan zaratak entzuten ziran.

—«Horraitino, zer ete darabile nagusiok?» —esan eban kolko-rako.

Eta ate ondoraino heldu zan. Jokoan egozan arraiook; musean gogotsu, enbidoka eta hordagoka!

—«Nahiko ete dot hau jakiteaz? Hobe izango joat euren arpegi-gorputzak ikusi. Zulorik topauko ete joat, ba, begiratu degiedan?».

Egon be, hantxe hegalean egoan bat. Joan zan txangurrua isil-isilik zaratarik ez ateratearren; sartu eban burua zulutik, eta adi-adi jarri jaken ogigaztaiari. Baina usterik gitxienean ez dau hartzen, ba, itzelezko makiladea buru-buruan! Hil ez zanean, horraitino! Gizajoak, konortea galduta, bertantxe egon behar izan eban zati baten.

Ez eben barrerik gitxi egin ogigaztaiok txangurrua zala eta ez zala. Dzangada bana be bota eben bere osasunerako eta!

Seneratu zanean, txangurru gaixoak ia ez ekian non egoanik be; hain handia zan bere buruko mina! Narras-narras joan zan erreka ondoraino. Eta katamixar alderantza uger joiata, ezagun-ezagun jakon zeozer txarra gertatu jakona.

—Ze barri dakarskuk, mutil? —itandu eutsan Katamixar Nagusiak, errekatik urteten laguntzeko eskua emoten eutsala.

—Barririk? Buruan makiladea makala! Baina joan zeintekeze guda emotera. Zelatariak lo dagoz; eta Nagusiak jokoan eta farran, ezeren ardura barik. Zeuena dozue guda, arin-arin bazabilze.

Katamixarren kanpamentuan sortu zan algara eta arma-hotsa! Behingo baten urten eben danak ogigaztaien kontra. Eurena eben guda! Hau poza!

Gure txangurrua une honen begira egoan. Karramarroagana joan eta esan eutsan:

—Mutil, gaiozaan hainbat lasterren lurralde honetatik urrun. Bestelako bakean biziko gozak geure lurraldeetako erreketan!

—Neu be horretan naiagok. Baina, zelan iges egin? Katami-xarrok geure azterrenetatik aurkituko gaiuezak, eta euren menpean bizi beharko joagu barrero be.

—Neu be izan nok horren bildur; baina ez hadi estutu. Asmau joat era polit bat edonori iruzur egiteko modukoa: hi albo-alboka joango haz, eta nik atze-atzeka egingo joat.

—Hatan be, errazoia daukak.

Eta ahal ebenik arinen etxerantzako bidea hartu eben. Kata-mixarrak, guda amaituta, hasi jakezan jarraika. Baina alperrik! Buruhaustea eukien makala norantzakoa jakiten! Eta gure mutilak inoren bildur barik, poz-pozik heldu ziran euren herrira.

—Gaurtik aurrera —esan eutsan karramarroak txangurruari— honetaraxe ibili behar joagu, mutil: hi atze-atzeka eta ni albo-alboka. Ez deritzak?

—Bai, gizona!

Eta alkarrerri eskua emonda, biak bat-batean, zapa!, saltau eben erre kara.

* * *

Hona hemen, irakurleok, noiztik jakuzan hain atrapagatzak piztiok arrantzan goazenean.

Baina, halanda be, buru hobeagokoak garala esan beharko, ezta? A, zein gozoak izaten diran euren buztan-inguruak!

XLIX

BERTOLDINEN ZORAKERIAK

Amorru bat emoten eutsien, amorru bat, etxe ondoko pozuko ugaraxoak! Krak-krak, klin-krak, krak-krak... Karra-karra-karra... Egun guztian eten barik zarataka eta ekinahaleko algaran!

Hori bakarrik balitz, baina! Ez ebilkozan, ba, berari burlazka eta irrika? Lau dukat errukarri besterik ez eukazala, eta lau dukat errukarri besterik ez eukazala! Lau dukat, karra-karra-karra... Lau dukat, karra-karra-karra... Jo eta ke horretantxe, eztarriak apurtu artean.

—Denganino-denganinook! Lau dukat bakarrik daukadazala? Guzurtiok halakook, ikusiko dozue, ba, egia dinotsuedanentz!

Eta gure Bertoldin gizajoa, amorruren amorruez begietatik sua eta ahotik bitsa eriola, arrapaladan joan zan etxera ugaraxo barrabanoi lezino on bat emon behar eutsela-ta.

Bertoldin, hatan be! Ez dozue, irakurleok, Bertoldinen entzuterik? Bertolda zanaren eta Markolbe atsotxuaren seme honeri buruz entzuterik ez?

Ez zan, ba, makala gure mutil hau! Tontokilo handiagorik ez dot uste jaioko danik; ezta jaioko danik be. Baeukan urtenaldi bakotzik! Honako lehen aitatu dodan ugaraxoakaz jazo jakon hau jakin besterik ez daukazue, irakurleok.

* * *

Etxera helduta, amaren gelako kaxara joan zan taka-taka. Markolberi erregeak emon eutsazan bi mila dukat guztiak leporatuta, hor joaku lehengo pozurantz ugaraxo burugogorrai lau dukat besterik ez eukazanentz erakusteko prest. Jakingo eben bai behin betiko!

Ugaraxoak, Bertoldin ikusi ebenean, asmau eben, antza, laster etorken jaia. Eta, barreari eutsi ezinik, zarata handiagoak ateraten hasi jakozan: krak-krik, krak-krak, krak-krik...

—Ekin, ekin gogotsu laster isildu beharko dozue eta!

Eta Bertoldin, piztioi irabazi eutsela-ta, plisti-plasta!, hara eta hona diruak botaten hasi jaken.

—Hondino be gehiago gura dozue? Ala! Hartu diru horreek, eta zenbatu zeuek lau diran ala ehundazak diranentz.

Ugaraxoak baketuko zirala uste eban gaixoak. Baina ezagutu eben, ziu, nor zan Bertoldin. Eta gogotik adarra jo behar eutsiela emon eutsen buruak. Hareen karrakadak eta belarriak gortu beharra!

Bertoldineri ugaraxoen panparroikeriok odola irakiten ipini eutsien. Eta ukabila erakutsirik, inon diranak esaten hasi jaken. Ugaraxoak, baina, geroago eta umore hobeagoaz: krak-krak, krak-krik, karra-karra-karra... Jo eta ke!

Bertoldinek, holakorik eroan ezinda, blausta!, zorro erdi dukat gitxienez bota eutsen, esan leitekezan gorrienak esanaz. Ugaraxoak, eten barik, eztarria apurtu ez ekien noizean behin urdzangada bat edanda, kriki eta kraka, Bertoldineri zirika.

—Madari-madariok! Isilduko zarie? Hondino be lau dukat errukarri bakarrik daukadazalakoan? Eutsiez, ba, eutsiez, pizti guzurti arraiok!

Eta eskukadaka bota eutsezan pozura zorroko diru guztiak. Diruak ezeze, zorroa bera be bai. Tontolapikook halakook jakingo eben, bai, nork eukan errazoia.

Ugaraxoak, hatan be, tontolapikoak? Isildu hadi, Bertoldin, isildu hadi. Ez dok ikusten heure kontra berbetan hagoana?



Bai zera isildu Bertoldin! Txakur amorratu bat eginda joan zan etxera. Eta ugaraxo barrabanok atrapetako ona zala-ta, Markolbek goizean eginiko arto eta ogi guztiak eskuratuta, osinera bota eutsezan.

Hau bakarrik balitz, oster! Hurrengo egunean oilolokearen ordez arrautzen ganean jarriko zan, txitak atera behar ebazala-ta. Tortilladea makala atera ebana!

Beste egun baten, lotsabako bat zala-ta, auzoko astoari belarriak ebagiko eutsazan.

Honelakotan baeukan bakotxik gure Bertoldinek!...

Eta erremediorik ez. Tontokilo jaio zan, bai?, eta tontokilo hilko be.

L

KONTUZ DOMINISTIKUAGAZ!

Bai, irakurle! Badaezpadan be, kontuz doministikuagaz; ibili zaitetz kontuz edozein ordu eta lekutan doministiku egiteagaz.

Ez dakizu, doministiku batek urten eutsala-ta, orain urte bi-edo Txanton *Piperreri* gertaturikoa? Neuri be kostau jatan sinistea. Baina egia zan, bai: atzeak bero-bero eginda, kartzelan sartu eben sei egunerako guardia zibilak. Auzoko Josepak esanda jakin neban.

Txanton *Piperren* doministiku hori apartekoa izango zala? Ez, irakurle. Niri esan eustenez behintzat, ez zan izan apartekorik. Beste edozeinena lakoxea izan zan. Baina diabruren bat ebilkon, antza, atzetik gure Txantoneri adarra jo gurarik. Berarentzat ez zan egon errukirik: barre egin eutsien ugari eta gero kartzelaratu. Doministikutxu bategaitik kartzelaratu gure Txanton *Piper* gaixoa!

Egia esateko, harrituta nengoa ni gertakizun hau jakin neban egunean. Auzoko Petrak ez eustan ezer esan baina, doministikuaren ganera beste zeozeren bat be egin behar izan eban Txantonek, nik uste. Osterantzean, zer zala-ta eroan ahal eikien guardia zibilak kartzelara eperdiak bero-bero egin eta ostean? Ez dogu, ba, guztiok –zuk eta nik be, irakurle– baten baino sarriago doministiku egin? Eta inoiz kartzelaratu ete gaitue horregaitik? Ez seguru.

Nik ez dakit Petrak zergaitik ez eustan esango gehiago, berak ez ekialako ez zan izango, baina. Dana dala, beste zeozeren susmoa laster hartu neban. Bai, Txanton *Piperren* doministikuaren ondoan egongo zan beste trasteriaren bat be. Egon behar, irakurle, egon behar. Eta haor, ba: lehengo egun baten atera neban erbia! Txanton *Piperrek* berak esan eustan guztia. Gernikan aurkitu genduan alkar.

* * *

Astelehenetan-eta Gernikara joan-etorri bat egin eta tripaki-betekadatu bat botatea atsegin izan ohi jat eta, orain zortzi be hara nintzan; eta, jeneroa ikusiaz, plazatik ibiltaldi bat egin eta ostein, beti lez Don Toribioneko tabernara joan nintzan. Platerkada bat tripaki eskatu nebanekoxe, kantuka etorren barrura beste gizontxu bat be. Txikia eta apur bat lepokerra zan, izan; arpegiz, barriz, tximinoi baten antzekoa: motz-motza gizajoa! Baina grazia handia egin eustan gizontxu harek.

—Arratsalde on, lagun! —agurtu ninduan, txapela kendu eta buruaz erreberentzia bat egiten eustala.

—Baita heuri be, gizon! —erantzun neutsan gozoro—. Tripaki bila etorri haz hi be, ala?

—Ez, mutil. Tripakiak gauza gitxi joadaz nik; txuletatik gora ez ete joat merezidu, ba?

—Hori heuk jakingo dok. Jaun handiren bat bahaz!... Ez haut ezagutzen nik.

—Ezagutu ez ni? Gorrik bizi izan haz egunotan, ala?

—Txanton *Piper* ete haz, gero?

—Entzun dok orduan zeozer, demontresorrek!

—Beraz, Txanton *Piper* ete haut, lagun?

—Bai, mutil; heuk dinok. Eta sinisten ez badeustak, itandu egiek hor plazan jagoazan guardia zibil horreei.

—Ja, ja, ja... Hi haz orduan orain hilebete batzuk, eperdi-beroketa on bat eta sei eguneko kartzelea eroan behar izan joana?

—Bai, mutil. Nik lako suerte txarrik ez jaukak inork munduan. Neu izan nintzoan zorioneko hori!

—Doministiku bategaitik ez euen horrenbesterik egingo, baina!

—Zergaitik uste dok, ba? Bai, mutil. Doministiku bategaitik izan zoen dan-dana. Neuk esango deuat nahi badok.

—Aspaldion be hori jakin guran egon nok, ba. Hator neugaz mahaira. Tirok; jarri hadi hor, meriendea neuk ordainduko deuat eta.

Jarri gintzazan. Eta Don Toribio taberneruak tripaki-platerkada eta txuleta pare eder bana aurrean ipinten euskuzala, hasi jatan gure Txanton *Piper* doministikuaren istoria kontetan. Ardao-txurrit on bat bota eta ostean, jakina.

—Esango deuat, ba, lagun —hasi jatan Txanton—. Esango deuat, ba, garbi-garbi gertaturiko guztia. Gero ikusiko dok guardia zibil arraio horreeik errazoirik izan juen ala ez, egin jeustean egiteko. Errotetako Paulo ezagun izango dok, eztok?

—Bai, ezagun joat.

—Ba, Paulorenean gertatu jataan istoria tamalgarri hau; Paulo siestan jegoan baten. Badakik, edo jakin eik behintzat, ni kitanu bat bera baino be pobregoa noana. Txakur txikirik be ez neukaan patrikeran, gaur be asko gehiago ez jaukaat, baina. Eta gose nintzoan. Gose, gizona, inoiz jan barik banengo lez. «*Rediez!* —esan naioan kolkorako—. Ez ete joat, ba, demontresko gose hau kentzeko erarik asmau ahal izango?». Eta, ez deustak sinistuko baina, berbok esanaz batean Pauloneko kortan kurrin-kurrin batzuk entzun naioazan. «Hau dok hirea, Txanton! —esan neutsaan kolkoari—. Ez habil gosea zegaz kendu asmau ezinik? Haor daukak, ba, zegaz kendu. Atrapau eik txarrikume horreetarikoren bat». Pentsau, eta ea eskuak lanera, mutil! Ez naioan ezbairik txikienik be izan. Bai, txarrikume haretarikoren bat ostu behar naioan. Txapela buruan ondo sartu, eskuturrak gorantza jaso eta hasi nintzoan korta alderantza taka-taka, hango atetik sartzeko asmoz. Atea, baina, itxita aurkitu naioan; trankeaz itxita. Zer

egin? Ostikadaka atea apurtu? Edo, eta eskilaren bat nonondik zuzenduta, teilatutik kortara sartu? Gogorakizun biok etorri jatazan burura... Baina, eta zaratakaz Don Paulo izartu, eta ostuketan atrapetan baninduan? Ez, ez zoan gauza segururik. Eukiko naioan beste eraren bat. Sukaldetik sartuko nintzoan, haor.

—Sukaldetik? *Señorearen* eskuetan jausteko be!...

—Ez, mutil. Han ez zoan bizi Don Paulo besterik. Eta Don Paulo, lehen be esan deudanez, ordu hareetan eguerdiostekoa egiten jegoan, siestan. Sartu nintzoan, ba, tenplau-tenplau ezkaratzera eta ezkaratzetik kortara. Eta hango bost txarrikume lodikote hareek ikusi naioazanean, egia egia!, kili-kilika hasi jataan kolkoa. Bat jegoan besteak baino loditxuagoa. Eta hareri josi neutsaazan begi biak. Bai! Haxe bera eroan behar naioan. Ederra halakoa!

—Zakurik-edo baheuan, ba, Txanton?

—Nahiko zakurik naioan neure kolkoa. Ai, kolkoan eroan ahal beste txarri baneukazak euki! Sueteko atea ondo itxita, sartu nintzoan txarritokian geldiro-geldiro. Kostau jataan baina, azkenean oratu neutsaan belarrietatik txarrikume loditxuenari. Baina mutila jarri jataan piztia! Ez jatak, ba, txilioka hasten? Don Paulo izartu zoalakoan nengoan, bildurrez. Baina, zorionez, trapu zahar bategaz itxi neutsaan ahoa, eta *jeneroa* gertu jegoan kolkoan sartuta eroateko. Sartu be, hementxe blusapean sartu naioan, eta ia kantuka hasi nintzoan kortatik ezkaratzerakoan. Baina, eta hau izan zoan negargarria!, ezkaratzetik portalera bitartean ez jeustak, ba, neuri be abisurik egin barik, ikaragarrizko doministiku batek urteten?! Agur Txanton gizajoa!, eta agur nire txarrikumetu gaixoa! Haxe izan zoan nire azkena. Arrapaladeari emon neutsaan baina, alperrik izan zoan. Han jetorran Don Paulo atzetik makila bategaz segika. Eta atrapau egin ninduan. Atrapau, mutil, Don Paulo txarrikume barik jetorran-eta... Eta gero, lagun, —amaitu eban barreka Txantonek— dakian guztia: atze-berotze on bat, eta ganetik sei eguneko kartzelea. Ez deuat esan lehen be doministiku bategaitik eroan behar izan naioala hori guztiori?



Ja, ja, ja! Zati baterako izan neban barrea Txantonen istoria hau entzun nebanean. Tripaki-txuletak? Tripaki-txuletak sobran itxi beharra euki izan neban.

—Itzela haut, Txanton; itzela haut benetan! Hi lako gizonak zorrokadaka behar leukezak munduan.

—Gizonak barik txarriak hobe, mutil, txarriak hobe!

—Don Paulok eukiko jozak orain be nahiko politak! Egik, ea, beste apaxkadatxu bat!...

—Um!!! Geldiro gu lakoakaz!...

Eta etxeratu gintzazan. Txanton *Piper* pozik, patrikereari minik egin barik, tripea bete-beterik eroialako.

Eta ni be bai, irakurle; ni be pozik, zilbota ez baina, kolkoa behintzat barrearen barrez ganezka neroialako. Pozik ganera, Txanton *Piper*ren ahotik lezinotxu polit bat ikasi nebalako. Txantoneri jazoriko hau gogoan eukiaz, badakit orain txarrikumeren

bat ostu edo beste holakoren bat egitera noanean zer kontuan erabili.

* * *

Eta zu be zuhur ibili, irakurle. Azerikeriatxuren bat egin nahi dozula? Ba, kontuz doministiku egiteagaz! Kontuz Jainkoarren holako pekaturik egiteagaz!

Osterantzean eperdi-berotze on bat eta hiru-lau eguneko kartzelea bakarrik ez baina, batek badauki zer beste ondorengo txarrik etorri ahal lekizun.

Kontuz, bada! Kontuz, irakurle!

*Egitekotan doministikun,
egizu hortxe, kolkun!*

LI

PETRONILAREN OILOA

Nork ez dau ezagutzen oilo bat? Nire irakurle guztiak, ziur. Hamaikatxu oilo-izter jandakoak izango zaituet, beharbada!

Baina Petronilaren oiloa ez zan, antza, beste oiloak legezkoa. Zenbat mimo eta laztankeria egiten eutsazan berak, batez be goizeko bederatzia inguruan! Lobatxu bat izan baleu be, ez dakit nik horrenbeste egingo ete eutsazan.

Esango deusuet zergaitik? Zer egin ezean nago, zuek beharbada barre-algaraka hasiko zaiataze eta. Baina ez uste, Petronilarentzat inportantzia handiko gauzea zan bere oilotxua horren maitekiro jagotea. Ez eutsan, ba, ipinten egunero-egunero, hutsik egin barik, arrautza gorri biribil bat?

—Arrautza bategaitik horrenbeste koplak! —marmar egingo deustazue, irakurleok.

Baina gura neukean nik Petronilaren narrua zeuek janztea; orduan esango zeunskide koplak ziranentz. Eskerrak oiloak emoten eutsazan arrautza hareei! Osterantzean ez dakit nik bere ortuko porru-berakatzakaz bizirik urteterik ete eukan.

Baina behin baten —zuri lez, irakurle— Petronilari berari be hauxe emon eutsan buruak: arrautza bategaitik gitxi zala, hain fina eban oilotxu harentzat behintzat eguneko arrautza bat besterik ez ipintea gitxi zala. Eta asmakizunetan hasi zan. Ze asmaki-

zun, gero? Niri, onenean be, oiloari agirakada batzuk egin eta arrautza pare bat ipiniaz, emongo eustan buruak. Baina Petronilak asko gura eutsan oiloari tratu honeek emoteko; beste era bigunago bategaz ipini eragingo eutsan arrautza pare.

—«Oilotxu honeri –hasi zan bere kolkoagaz berbetan– egunean baten emon izan deusat jatekoa, eta arrautza bat ipinten izan deust. Birritan emongo deusat, bai?, eta bi ipiniko deustaz honezker. Asmakizuna, gero, polita!».

Lorik be ez eban egin Petronilak gau haretan. Eta bestaldeko oilarrak kukurrukua jo ebaneko, han ikusi zeinkien oilotkirantza arrapalaka bere oilotxuari amantalean artagarauna eroatsala. Hegazkada baten urten eutsan bidera oiloak. Eta zein jarri ete zan, gero, pozago: oiloa artagaraunaren aurrean, ala Petronila bera oiloaren gangarra horren gorri ikusita? Jaten emon barik be, ipini ahal eikiozan harek arrautza bigaitik! Baina badaezpadan be, emon eutsan artagarauna; holan ederragoak ipiniko eutsazan arrautzok.



Artagarauna amaitu ebanean, leun-leunkiro hanketatik oratu eta habian jarri eban oiloa, arrautzatxua noiz ekarriko. Eta poza-
rren ezkaratzeratu zan Petronila egun haretan lortu behar ebazan
arrautza bi hareek gogoan ebazala. Sua biztu eban; ur apur bat
berotzen ipini be bai. Eta malta antzeko bat hartzen egoanean, ze
soinu edo zer entzun eben bere belarriak? Ez eukan, gero, oilotxua
poz-algaran, kar-karka? Oilotokira joan, josi habian bere begi
biak eta..., bai!, ipini eutsan lehenengo arrautzea, ukabila lako
arrautza eder zoragarri bat. Oiloa besoetan hartu eta mosukatzen
hasi ez zanean!...

—Orain atsedean apur bat hartu behar dozu, oilotxu. Azterka
apur bat egingo dozu, eta euliakaz-eta, kotxoakaz-eta olgau...
Geroago etorriko naitzazu arto eta ora bero-beroagaz...

Eta sueteratu zan Petronila, arrautza gorria amantalean gor-
deta eroiala.

Bost minutu ez ziran igaro; baina Petronilari joandako urtea
bera be ez jakon iruditu minutu hareek baino luzeago. Larri urten
eban oiloari bigarrenez jaten emotera, beste arrautzatxua ipini
egion. Purra-purra deiak entzun ebazanean, oiloa hegazkadan
etorri zan Petronilagana. Ez ebazan, ba, jango bere jaubeak ekar-
tsazan ora bero eta artagarauna? Bai gozo be! Eta Petronila pozik!
Pozik holako janariak eragindako bigarren arrautzea ederragoa
izango zalako. Oiloak biroa bete ebanean, kontuz-kontuzean
habiaratu eban, eta hantxe itxi eban oiloa bigarren arrautzea noiz
emongo.

Baina, asko itxaron arren, bihozmintxu bat eroan behar izan
eban Petronilak ohera eguna amaitukeran. Oiloak ez eutsan biga-
rren arrautzarik ipini!

—«Bai ba! —inotsan barruari trankildu nahian—. Oilotxuak ez
eban jakingo nire usterik eta; bihar adierazoko deusat nire nahi
hau».

Hurrengo egunean be, ostera, nahi-ta Petronilaren ahotik
mila erregu entzun, oiloak ez eutsan arrautza bat besterik ipini.
Eta hurrengoan be bardin, eta hurrengoan be bai...

—«Borondate txarrekoa ete dot, ba, oiloa? –inarduan esaten Petronilak bere baitarako-. Ez, ez dot holakorik gogoratu be gura. Oiloak beti jokatu deust zintzo. Neu izango naz hemen errudun, neu, itxaroten ez dakidalako. Beharbada oiloak bigarren arrautzok ekarteko denporatxua behar izango dau, eta hobe izango dot pazientziaz itxaron».

Eta egun baten, bitan..., aste baten, bitan..., hilebete osoan ekin eutsan Petronilak egunero birritan jaten emoten eutsala, noiz edo noiz arrautza paretxu hori hartzeko asmoz!

Baina igarri ete dozue, irakurleok, itxaropen honen guztionen amaia? Oiloak hileetan be ez eutsan ipinten bigarren go arrautza hori, eta azkenez ezta bat bera be.

—«Zertarako ipini, gero? –inoan barrurako-. Lanik egin barik be emongo deust niri janaria Petronilak, hain ona dodan ezkerero. Bizi egin behar dot orain, bizi!».

Bizi bai bizi! Neska ona jarri jakon Petronila bere asmo txarrok igarri eutsazanean! Hainbeste denporan jateko eta trataturik onena emoten egon, eta gero lotsabako bat mizkatzen ibili zala jakin behar? Bihozbako maltzur zantarrak halakoak, hartu behar eutsan, bai, merezidutako zigorra: samea kenduko eutsan, eta gero lapikora. Ala! Holan behintzat ez ebazan alperrik galduak izango horrenbeste artagaraun eta ora.

Sanjuanak laster ziranez, jai horretarako hilko eban oiloa. Hazelako Sanjuanak igaro behar ebazan berari eskerrak! Arrautzarik ez baina, saldea eta okelea izango ebazan ugari. Kutxilloa zorroztu, lumak gordeteko zakuto bat gertu, odola hartzeko ontzia garbitu... Dana gertuten ebilen gogotsu gure Petronila San Juan aurrean. Eta kutxilloa eskuan hartuta oilotokira joaten ikusi bazendue, orduan jakin ahal zeinkien, irakurleok, sorgin bat zer dan. Anbotoko menditik urteniko bat irudian. Haze atseginez ebagi behar eutsan samea oiloari kutxillo-zartada bategaz!

Edegi eban oilotokiko atea. Purra-purra deika joan zan oiloa egon ohi zan lekuraino eta, Aitearen, Semearen eta Espiritu Sant... Baina zer? Zer jazo ete jakon, gero, Petronilatxu gureari?

Jakin bazenkie! Oiloa ostu egin eutsien!!! Zer dinot ostu? Ostu baleutsie, zelan edo halan lortuko eban barriro... Baina ez eutsan, ba, jan egin piztiren batek? Hantxe, bere begien aurrean eukazan hazur-lumak. Agur arrautzok, eta agur platerkadea!

* * *

Bai! Eta agur, agur zuri be, Petronila! Agur! Baina ikasi lezi-
noa: askonahiak, sarri, bapezera eroan daroa.

LII

APARTXU ETA BERE KUME BIAK

Aberezale handia izan naz ni beti. Gogoan dodaz oraindino, ume nintzanean, bildotsakaz-eta, txakurkumeakaz-eta egiten nebazan olgeta-barreak.

Baina ahunzkumeak baino pizti barregarriagorik ez dot uste ezagutu dodanik. Zein politikak doguzan eurok! Eta zein bizkorrak, gero! Egingo neuke ez dagoala nire irakurleen artean bat bera be arrapalada eta saltu kontuan piztion erdi be egingo leukenik. Baietz dinostazue, irakurle umetxuok? Egingo zeunkiela? Jakin gura neuke, ba...

Baina gaur ez noatzue ahunzkume eta zuen artean norgehiagoka edo karreraren bat ipintera, ez. Gertu egon, badaezpadan be, beste egunen baterako... Gaur pizti honeri buruz ipuintxu bat kontauko deusuet, zuek eskatu ez arren atsegin-atsegin dozuena badakit eta. Ezta, ala? Haor, ba: ahuntz-ama eta bere bi kumetxuen ipuina azalduko deusuet.

* * *

Ez dakit nik zein herritan bizi ziran. Bizkaian bizi zirana bai; zeuen herrian beharbada. Ahuntz-amak Apartxu eban izena, eta kume bi eukazan, zoli-zoliak: bata edurra baino zuriagoa zan eta bestea gorrizkea.

Bazenkie jakin zelako maitasuna eutsen Apartxuk bere kume bioi! Amak zuen ardurea daukan lez, bardin-bardin zaindu eroiazan Apartxuk be bere kumeak. Beti begiak zuhur eurak behar edo nahi ebena egiteko.

Baina egun baten gure Apartxuk eskutitz edo karta bat hartu eban herriko alkateak botata. Eta karta haretan herriratze bat agintzen jakon, herrira joan behar ebala; bere kumetxuen barri emotera-edo. Bihozmin handia hartu eban Apartxuk karta hau heldu jakonean. Ordubete inguruan besterik ez bazan be, bere kumetxuak etxean itxi behar! Bakar-bakarrik itxi behar!...

Baina agindua, agindu zan eta, nahi-ta kume koitaduen zoriaren bildurrez, joan-etorria hainbat arinen egitea erabagi eban. Ez, oster, ama-maitasunak eragindako kontseju batzuk emon barik:

—Ene semetxuok! —esan eutsen Apartxuk bere bihotz ondoan banan-banan eta laztankiro estutzen ebazala—. Karta bat bialdu deuste goizeon, eta herrira joan-etorri bat egin beharrean ipini nabe. Ordubete inguruan, ba, amatxu barik egon beharko dozue; baina ez zaiteze larritu. Amatxuren esanak ondo-ondo beteten badozue, ez jatzue ezer be txarrik gertatuko. Hementxe suctean itxiko zaituet nik, eta kanpora urtetea, atea sendo-sendo lotuko deusuet. Ez egiozue edegi inori be neu etorri artea, inortxuri be ez, gero! Badakizue hor kanpoan arerio asko daukazuezana; eta beharbada, nire herriratze hau dala-ta, baten bat etorriko jatzue ate-joka. Kontuz, ene semetxuok! Ez egiozue inori be aterik edegi! Entzun deustazue, ezta?

—Bai, amatxu! —erantzun eutsien biak batera, arpegian mosu bana emoten eutsiela—. Zuk dinoskuzun lez egingo dogu.

Eta Apartxuk, negar-arpuluak amantalagaz kenduaz, urten eban herrirantza, bere kumetxuak etxeko atea sendo-sendo ixten eutsiela.

Ahunzkumeak, behingoan ez baina, astindu eben noiz edo noiz amaren hutsak emotsen bihozmina. Eta bata-besteagaz olge-

tan hasi ziran. Olgetan eta barre-algaran, errubakook! Baina handik hoge minutu ingurura ez dabe entzuten, ba, atean harako amaren antzeko ahots mehe-mehe bat? Ama bera ete eben? Ala berak esandako arerioetariko bat? Ikaratuta geratu ziran gure ahunzkumetxuok. Eta bildurraren bildurrez ez ekien zer egin be: ala ohe azpian ezkutau, ala ateosteko zulotik begiratu deika eukiena nor zan jakiteko.

—Anaiatxu! —esan eutsan ahunzkume gorrizkeak zuriari—. Joango gara nor dan jakitera?

—Baina, eta areriuoren bat badogu?

—Atearen zirritutik begiratu ezkerro, ezin izango deusku ezer egin, baina.

Orduan bigarrenez egin eutsen berba ate ondoan egoanak:

—Edegi eidazue atea, umeok. Edegi eidazue, zeuen ama nozue eta. Hemen natortzue karamelo eta guzti.

Karameloen gomuta pozgarria izan jaken gure ahunzkumeai, nire irakurle umetxuai be bajakenez. Baina, zergaitik eurak be ez ekien baina, susmo txarra hartu eutsien amatzat etorken hareri.

—Goazen, ba, anaiatxu! —esan eutsan zuriak gorrizkeari—. Atearen zirritutik ikusiko dogu nor dan.

Bildurrez baina, joan ziran ate ondoraino. Eta txinbeleta ondoko zulotik begiratu ebenean, zer ikusi ebela uste dozue? Ama ete eben deika eukiena? Ene, ene!... Ikarearen ikaraz, konortea galduta, lurra jo ez ebenean! Zer eta, otso handi bildurgarri bat ez zan, ba, portalean egoana?! Otsoa zan bai; euren amak etxe aurrean sikatzen itxiriko jantziak soinekotuta etorken otso goseti bat. Buztanetik ezagutu eben!

Edegi ete eutsien aterik gure ahunzkumeok? Bai zera edegi! Atearen zirritua bera be zotz bategaz tapau, eta sutondoan jarri ziran isil-isilik amatxuren esana beteteko.

Ordu erdi barru Apartxu etxera heldu, eta bere semetxu zintzoak bizirik aurkitu ebazanean, nork adierazo bere bihotzaren poza? Negar-anguluak eriozala, maitekiro besarkatu eta mosuka jan egin behar ebazala irudian.



—Ene semetxuok! —esan eutsen maitasunik handienaz—. Izan dozue arriskurik ni kanpotik izan nazan bitartean? Etorri izan jatzue inor ate-joka?

—Bai, ama. Otso handi bat etorri izan jaku zeu lez jantzita —erantzun eutsen aho batez—. Baina guk buztanetik ezagutu egin dogu eta ez deutsalagu edegi aterik.

—Ederto jokatu dozue, ene semetxuok! Nire esana beteteak atera izan zaitue derrigorreko heriotzatik. Eutsiez, bada, amak ekarri deutsaluzan pastel-karameloak! Holan jokatzen badozue, zintzo-zintzoak bazarie, beti eukiko zaitue amatxuk bere bihotz barru-barruan...

* * *

Umetxu irakurleok, gogokoa izan jatzue Apartxu eta bere kume bien ipuin hau? Baietz uste dot nik. Eta, beharbada, euren bizitzeaz gehiago kontetako esango deustazue. Bene-benetan be, merezidu badozue baina, parkatuko deustazue. Hurrengoan jarraituko dogu.

Hauxe bakarrik esango deusuet gaurkoz: kume bi hareek zoriontsu-zoriontsuak izan zirala beti, euren ama Apartxuren esan eta aginduak zintzo-zintzoro bete ebezalako.

Eta haor, ba: zeuek be zoriontsu-zoriontsuak izan gura! Ba, horretarako badakizue zer egin? Bete eizuez zuen aita-amen aginduak pozez eta gogo onez, eta izango zarie, ziur. Bai horixe!

Eta orduan, ez hiru-lau bakarrik; pastel-karamelok zorrokadaka ekarriko deusueez zuen gurasoak.

Ez jatzuez gustetan, beraz, pastel-karamelok?

LIII

AHARI-JOKETA BAT

—Ipuin horregaz heure amamagana, mutil. Berak sinistuko deua!

—Ze amama eta amamaondoko?! Egia doala, ba, Praisku, egia doala!

—Isilik egon hadi, Jose. Abadeak berak pulpitotik esanda be, ez neuskiok nik horrelakorik sinistuko.

—Horren harrigarri deritxak, ala?

—Harrigarri bakarrik? Baita negargarri be. Hemen gaiabilzak batzuk, medikurik mediku, geure buruau heriotzearen atzamarretatik atera ezinik, eta beste norbaitzuk, ahari balira lez, euren buruakaz topeka egiteraino heldu dozaala esatera etorriko haz hi!

—Guzurra jirudik. Baina egia dok, Praisku. Neuk ikusi naioazan atzo Azpeitiko plazan. Eta ez nik bakarrik. Ikusgarria zolan norgehiagoka honen gorabeherak jarraitzeko batu zolan jentetzea! Zezen-jaiak izan balitzozak be, ez joat uste gehiago batuko zolanik.

—Nortzuk zoazan, horratino, jokalariaok?

—Hik ez dozak ezagutuko beharbada. *Kardantxilo* ezizenekoa zolan bata; besteari Anton *Manton* deitzen jeutsiek.

—Anton *Manton* eta *Kardantxilo*, hatan be? Isilik egon hadi; ezagun joadaz biok. Handiagorik be egin behar jeuskuek horreek!

—Ez dinoat ezetzik, Praisku. Atzo agertu juen adore eta kemena galtzen ez bajuek behintzat...

—Kementsu orduan mutilok!...

—Kementsu bakarrik? Ez joat nik ikusi aspaldion Anton *Manton* eta *Kardantxilo* lako aharitorik. Ha zoan, ha, alkarrereri topekadak emotea! Esango deuat.

«Hamaika eta erdiak zoazan ni plazara orduko. Apostu edo norgehiagoka laster zoanez, jentea urduri jegoan, kolkoaren kili-kilia gorde ezinik. «*Kardantxilorena, Kardantxilorena* da jokoa!», inoen batzuk. «Hogei ogerleko postura Anton *Mantonen* alde!», erantzuten jeutsean besteak. Eta zaratea ugari zoan. Nik neuk ezin neikean esan nork irabaziko ete joan. Eurak esan beharreko gauzea zoan hori. Eta etorri be, laster etorri zoazan gure mutilok plaza erdirantza, jueza lagun jekarrela. Haren txalo eta gorak hartu beharra!

Kardantxilo zazpi oin eta erdi bazoan luze, zabaleran ez askorik baina. Bizi antza jeukaan eta indarra be eukiko joan harek non edo non. Anton *Manton* laburtxuagoa zoan, izan; zabaleran, osterara, *Kardantxilo* lako bi bai. Hazelako kokota berea! Baina gorputz-neurriok haren jokorako, zer ardura? Buru gogorra izatea zoan han garrantzi handikoa, eta joko aurretik nork igarri honetan zein zan gehiago? Eurak jakinazo beharreko gauzea zoan hau. Eta adierazo be laster egin jeuskuean, ba.

—Ea mutilak! —esan jeutsean juezak, jokoari hasikerea emonaz—. Hi, *Kardantxilo*, hango erraia haretan hasiko haz beti abia-dea hartzen. Hi, barriz, Anton, horko beste horretan. Erdiko erraia honetara heltzean, hemen emon behar dozue alkar-topekadea. Hartu kontuan: hamar mila pezeta dozuez aidean.

Plazako gizaldreari arnasea bera be ez jakon entzuten; larri, zer jazoko minez. Gure *aharitook* joan zoazan baxotxa bere erraiaraino. Buruari hatz egin, arnasa luze bat hartu, abiadan jarri, eta baetozan, baetozan... eta honetan, kaska! Izarrak ikusten geratu zoazan biak topekadearen indarrez. Jentea, barriz, txaloka eta aupadaka.

Atsedean apur bat hartu juenean, jarri zoazan bigarrenez bakotxa bere erraian. Alkarrerri begirada ilun zorrotz bat jaurti, bekoki-buruak aurrerantza ausarditsu luzatu, abrunkadea hartu eta hor joakuazan barrero be gure *Kardantxilo* eta Anton alkarren ganera, troka bateko aldasbehera banatatik bota eta troka-zuloan alkar jota zatitzen dozaan harri handi biren antzera. Buru-bekoki hareen hazur-joketak atera juen hotsa! Luze jausi zoazan biak lurrera, ia konorterik be barik, odoljarioz. Baina jentea geroago eta beroago jegoan:

—Emon, *Kardantxilo*. Heurea dok jokoa!

—Hori dok eta, *Manton*. Laster dozak patrikeran hamar mila pezetok. Iraun gogor!».

—Eta iraun be bardin, Jose, astokote hareek!

—Hoba iraun ez! Hiru, lau, bost eta seigarrenez be ekin juen topeka ekinahalean, amorru biziz. Ikusi baheuz! Ez jagok, ez, Euskal Herri guztian hareei topeka irabazteko aharitorik! Ez horixe! Ezta zekorrik be! Ene mutilak!...

—Eta baten batek irabaziko joan, eztok?

—Ez jakiat, ba. Joko harek ez jeroaan amaitzeko antzik. Odoletan eta puzka baina, hogeigarren topekadeaz be zutunik jegoazan biok. Badakik zeinbatarikoan amaitu juen jokoa? Hogeta



bederatzigarrenean. Eta, egia esateko, ez jakiat nik zeinek urten joan garaile. Hortxe-hementxe ibili zoazan biak be, jenteak bere txalo eta gorakaz adierazo joanez.

—Eta posturako hamar mila pezetakaz zer egin juen orduan?

—Zer egingo juen, ba! Lehenen-lehenengo alkarren zauriak osatu, jakina; eta gero arratsaldean merienda eder bat bota juela entzun izan joat nik.

—Buruak apurtzen ibili, eta meriendarako prest? Ez dozak makalak mutilok! Badakik, Jose, zer egingo juela uste izan joandan?

—Barrabaskeriaren bat?

—Ez jakiat, ba, barrabaskeria izango zozantz. Nik neuk behintzat zezenak eroaten dozaan lez, hiltokira eroan eta narrua kenduko neutsean, eta gero okelea salgai ipini.

—Ja, ja, ja!... Negozio polita izango heuan. Hurrengoan bizkortxuago ibili behar izango dok...

—Holako jentemoduagaz, Jose, zeozer egin behar, ba...

* * *

Eta, jakina, irakurle: zuk nik esandako hau sinistu nahi ez. Baina zer egingo deusut, ba? Egia, zuk nahi ez arren be, berez da egia eta, hor konpon!, sinisgogor bazagotaz. Ni neu behintzat hau baino handiagoak be sinistra ohituta nago.

LIV

TXOMIN *ZORRI*REN EZKONTZEA

Zelebregoa zan zelebregoa nik dinodan mutil hau! Baldar eta traskilagorik ez dot sekula ezagutu. Kitanuak eurak be ez ha bestean. Ezta!

Gorputza oker-oker eginda, bizkarrean maletaren bat eroiala antza emoten eban. Euki be, gero, baeukan tontor bakotxik!...

Jazkeran barregarria, inor izatekotan; praka eta alkondara zahar-zaharrakaz beti. Adurra be baerion ahotik ugari. Eta tontolin bat irudian; baina listoa zan, oso listoa danganinoa halakoa!

Txomin *Zorri* deitzen eutsiela? Asko ardura eutsan berari, barre ordeztzikotxu bat emongo baeutsien...

Igarriko zeunkie, irakurleok, zein burutasun etorri jakon behin gure mutil honeri? Ezkondu egin behar ebala, eta ezkondu egin behar ebala, edadea be baeukala-ta! Bero hasi zan gure mutila burutasun honegaz.

Baina gizajoak ez ekizan, antza, neskatoen gustuak.

—Txomin *Zorrigaz* ezkondu? Jajai!... Tximinoi bat baino motzago zan haregaz?!...

—Ezetz, e? Ondo dago, ondo. Mustur-musturretan joko zai-tuet, ba, danok, sorgin petral erreok!

Eta gure Txomineri berebiziko gogorakizun bat emon eutsan buruak. Ezkonduko zan, bai, eta auzoko neskarik ederren eta aberatsenagaz, ezkondu be. Miren Arantzagaz beragaz, haor!

Zelan irabaziko eban Miren Arantza? Hori itxi bere kontura. Behingoan asmauko deusku inoizko erarik politena eta.

Miren Arantza guraso eta neba-arreba bakoa zan. Neskamea eta bera bakarrik bizi ziran etxe eder haretan. Txomin *Zorri* baino urte bi zaharragoa zan. Baina zahar izate honek ardura ete eutsan, gero, gure Txomineri? Bai zera! Miren Arantza eder eta aberats zan guztiz, eta Txomin *Zorri* lako hogei liluratzeko nahikoa zan neskarik. Untzea, hau eban Txominek: Miren Arantzaren bihotza zelan irabazi.

Baina, bai, ahoa zabalik geratzeko egoan mutila!...

Iluntze aldean Miren Arantzarenera joanda, bere neskameagaz egin eban berba. Txominek, ahotsik gozoenaz, agertu eutsazan bere burutasun guztiak neskameari. Lagun izaten bajakon, ondo baino hobeto sarituko eban gero.

Sari on baten orde ez eutsan lagunduko, ba, neskameak Txomin *Zorriri*? Bai pozik be!

Eta gau haretarako, honako hau gertu eben bien artean:

Txomin *Zorri*, isil-misilean, Miren Arantzaren ohe azpian sartuko zan. Miren Arantza oheratzerakoan, oheari bultz eraginaz, esango eban Txomin *Zorrik*: «Miren, Txomin *Zorrigaz* ezkondu behar dozu; osterantzean neugaz zaroada». Miren Arantza, jakina, neskameari deika hasiko jakon. Orduan neskamea joan, eta gela guztia ikusiko eban, inor egoantetz. Eta, amesen bat izango zala-ta, barrero joango ziran biok lotara. Hiru-lau biderrez egingo eben hau. Eta azkenean..., baietz Miren Arantza Txomin *Zorrigaz* ezkondu!

Txomin *Zorriren* poz-ikarea burubide hau izan ebala-ta!...

Heldu zan gaua. Hamabiak hur-hurrean... Ai ene!, hamabiak jotean Miren Arantzak bota eban txilioa!

—Juani! Lapurrak! Erdu arin!

—Ze lapur, edo? Zer jazoten jatzu, Miren?



—Hara, Juani!..

Eta Mirenek jakinazo eutsan gertaturikoa. Neskameak, baina, inor topau ez gela guztian...

—Amesen bat izango zenduan, Miren. Egizu lo, ezeren ardurarik.

Nekez baina, ordu erdi barru lo egoan Miren Arantza. Txomin Zorri, oster, inoizkorik izartuen.

—«Ondo joak gauzea! —esan eutsan kolkoari—. Tirok, beste apaxkadatxu bat».

Eta lehengoa bera eginaz, lehengo berbera, esan be, esan eutsan. Zerau: Txomin Zorrigaz ezkontzen ez bazan, beragaz eroango ebala.

Miren Arantzaren barrua nork jakitera emon? Hazurretarainoko bildurrez egoan gizajea; eta ia berbarik be egin ezinik, deitu

eutsan bigarrenez Juaniri, laguntasun eske. Juanitak, baina, oraingo honetan be inor topau ez kuartu barruan.

Norena ete zan, gero, ahots ha? Jaungoikoarena, beharba-da!... Barriro entzungo baeban, baietz erantzun beharko eutsan: ezkonduko zala Txomin *Zorrigaz*.

Ordubete inguru igaro da. Gaua bake-bakean; katuen miau bat be ez da entzuten inguruan... Honetan, Txomin *Zorrik*, lepoz ohea hartuta, inoizko bultzadarik handienak emonaz, dinotso ahots gogorrez Miren Arantzari:

—Txomin *Zorrigaz* ezkonduko zara, ala neugaz zaroada?

—Bai, ezkonduko naz, ezkonduko naz...

Eta gizajea, taupadearen taupadaz bihotzak urten beharrean, neskameagana joan zan arrapaladan, gelatik igeska.

Bien bitartean, gure Txomin *Zorrik*, zer?, zast!, iges egin eban bere etxera. Eta –ez deustazue sinistuko, baina– gau eta goiz guztia igaro ebazan bizarra kendu, jantzi barriak ipini eta gorputz-arpegiak txukun-txukun jarten.

Goizeko hamaikak inguruan, Miren Arantza gau haretan jazorikoa esaten etorri jakonean, Txomin *Zorrik* berebiziko arpegirik alai eta gozoena ipini eutsan, eta poz-adurretan hartu eban «bere Mirentxuren» barri zoriontsua.

Bene-benetan be, gero, Jaungoikoa on-ona ete zan, gero, gure Txomin *Zorrigaz*?!...

Hilebete barru, alkarren senar-emazte doguz gure Txomin *Zorri* eta Miren Arantza.

Arratsaldeetan-eta, besotik oratuta, emazteagaz paseoan ikusten ebenean:

—Ola, Don Txomin! Arratsalde on! –agur egiten eutsien herritarrak.

Eta Txomin *Zorrik*, irribarrerik gozoenaz:

—Baita zeuei be! –erantzuten eutsen.

LV

TXOTXOPIN EHIZTARIA¹

Herritik apur bat urten, mendira bidea hartu eta haxe bera, pago handi haren gerizpeko etxe zahartxua, haxe zan *Txotxopinen* bizilekua.

Berrogeta hamarren bat urte eukiko ebazan hor-hor. Bakarrik bizi zan aspaldi honetan. Bueno, bakarrik esan dot, baina lagun bat baeukan: Txuri, Txuri erbi-txakurra.

Txotxopin, hatan be! Zuek ez dozue eukiko oraindino bere entzuterik, beharbada. Ez, ba! Periodikuek-eta, liburuek-eta ez dabe sekula aitatu bere izenik eta. Nik, ostera, lagun zaharra dot *Txotxopin*, eta lagunik eskuz zabalenetarikoa ganera. Hamaika-txu platerkada gozo jan izan dogu alkarregaz, kontu-kontari, Pantxikeneko taberna zaharrean: zozo-birigarroak, erbiak, oilagorak, eperrak..., danetarikoa, *Txotxopinen* eskopetearen aurrean jarten zan guztia.

Zer, ba? Oraindino entzun barik zagoze, ala? Ez deustazue sinistuko baina, *Txotxopin* lako ehiztaririk ez da sortu, eta ezta sortu be egingo Euskal Herri osoan. Ha zan ehiztaria, ha! Etorri

¹ *Ipuin-barrekaren* 1980. urteko argitaraldiko aletik hartua da, lehenengo-ko edizinoak, 1959. urtekoak, ez dakar eta.

ekikiozan ehun txori batera; pin!, pun!, tiro bi eta danak jausiko ziran lurrera. Urten eikion mendiko otartetik erbirik bizkorrenak. Ez eutsan adar askorik joko, ez, erbi honek; hankaz gora botako eban lehenengo tiroan. Aparteko ehiztaria zan *Txotxopin*. Eta, hau miragarria!, perdigoi bat erabili barik gehienetan.

—Perdigoirik erabili ez, eta ehizean egin?

—Entzun, entzun, sinistu gura ez badeustazue.

* * *

Goiz haretan be, Txuri erbi-txakurra hartuta, mendi alde-rantza joan zan *Txotxopin*, erbitan.

Gitxien uste ebanean, Txurik erbiren baten errastua hartu eban. Ahausika hasi zan eta urduri ebilen batetik bestera, buztanari eraginaz, erbia noiz aurrean ikusiko. Zuhur egoan *Txotxopin*, eskopetea eskuan hartuta. Izan be, zer ziran hareek? Erbiak, bai; eperdibiko erbi bi mendian gora igesean. Txakurra atzetik joaken. Eta *Txotxopinek*, eskopetea begi ondoan jarrita, katuari eragin, eta taka! Baina, tirorik ez. Zelan botako eban, ba, perdigoirik ez eukan eta? Erbiak, barriz, iges egin behar eutsien, batek badaki norantza. Zer egin?

—Denganino-denganinook, ez deustazue iges egingo, ba, arraiook halakook! —esan eban adorez.

Eta patrikeran eroian argizaia hartu eta zatitxu bat sartu eban kartutxo barruan. Gertu eskopetea, eta arineketan tontortxu batera igon eban, Txurik aurrean hor-hemenka erabilzan erbiai aurrea hartzeko. Etorri be, hantxe etorkon bat, handiena. Zuzendu eskopetea, oratu katuari, eta danba!, tiroa. Baita jo be erbia, eta bekoki-bekokian jo be ganera. Erbia, baina, biribilketa batzuk egin eta ostean, aurrera joian estartan gora, argizai eta guzti iges. Baina, iges? Bai zera iges! Estartan gora joiala, jirabira bat, erre-buelta bat hartukeran, beste aldetik etorkon erbi lagunagaz ez dau egiten, ba, topeka, eta ez dira, ba, biak geratzen argizaiaz bekokiz alkar josita, ez aurrera ez atzera?

Heldu zan *Txotxopin*, eta erbi gizajoi leunkeria batzuk esanda, lepora bota ebazan, argizaia beste lokarri barik. Eta kantuka hartu eban etxerako bidea.

—Gozo egongo dozak honeek koitaduok —esan eban—, Pantxi-kek saltsan jarri deidazanean!

* * *

Beste behin, goizean goiz, *Txotxopin* ehizara joan zan, Txuri aurrean hartuta. Goiza apartekoa egoan, garo bakoia errastua hartzeko.

Peru Antonen landara heldu zanean, han landearen goiko aldean pizti batzuk ikusi ebazan. Erbiak? Konejuren batzuk? Lukiak? Ez ekian zer ziran. Baina makur-makur eginda, munaren ondotik arrastaka, han joan zan isil-misilean eurakanantza. Bihotza taupadaka hasi jakon ezagutu ebazanean: erbiak oraingoan be. Bost erbi morroskoak, eperdibikoak! Sekulabedarra jaten egozan gozo-gozo. Holako suerterik, horraitino! Kazuelakada bat ezeze, herritar guztiai bazkari on bat emoteko be baeukan erbi hareekaz.

Edegi eban eskopetea; hasi zan kartutxoak sartzen. Baina oraingoan be perdigoirik ez! Ha zoritxarra! Zer egin? Untze batzuk eukazan bere praka zaharretan gordeta. Ezbairik txikienik barik:

—Honeexek sartuko joadaz kartutxoetan —esan eban—, eta honeexekaz jausiko dozak gure morroskook.

Esan eta egin. Apurtxu bat aurreratu, lurrean etxun, eskopetea luzatu, ezkerreko begia itxi, katuari oratu, eta dinbi!, danba!, bota ebazan ikaragarrizko takarrada bi. Zer jazo zan han? Baina zer zan ha? Sokatiran hasi ete ziran gure erbiok? Horixe esan eitekean. Untze hareek ez ebezan ba alkar josi euren buztanetatik? Buztanetatik josita geratu gure erbiak, bata batera eta bestea bestera, indarka, tiraka! Holako erromeriarik, horraitino!

Heldu zan *Txotxopin*. Oratu eutsen buztanetatik gure morroskoai; bota ebazan bizkarrera, egozan lez, batzuk aurrera

besteak atzera. Eta poz-adurretan heldu zan goiz haretan be Pantxikerenera eperdibiko erbi hareekaz.

* * *

Egun baten, ostera, *Txotxopinek* albiste ikaragarri bat hartu eban. Albiste hau Txurik, bere txakurrak, ekarri eutsan:

—*Txotxopin* jauna, mendian ibiltaldi bat egitetik natortzu. Nik ikusi dot ikustekoa!

—Zer ikusi dozu, ba?

—Zer ikusi dodan? Abere guztiak zure kontra altzau jatzuz. Hantxe egozan danetarikoak: otsoak, azeriak, katamixarrak, ogigaztaiak... Nik al dakit zenbatzuk?! Eta tontortxu batera igonda guztiak berba egiten erbi bat: «Anaiabereok!, –inotsen erbiak su eta gar-. Arerio handi bat sortu jaku aspaldion lurralde honetan. Ez dakizue nor?». «Esan, esan!», deadar egin deustie danak. «Arerio hori –jarraitu dau erbiak– *Txotxopin* dozue –berori, jauna-. Denporatxua da gure familiako bi hil ebazala. Lehengo baten beste bost hil ebazan, eta bakean ixten badeustsagu, apur-apurka danok gara galduak. Zer egin behar dogu, anaiabereok, *Txotxopinegaz?*». «Heriotzea emon! Urkamendira eroan!», erantzuten deustie bat-batera danak, sutan begiak eta hortz-erpeak zorroztuaz. Eta han itxi dodaz nik oraindino astrapalaka, burutapenok alkarrerri azaltzen.

Kontxo, kontxo! Zer gogoan hartu emon eustien gure *Txotxopineri* Txuriren albisteok. Aurrerantzean kontu gehitxuago euki beharko eban etxetik urtetea. Baina bildurtu? Ez horixe! Ai bere kontra etorriko zan aberearen koitadua! Behingoan narrutuko eban eta eskegita jarri be etxe ondoko pago nagusiaren adar batetik.

Baina, um!!!, ez dakit, ba, ez dakit, ba. Iluntze haretan beheko trokatik etxerantza bidean *Txotxopinen* prakak apurtxu bat busti ziralakoan nago... Azeri bi ikusi ebazan bere aurretik abiadan joaten; eta haratxuago otsoen orroak entzuten ziran pago

artean. Han ebilzan, antza, bere arerioak. Kolperen bat gertuten-
-edo ete ebilzan, beraz? Badaezpadan be, oherakoan, Txuri atezain
itxi eban lotuta eta eskopetea ohe ondoan jarri, benetako kartu-
txoz horniduta oraingoan.

Gaueko hamabiak inguruan oihu batzuk irazartu eben *Txotxopin*. Zer ziran, gero, oihuok? Baetorkozan, antza, arerioak
etxera. Jagi zan ohetik, edegi eban leihoa, eta zuhurtu belarria. Ez
eban ezer entzun. Ba!, ez egoan bildurrik. Mozoloren batenak
izango ziran oihuok! Aharrausi luze bat eginda, ohean sartu zan
barrero gure *Txotxopin*, nasai-nasai. Ez dakit nik zer esan be:
bere hondamendirako ala bere garaipenerako. Gau-oihu hareek ez
ziran, ba, bere arerioen guda-oihuak, gudarako deiak izan?

Etorri be, hantxe etorren beheko trokatik gora ikaragarritz-
ko gudari talde bat. Aurretik erbi bi etozan, bien artean ikurrin
gorri bat ekarrela; hurrengo, basakatuak; honeen ostean ogigaz-
taiak. Azeriak be baetozan, hogeï, berrogeï... –nik al dakit zen-
bat?!–; otso-talde handi bat be bai, kantu garratzez gainera; eta
honeen ostean batek daki zenbat gehiago: katamixar, katamiel-
ga... Sekulako taldea benetan! Baetozan, baetozan *Txotxopinen*
etxe ondorantza. Eta hareen irrintziak! Hareen gorak eta hare-
en beherak!

—Behera *Txotxopin*! Gora gu eta gutarrak! Askatuak gara
gaur, gero!

Zer zan ha?! *Txotxopin* zurtz eginda geratu zan zaratok en-
tzutean. Norenak ete ziran? Baina ez egoan ezbairik: eurak ziran;
bai, abereak ziran bere kontra deadarka eta garrasika etozanak.

—Heriotzea! Urkamendia *Txotxopin*entzat!!!

Ez ekian zer egin be gure *Txotxopinek*. Eurak heldu baino
lehenago etxetik iges egiten baeban bidean atrapauko eben,
beharbada, eta narrututa jan. Etxean geratzen bazan, ostera,
baleitekean ate-leihoak apurtuta barruraino sartzea. Baina, ze
arraio! Horreek ziran, ba, gizon batentzako burutazinoak? Ordu-
ra arte ezergaitik bildurrik ezagutu ez ebana, orduan izango ete
zan, ba, bildur? At hemendik gogorakizun zoroak!

—Datozala, datozala abere denganinook, neuk garbituko dodaz neure esku artean eta! —esan eban ohetik jagita prakak janzten ebazan artean.

Esan baeban, esan eban. Edan eban ardao-txurrutada luze bat. Sartu eban txapela begietaraino. Hartu eban eskopetea bere esku artean eta, Txuri atezain itxita, bakarrik urten eutsen bidera, beheko zelaira:

—Geldi hemen, abereok! Zer dira gero zuen putzok? Noren bila zatoze?

—*Txotxopinen* kontra gatoz gu, eta itxi eiguzu aurrera jarraitzen, berton garbitzea gura ez badozu.

—*Txotxopinen* kontra? Neu nozue, ba, gizon hori. Zer gura dozue?

—Zer gura dogun? Zu narrututa ikustea, hor pago horren adarretik dingilizka.

Eta Otso Nagusiak, orroa garratz bat jaurtiaz, gudara deitu ebazan:

—Heldu, mutilak, *Txotxopin* horrerri eta zatitu berton!

Hango astrapalotsa! Hango erpe-hotsa! Hango hortz-kirrizkadea! Sekula ez da inon izan haren besteko gudaketarik. Otso amorratuak alde batetik, azeri-taldea bestetik; katamixar, ogigaztai, erbi, katamielga, azkonar..., danak jausi jakozan bat-batera inguru guztietatik tximista baten arinean. Iruntsi behar eben, ziur, gure *Txotxopin* gaixoa. Azterrenik be ez eban itxi ahal izango hainbesteren artean. Bai, horixe uste eikean edozeinek.

Baina gorantziak hartu eikezan! Gau haretan —eta noiz, gero?— *Txotxopin* azpiratzekorik sortu barik egoan. Tiro bat botateko denporarik ez eutsien emon baina, iretargia lagun ebala, ikusi bai, ikusi eban *Txotxopinek* nondik etorkozan areriook.

—Diabrukumeak bazarie be, hemen garbituko zaituet, ba, pizti madarikatuok! —orroa egin eban.

Eta eskopetea esku biakaz hartu eta emonahalean hasi jaken joka:

—Ala! Hartu, hartu, zeuok nahi izan dozue eta, pizti sorgin petralok!

Han jausi ziran luze, ez dakit zenbat otso, azeri, eta abar.

Hau ikusiaz, ostera, beste piztiak adore gehiago hartu baino ez eben egin:

—Ez itxi, mutilak! Ekin gogotsu! Heriotzea *Txotxopineri*!!!

Eta euretariko bi –otso-azeriak– praka arteraino sartu jakozan. Baina haginakadea emoterakoan, *Txotxopinek*, ri!, ra!, bere hankakaz zapaldu burua, eta han itxi ebazan hilda, garaunak kanpora urteten eutseela. Katamixar batek be orduantxe saltau eutsan arpegira, begiak atera gurarik; basakatu batek be bai. *Txotxopinek*, baina, aidean etorkozala, oratu buztanetik eta bere besoaren inguruan eragin eta ostean, pagoaren kontra birrindu ebazan katamixar-basakatuok. Ikaratu ziralakoan nago *Txotxopinen* ausarditasun honegaz. Ez egoan, halanda be, iges egiteko.

—Hil edo bizi, anaiabereok! –ziharduan deadarka ikurrindun erbiak–. Baina ez parkatu *Txotxopineri*. Behera *Txotxopin*!

—Behera! Urkamendira *Txotxopin*!!! –erantzun eutsien danak adore barria hartuaz.

Eta nik ez dakit ogigaztaia edo zein izan zan baina praketan tarratada handi bat egin eutsan *Txotxopineri*, izterra agirian ixten eutsala. Ez dakit odol apurren bat be isurten hasi ez zanentz.

Txotxopineri heldu? Nork esan eban holakorik? Behingoan ikusiko eben norainokoa zan *Txotxopin*, petral ergel ziztrin kol-darrok halakook!

Aitaren baten *bonba atomikea* lako tiro ikaragarri bat jaurti eutsen. Hango orroa eta alarauak! Dozenaka jausi ziran hankaz gora, bai handi eta bai txiki. Geratzen ziranak, baina, geroago eta gogorrago jarraitzen eben:

—Behera *Txotxopin*! Heriotzea *Txotxopineri*!!!

Ene! Eta zer jazo zan han? Otso Nagusiak ez eutsan, ba, eskuetara saltau eta hortzakaz eskopetea kendu?

—Zureak egin dau, *Txotxopin*! Geurea zaitugu! –oihu egin eben, poz-maltzurrez abere guztiak–. Askatuak gara oraintxe!

Eta ez dozuez ikusi inoiz, irakurleok, erleak norbaiten arpegi-ra abiada guztiz joaten? Halantxe jausi ziran abereak *Txotxopinen* kontra. Ordu txarrean, gizajo handiak! Sanson bera zer zan, ba, *Txotxopinen* ondoan?

Ez eban, ez, astoaren matrailazurrik behar izan bere burua zaintzeko. Ukabilak gogortzea nahiko izan eban. Sast!, batari, sast!, besteari; otso, azeri, katamixar, ogigaztai eta erbi, bota ahal-lurreratu ebazan alkarren ganera, euliak balira lez. Iretargi-izarrak ikaratuta ikusten ebelakoan nago *Txotxopinen* trebetasuna. Izertzan egoan, nekatuta; baina pozik, hori bai, oso pozik.

A! Baina, oraindino ez eukan ez atsedeen ez txalorik hartzerik. Ikurrin gorriagaz egoan erbi pare; euren ondoan hiru-lau dozena erbi lagun bai gitxienez. Honeek danok kolkoratzea erreza izango eban... Baina, eta Otso Nagusiaren hortzetan jausten bazan? Haxe eukan oraindino garaitu barik, aurrez aurre, ikaragarri!

—Aurrera! Ekin! Emon! Zeuk garaituko dozu *Txotxopin* eta! —adoretzen eben eztarria lehertu beharrean erbiak Otso Nagusia.

Ez egoan, ez horixe!, horren beharizanean. Begiak sutan eukazan, gorroto gordinez diz-dizka; ahoa, barriz, amorru-bitsa jarioz. Igesari emoten eutsalakoa egin eban, *Txotxopin* oharge hartzeko. Honetan, dapa!, jirabira hartu eta lauhankan, hartz zorrotzak agirian, *Txotxopinegana* etorren bertan zatitzeko prest; bai saltau be sama-samara. *Txotxopin*, haize indartsu batek botariko zugatzaren irudi, kolpearen indarrez lurrera jausi zan; eta Otsoa bere ganera. Bajoakon berehala haginkadarik zorrotzenaz samea batetik bestera zulotzera. Hau guztiau ikusten egozan erbi haren poza! Txaloka eta aupaka hasi jakozan Otso Nagusiari.

—Emon, emon demontre horrerri! Haustu behin betiko *Txotxopin* gaizkilea!

Coraintziak hartu eikiezan gure erbiok. Katu edo sugereren baten erantzuna, buztana zapal dutakoan, bizia izaten bada, biziagoa izan zan *Txotxopinena*. Otso diabru haren atzaparretan berak bizitzea emon? Nork esan eban? Tximista bat bera baino be ari-

nago zutunik jarri zan. Oratu eutsan esku bategaz kokoteko narrutik, besteagaz, barriz, buztanetik; eta eragin-eragin egin eta ostean, hamabost metroan gora bota eban gitxienez, ia pago nagusiaren gailurreraino. Erbiak isildu ziran; baita metro erdiko ahoa edegi be, euren Otso Nagusi harroa haizearen hegoetan ikusi ebe-nean.

Txotxopinen zigor-bengantzea, baina, oraindino bete barik egoan. Tripaz lurra joten itxi eban; ez eban, horraitino, leher egin gure Otso Nagusiak. Bizirik geratu zan; benetan be bizirik, gero! Bere indarrak batuta, *Txotxopinen* praka artean sartu eta izterretik heldu eutsan. Erbiak zoratu beharrean, barriro txilioka:

—Oraintxe, Otso Nagusia! Ez itxi! Birrindu *Txotxopin!!!*

Baina Otso Nagusi horren bizia neurtuta egoan. Behi baten ahoa hagin txikidun danentz ikusteko, atzamarrakaz zelan edegiten dan? Halantxe bota eutsazan *Txotxopinek* musturrera esku



biak: bat gora, bestea behera. Oratu eutsan eskumeaz, surreko zuloetatik; ezkerreko atzamarrak josi eutsazan okotzean. Eta, rausk!, txirla bat baino errazago, goitik behera edegita, zati bi eginda itxi eban Otsoa.

—Zer ibili zarie nire kontra, erbi barrabanok? —jarraitu eban lehiatsu *Txotxopin*ek erbien aurka—. Oraintxe ikusiko dozue zuek be nor dan *Txotxopin*!

Hartu eban Otso Nagusiak kenduta haratxuago egoan esko-petea, eta igesari emoteko denporarik itxi barik, jaurti eutsen oraindino geratzen zan kartutxokadea; eta han jausi ziran hankaz gora ikurrin eta guzti. Azkeneko tiro hareen oihartzunak, gailurrik gailur hegaz, inguruetakoko mendiak *Txotxopineri* josten eutsiezan txaloak irudian. Goizaldeko bostak hor nonbait ziran.

Txotxopin etxeratu zanean, oilar gorriak ota ganetik kukurrakua jaurti eban. Sekula, horraitino, ez eban *Txotxopin*ek kukurruku ha pozago entzun. Nekatuta egoan eta, hiru-lau ordu-rako lotara joan zan.

Amesetan be egin eban. Ames haren gozoa! Herri guztiaren aurrean ehiztarien txapeldun izendatua zan *Txotxopin*. Haren txalo eta gorak entzun beharra! Erromako enperadore hareek, Erromara garaile sartzean, entzungo ete ebezan, gero, berak beste korik?

Izartu zanean, bihotza taupadaka eukan oraindino; ezpanak, barriz, ames atsegin haren irribarrez loratan. Praka eta alkondarra barriak jantzi ebazan. Katilu bete talo-zopa garbitu be bai gosaltzeko. Eta makila handi baten, hamar, hoge, berrogei, zenbatu ezin ahala erbi dingilizkatu eta guztiok bizkarrean hartuta, han joan zan, Txuri lagun ebala, inoizko zoriontsuen, Pantxikeneko tabernarantza.

Peru Antonek-eta, Patxok-eta ikusi ebenean, ezin izan eben sinistu begiak inotseena. *Txotxopin* ehiztari ona zan, hori bai, hori danak ekien herrian. Baina goiz baten horrenbeste erbi hil eikeanik? Benenoz hilgo ebazan edo plazaren baten norbaiti ero-

si. Kia! Ezinezkoa zan harek goiz baten horrenbeste erbi hilterik. Ezta aste baten be!

*Txotxopin*entzat ezinezkoa! Noiz entzun zan holakorik? Sinistu gura ez baeben, ikustea baino ez eukien. Taberna-lagun batzuk bialdu ebazan troka ganeko zelaira, *Txotxopinek* inotsena ziurtzeko. Joan be, joan ziran, ba. Mirarituta, harri eginda etorri ziran mutilok hango triskantzea ikusiaz. Egia zan, bai; egia zan *Txotxopinek* inotsena. Erbiak ezeze, otso, azeri, ogigaztai, kata-mixar, azkonar, basakatu..., zer zan, baina, *Txotxopinek* hil ez ebana?!

Edan zan –bai edan, gero!– txurrutada gozorik Pantxikerenean *Txotxopinen* omenez.

—Gora gure *Txotxopin!* –inoen danak, poz-algaraz. Gora gure ehiztaria!!!

Eta *Txotxopinek*, kolko barruko poz kili-kilia gorde ezinik eta herritarrai bere esker ona zelanbait agertu gurarik, Pantxikeri emon eutsazan erbi guztiak:

—Eutsiz, Pantxike! Prestau eizuz, gozo-gozo orio-saltsatan, eta herritar guztiak jan dagiela gaur erbia, ok egin arte!

* * *

Ez ete deusku *Txotxopinek* guri be halakoren baten erbi pare bat bialduko? Nire eskuetara heltzen bada behintzat, dei egingo deusuet.

Agur! Agur danoi! Eta... ordura arte!!!

AGURRA

Agur bai, irakurle lagun, azkeneraino jarraitu deustazulako. Nire gogoia ipuin polit atseginak idaztea zan. Zuri une on zoriontsu batzuk igaro eragitea. Pozik naukazu, beraz, horrelakoa izan banaiatzu.

Agur egin baino lehenago, ostera, ohartxu bat egingo neuskitu. Zerau: ipuinotan ikusi dozuzan zorrozkeria edo bihurrikeriaren batzuk ez daizuzala hartu beste bihurrikeria askoren bidetzat. Ipuina, ipuin da, irakurle. Eta zuk badakizu nik bestean, irudimenak, ipuin bat mamintzean, egia ez diran edo ohitura-arloan ondo ez legokezan gauzatzuren batzuk be asmau egiten dituala. Ohartu, bada, hauxe, irakurle.

Eta gaurkoz, besterik ezer be ez. Mila esker, honen abegi ona egin deustazulako. Eta ea noiz ikusi ahal dogun alkar hurrengo baten be.

SUTONDOAN SORTA

1. Ebaristo Bustintza *Kirikiño: Egunekoa*
Aukeraketa eta hitzaurrea: Xabier Perea
Aurkezlan eta moldakuntza: Jesus M^a Agirre
2. Jose Manuel Etxeita: *Josetxo*
Moldakuntza eta sarrera: Adolfo Arejita
3. Estepan Urkiaga *Lauaxeta: Azalpenak*
Aukeraketa eta hitzaurrea: Jon Kortazar
4. G.C. della Croce – Bernardo M^a Garro *Otxolua: Bertolda eta Bertoldin*
Aurkezlan eta moldakuntza: Adolfo Arejita
5. Eusebio Erkiaga: *Jaioko dira*
Sarrera: Lino Akesolo
6. Ebaristo Bustintza *Kirikiño: Edo geuk edo iñok ez. Euskerearen alde*
Sarrera eta hautapena: Xabier Perea
Moldakuntza: Xabier Perea, Adolfo Arejita
7. Mikel Zarate: *Ipuin antzeko alegi mingotsak*
Aurkezlan: Igone Etxebarria
8. Eusebio Erkiaga: *Batetik bestera*
Moldakuntza eta aurkezlan: Iñaki Sarriugarte
9. Txomin Agirre: *Auñemendiko lorea*
Moldakuntza eta sarrera: Rosa Mari Arano
10. Txomin Agirre: *Kresala*
Moldakuntza eta sarrera: Mirari Alberdi eta Jon Arretxe
11. Jose Manuel Etxeita: *Jaioterri maitia*
Aurkezlan eta moldakuntza: Iñaki Sarriugarte
12. Eusebio Erkiaga: *Txurio Txoria*
Aurkezlan: Igone Etxebarria

13. Txomin Agirre: *Garoa*
Moldakuntza eta sarrera: Bingen Zupiria
14. Resurrección M^a Azkue: *Latsibi*
Moldakuntza eta sarrerak: Mirari Alberdi eta Karmele Olano
Adolfo Arejita eta Luis Villasanteren hitzaurreak
15. Jean Barbier – Bernardo M^a Garro *Otxolua: Ixtorio-Mixterio. Ipuin-
Mipuinak*
Sarrera eta moldakuntza: Igone Etxebarria
16. Ebaristo Bustintza *Kirikiño: Guda Nagusia (1914-1918)*
Testu-aukeraketa eta sarrera: Xabier Perea
17. Jose Antonio Oar-Arteta: *Zaar-Barri*
Sarrera: Segundo Oar-Arteta
18. Xabier Goitia: *Eusko umeak atzerrian*
Eratzailera: Jaime Kerexeta
19. Eusebio Erkiaga: *Arranegi*
Sarrera eta moldakuntza: Iñaki Sarriugarte
20. Sorne Unzueta *Utarsus: Idazlan guztiak*
Testu-aukeraketa: Igone Etxebarria
21. Ipolito Larrakoetxea *Legoaldi: Grimm anaien berrogeita hamar ume
ipuin*
Sarrera, oharrak eta moldaketa: Miren Atutxa
22. Eusebio Erkiaga: *Berbalauaren kulunkan (Prosa lanak) I*
Sarrera eta edizioa: Andres Urrutia
23. Eusebio Erkiaga: *Berbalauaren kulunkan (Prosa lanak) II*
Sarrera eta edizioa: Andres Urrutia
24. José Basterretxea *Oskillaso: Euskaldunak Madrilen*
Sarrera eta edizioa: Adolfo Arejita
25. Karmelo Etxenagusia, *Gotzaina: Euskerea nire bizitzan*
Testuaren ardura: Igone Etxebarria
26. Jean Hiriart-Urruti: *Ni kazeta-egilea naiz. Artikulu, berri, istorio*
Sarrera eta edizioa: Xabier Altzibar

27. Mikel Zarate: *Haurgintza minetan*
Sarrera: Jesus Etxezarraga
28. Domingo Agirre: *Kresala*
Sarrera: Sebastián García Trujillo
29. Xipri Arbelbide: *Zoriona. 31 eta esku*
30. Ebaristo Bustintza *Kirikiño: Abarrak*
Sarrera eta edizinoa: Miren Atutxa
31. Gorgonio Renteria: *Izartu euskaldunak! Elantxobetar baten olerkiak eta artikulak*
Biltzailea: Jule Renteria
Sarrera eta edizinoa: Igone Etxebarria
32. Ebaristo Bustintza *Kirikiño: Aberriaren alde. Artikulu politikoak*
Testu-aukeraketa: Javier Perea
Sarrera: Cesar Gallastegi
Edizinoa: Igone Etxebarria
33. Estepan Urkiaga *Lauaxeta: Gure aberriaren elea. Kazetari-lanak*
Sarrera eta testu-aukeraketa: Xabier Altzibar
Edizinoa: Igone Etxebarria
34. Balentin Berrio-Otxoa Santua: *Neure amatxo maitia. Euskerazko gutunak*
Sarrera: Roman Berriozabal
Hizkera-azterketa: Adolfo Arejita
35. Eusebio Erkiaga: *Goizean eta arratsean. Eskubete neurtitz • 1*
Sarrera: Igone Etxebarria
36. Eusebio Erkiaga: *Goizean eta arratsean. Eskubete neurtitz • 2*
Sarrera: Igone Etxebarria
37. Bitoriano Gandiaga: *Hitz lauz idazten*
Sarrera eta edizinoa: Iñaki Sarriugarte Irigoien
38. José Basterretxea *Oskillaso: Kurloiak. Mutiko kaletarrak Bizkaian*
Sarrera eta edizioa: Adolfo Arejita

39. Ebaristo Bustintza *Kirikiño: Bizkaia begietan (1913-1928)*
Testu-aukeraketa: Javier Perea
Sarrera eta edizinoa: Miren Atutxa
40. Angel Ugarteburu Meabebasterretxea: *Milloitik mundura. Ume-denporako oihartzunak*
Sarrera: Juan Luis Goikoetxea
41. Georges Simenon: *Aspaldiko Maigret*
Itzulpena: Eusebio Erkiaga
Sarrera eta edizioa: Andres Urrutia
42. Felix Bilbao: *Ipuin-barreka*
Sarrerea: Adolfo Arejita
Edizinoa: Nagore Etxebarria